



**BIBLIOTECA
VASCA**
F. de Abrisqueta

ESCU-LIBURUA

CENEAN DAUDEN

CRISTABAREN EGUNEROCO EJERCICIOAC.

*Mandamentu santuetatic esamina eguñeco,
confesatzeco eta comulgatzeco prestat-
rac, guerozco oracioquin.*

MEZA SANTUA, CALBARIOA ETA BESTE
DEVOCIOAC.

JESUSEN COMPAÑIACO

*Aita Agustin Cardaberaz-ec
animen oneraco ipiñiac.*

Iruñeco Apaiz nagusiaren baimenarequin.

TOLOSAN:

PEDRO GURRUHACA-REN MOLDIZTEGUIAN
1877-GARREN URTEAN.

Liburu oni añaditu zaizca :
Coruan Vezperac cantatzen diran
arlean persona devotac letu ditza-
queten Consideracio egoquiac,
naiz echeetan, eta Aldareco Sa-
cramentu Santuari eguiten zayon
visita. Onetaraco Vitoriacono Obis-
po Jaunac eman du ondoren se-
guitzen duan baimena.

Obispado de Vitoria.—Previa la correspondiente censura, venimos en conceder a V. nuestra licencia, por lo que a Nos toca, para la reimpression en vascuence del Opúsculo devocionario que al efecto Nos ha sido presentado por V.; y ordenamos que al principio de tal librito se estampe este nuestro Decreto y licencia.

Dios guarde a V. muchos años. Vitoria 1.º de Octubre de 1864.—DIEGO MARIANO Obispo.—Sr. D. Pedro Gurruchaga, impresor de Tolosa.

Esta parte añadida es propiedad.

IRACURLEARI AVISOA.

IRACURLE ONA: ez arren be-
 reala, ascoren guisa icaratu: libu-
 ru bat idiqui orduco guztia beren gus-
 tora ezbadago, ichi nai dute. Zuc
 orrela izan bear ez dezu: guztia be-
 reala aditzea, orren erraz ez da.
 Eleizaco gauzac edo Dotriña aditzeo,
 gauza asco latinetie artu bear dira.
 Meza santuac eta comunioac guc esan
 al baño Misterio ezcutuagoac dituzte:
 gure dicha guztien iturri original edo
 jatorrizcoac, oriee dira. Fede ta go-
 go onaz iracurten asi zaite, eta las-
 ter edo nola ez daquizuta, Eleiza-

co dotriña ta misterio andiac gustoz,
ta devocioz diran guztia adituco di-
tuzu.

Vizcaitar azco gogotic asi, ta beren
modura ta gurera chit erraz ta las-
ter eguin dira. Igaz iracurten bate-
re etzequien nescacha baserrico viz-
caitar bat aurten eusquerazco ondo
iltzeco liburutic bere Aitari, pida-
de ta devocio miragarriaz, illzen
laguntzen Cura Jaunac eta bes-
te ascoc arrituric icusi dute. Onec
eta beste baserrietaco ascoc, jayetan
bacarric lecioa artu eta beste gabe,
ederqui icasi dute. Nagui alperrai
ez zucsinistu. Dotriñaric ere eusque-
raz icasi nai ez dute: ta Jaincoa-
ren bildur gabe, icasi nai dutenai
ere gogoa quentzeco, milla gauza
eusqueraren contra esaten dituzte.
Aurrae erraz icasten dutena, berac

lotsaz edo lotsagabe icasi nai ez du-
te. San Agustiñec ciona: Onai jar-
raitzeaz lotsa guera, eta onai ez
jarraitzeaz lotsa ez guera.

Animo bada cristau ona: iracur-
teari gogotic ematen badiozu, egui-
ña dago guztia.

Nai Vizcaitarra, nai emengoa
cerala: itz guciac berealacoan ez adi-
tuagatic, laster orretara, ta ondo
aditzera eguingo cera. Guc escolan
cartillaco oracioac, Misericordiazco
obrac ta Contriciozco Actoraño, cer
esaten quenduan ezqueñequiela, goiz
gucietan cantatzen quinducen eus-
queraz, ta arratsaldeetan erderaz.
Escola-maisuac au contuz eraguiten
balute, gucien buruetan ecer costa
gabe, laster ta ondo Oracio guz-
tiac sartuco liraque: eta buruz da-
quiten ori ederqui iracurric luquee.

Bide erraza; goicean eusqueraz, ar-
ratsaldean gaztelaniz Cartillaco Ora-
cioac iracurri ondo, eta liburu gu-
cietan, maisu eta dicipuloac iracur-
ten seguru jaquingo dute.



CRISTABAREN
DEVOCIORIC SANTUENEN
ICASQUIZUNAC.

SANTUAQUICO Cristabaren devo-
cioa cer edo nola dan, Jesus Ma-
ria ta Joseren devocioco Liburuan
esan zan. Oraiñ bear dan arguiaz
gure viotzac gorago jasotzeco,
Meza ta Comunio Santuaren, eta
orietaraco bear diran oracioac a-
guertu ta gucien beguietan paratu

bear ditugu. Egercicio divino oyen
 dotriña edo arguiaren premia ceñ
 andia dan, ondoena daquite con-
 fesore Jaunac, ta oyen celo guztia-
 ren bear naiz. Cristau onac Meza
 ieusten dute ta comulgatzen dira;
 baña cer dan Meza, nola comu-
 nioa artu bear dan eta nola oracio
 eguin bear dan, chit guchie da-
 quite.

Escolarie ez duten anima asco,
 eta Jaungoicoaren gusto eta atse-
 guñ andicoac intencio ta voron-
 date santuaz beteric gure gende
 oen artean, edo bazter eta ar-
 caitz-arte orietan daude. Aita es-
 piritual maite ascoc confesore one-
 naren eguitecorie bearrena cer dan
 badaquite: au da, ez daquiten
 oriei Ceruco bidea banaca con-
 fesonarioan eracustea: gure ne-

cazari onai bear duten Dotriñaren
 arguia ta escua ematen, ta lagun-
 du beren intencio ta espiritu gar-
 biac Cerura jasotzen. Eta nola be-
 ren obra eta nequeac goicetic Jain-
 coari ofrecitu bear diozcaten: ta
 beren lan, eta bearren artean noi-
 cean beñ beren biotzac alchatu
 bear dituzten: Meza Santua nola
 entzuten dan: ceruraco bicitzaren
 edo Jesusen Pasioco Misterioetan
 cer frutu andia gureztat dagoen:
 confesio eta comunioan nola ori
 guztia bacoitzac artzen duan.

Dicha oyec iristeco eracutsi bear
 zaye, nola beren animaz edo me-
 moria, entendimentu eta voronda-
 teaz baliatu bear duten. Eta ba-
 liatze au da biotzeco oracio eta
 meditacioa, edo orren bide errea-
 la. Onen gayac eta erreguelac li-

buru ascotan erderaz arkitzen dira. Eusquerazco egercicioetan bearrenac eman ciran.

Jaunaren eta Ama Virginiaren misterioen gañean oracio onen gayac ematea, gauza erraza da. Baña, nola gueyenac iracurten ez daquiten, eta daquitenac gogo guchi duten, gure pobrechoentzat beste bideric arkitzen ez det, confesoreen celo ta paciencia baidic; ascoc eguiten duten becela, confesonarioan banaca bacoitzari ondoen dagoquion neurrian lecio eta erreguelac ematea: Ta au be-
rau Jesusen biotzeco egercicioetan ondo adierazotzea.

Ascorentzat oracio au eguiteco demboraric onena da Meza santu-
coa; ceren beste libre edo obeamagoric ez duten. Oracioraco bide,

eta modu asco dira. Anima batzuec goragotic, besteac beragotic Jaunac beragana daramazqui; baña guztiai berdin bere biotza escalzen die, eta berequin ta beretzac guztiaic nai ditu. Ala berac eracutsi ta agunduricaco oracioan gucioc esaten diogu: *betor gugana zure erreinua*. Onetan fedeco ar-
guia ta graciazco erreinua aditzen da; ceren gure Jaungoicoa ezagutzean eta amatzean eguiazco Erre-
inua dagoan, lurrean beraren gracian eta Ceruan beraren glorian. Erreinu onetan sartzeco bidea, badaquizu, Sacramentuae, Meza, obra onac, Oracio eta beste egercicio Santuac dirala.

Ascoc oyen artean, santuen devocioa bederatziurren edo novenetan daucate. Gauza ona da; baña be-



12

Eguneroco

guira zue ondo, eta conseju erraz
au seguru gorde zazu. Ama Vir-
giña edo Santuac honratzeco, eta
zure edo besteen trabaju edo ani-
maco nequeetan, orieci bitarteco
nai dituzunean, liburu edo errezo
luce gabe, zure gusto eta era one-
co bederatzi egunetan ondo ciña-
tu, Contriciozco Actoa biotzetie
eguin ta *Paternosterra*, *Ave Maria*
ta gloria bat egunero, baña fede
bici, esperanza firme ta amorio an-
diaz esaitzatu; eta nere contu,
Ama Virginiaren edo Santuen bi-
tartz Jaincoac seguru adituco zai-
tualala; zure escaria eguin ezazu
onela: *Ama Santissima*, edo *N. San-
tu*, nere bitartecoa: onelaco premian
arquitzen naiz, ta neretzat edo ur-
liarentzat nic escatzen dizudan onela-
co favorea alcantza zadazu. Ta asco

Egercicioa.

13

da au, Jaincoac eta bere Santuac
zu aditzeco, eta orra Novena er-
raza.

Oraciorie onenac *Paternosterra*
ta *Ave-Maria* dira. Esan dan se-
deaz erreztatzen badituzu edo es-
cari bacoitzean cer escatzen dezun
ondo pensatu eta biotzean pisa-
tuaz, Ceruco meditacio edo ora-
ciorie onena eguingo dezu. Zue so-
seguz au eguita da Oracio men-
tala. Santuac aimeste alabatzen,
eta zure oneraco aguintzen dute-
na. Ta ona, confesore Jaunac es-
cola andia gabe nun daucaten ne-
cazarientzat Ceruco Doctrina eta
bidea. Sustrai onetatic confesioe-
tan Jaunaren bildur santua dator,
eta beraren leguea gordetzeco, ta
eguiazco penitencia eguiteco gogoa
eta gurari, edo griña gaiztoac uea-



14

Eguneroco

tzeco animo vici eraguille bat:
eta au da Ceruco oracio gucien
frutu ederra.

Emen dator ondo *San Buenaventurac* oracioaren gañean ematen duan consejua, eta cristau on guciac gordetzea chit deseaten dedana. Ala Mezatan, nola beste zure devocio eta errezoetan chit soseguz eta gueldi egotea, eta isilic erreztatzea, zure aldean daudenai zure errezo edo jolas moduaquin obra gaiztoric ez eguiteco. Santuac dio: *In spec. cap. 10. Juicio gabea, edo indiscretoa da oracioa, ascori obra gaiztoa eguiten diona, ta zure oracio otsac besteai beren devocio edo bertasuna quentzea.*

*Egercicioa.*

15

**MEZA ETA COMUNIO
SAGRADUAREN DOTRIÑA,
edo icasquizuna.**

Zuc onen gañean jaquin bear dezuna, Trentoco Concilio Santuan ederqui eracusten da. Dotriña au edertzia lecu ascotan dacar, eta iracurri nai duenac icusi bitza: *Ses. 21. cap. 2. etc. cap. 8 Ses. 21. cap. 2. y. Ses. 22. cap. 1. etc. 2. usq. ad. 8. inclusive.* Lecu oyetan dacarren dotriña da: Sacramentu divino au comunioan batzuec artzen dutela; baña gaizqui peccariac becela, ta beren condenacionaco. Besteac Jaunaren gracion ta ondo egonagatic ere comulgatzen ez dirala: baña fede bici, ta amo-

rio iracequi batequin beren anime-
tan deseoz Jauna artu nai dutela:
oyec comunio espirituala, edo de-
seozco onetan sacramentalaren fru-
tua artzen ta sentitzen dutela, Iru-
garrenac berriz gracian ta ondo co-
mulgatzen dirala.

Lenengoac Comunioa artzen du-
te munduaren beguietan, baña ez
Jaincoarequico; ceren pecatu mor-
talean dauden.

Bigarrenac Sacramentua gure
beguietan artzen ezdute, baña bai
comunio espirituala, ta frutu an-
diac Jaunaren beguietan.

Irugarrenac Sacramentua gra-
cian artu, ta Comunio espirituala
eta Sacramentala eguiten dute.
Dotriña ciertoa da pecatu morta-
lean edo desgracian dagoanac Co-
munio espirituala eciñ eguingo

duala: eta pecatu mortalean ori
deseatzea, pecatu andia da, nola
ta peccatutic irteteco asmo sendo
batequin eguiten ez dan. Baña
Jaunaren gracian zaudela spiritu
ta deseo santuaquin beti comulga-
zaitezque, ala mezatan, nola bes-
te edoceiñ lecu ta demboretan.

Ori nola dan guero esango de-
gu.

Dotriña ciertoa da, ta Conci-
lioac berac dio, naico luqueala Me-
za entzuten daudenac Sacerdotea-
ren ondoren comulgatzea, sacri-
ficio divino onen frutu andiagoac
Mezatan dauden guciac artu di-
tzaten; ta Canon Sagraduac diote,
lenengo demboretan Mezatan ceu-
den Fielac comulgatzen cirala. Es-
piritu Santuac, Concilioac dionez,
zu Mezatan Comulgatzea nai du,



edolaric Comunio Espirituala edo deseozcoaz.

Emendic lecio bat icasten dezu, ta munducoen artean ondo bearra au da: Cristau onac, sarri edo ascotan confesatzen ta Comulgatzen icustean, orien contra ez gaizqui itz eguitea. Obe da ascotan Comulgatzea bacan baño. Eliza Santuac ori nai zuac, ta eguiten zuan mezatan ceudenac comulgatzea. Jesucristoc bere biotzeco amorio guciaz ori nai du, berarequin bat eguin ta izateco; ta Concilioac ugari dotriña au Jesusen itzaquin eracusten du, ta zuc icusten dezu, ascotan Comulgatzea ceñ gauza bearra dan guciontzat.

Zortzian beñ edo lenago garbitzen dan alcandora edo arropa, urtean beñ edo illean beñ garbi-

tzen dana baño errazago ta obeto zuritzen da. Aditzen ta icusten dezu: zortzian beñ confesatzen dana, errazago Comunioraco zuritzen ta prestatzen dala, illean beingoa baño. Onec gillero esamiña ona, damua ta propositua eguiteco ordu erdi bat bear badu, amabost egunecoac laurden bat asco du; ta zortzian beingoac ondo prestatzeco guchiago bear du.

Emen confesore Jaunac lagundu bear dute ondo, damua ta propositua ceñ gauza aundiac ta bearrae diran eracutsiaz, ta damu ta propositu onetan, contriciozeco aceto asco eguiñaz jardun dezatela penitenteac.

Cristau on, ascotan confesatzen cerana, ez gueyegui bildurtu, ta zure confesioetan ez atzeratu. Dea-

bru charrac esango dizu: zortzian
bein edo gueyagotan confesatzea
ondo ez dala; baña orregatic ez
utzi: guezurra da. Ez sinistu,
Confesore onaren esana eguizu.
Araco sentitzen dezunean Jauna-
ren deya esaten dizula: confesa
zaitetz bigar. Eguizu bada, aditu
dezun ori. Ta zure bildurren artean
contu cierto au eguiñ ezazu,
confesatzeco aviso, argui edo go-
goa datorquizean, siniste osoan
zaude, Ceruco inspiracio orrequiñ
Jesus maiteac escutic artzen zai-
tualala; Aita amoroso batec bere
seme edo alaba maitea artzen
duan becela. Orañ bada, ;norc
sinistuco du, onec bere hume laz-
tana galtzera ta ondatzera eraman
nai duela? inorc ere ez. Bada gui-
chiago Jesu-Cristoc galtzera ta

gaizqui confesatzera eramango zai-
tu. Ez sinistu, ezpada zure con-
fesoreari. Oni jarrai zayozu beti.



*Jaungoico Santua, portitza eta be-
tico bicitza cerana, libra gaitzatzu
gaitz gucietatic Jauna.*

GOICECO ORACIOA.

Jaungoicoaren fedear beguiratu. ciñatu ta egun onetaco obrac ofrecitu itatzu esanaz: Nere Jaungoicoa, graciac ta alabantzac ematen dizquitzut ceren egun onetara za servituzeco ecarri nazun, nie infernuan egotea mereci nuela.

Aita gurea eta Ave-Maria.

Gaurco nere pensamentu, itz eta obra guztiac aguintzen ta ofrecitzen dizquitzut, nere Jesus onaren odol preciosoz batean zure gloriariac andieneraco.

Aita gurea eta Ave Maria.

Ematen dizut itza zure gracia-requin batean zu ez gueyago ofendituzeco, batez ere onelaco peccatu gueyena arrastatzen nabenean.

Gaur diran indulgenciac nere peccatuen satisfacioan eta animen sufragioan irabazteco intencioa eguiten det.

Aita gurea eta Ave-Maria.

Indazu, Jauna, orretaraco bear dedan zure gracia. Nere bitarteco Santu, S. N. ta N. lagun zadazute, nere itz ta propositu au gaur eta beti ondo gorde dezadan.

Au berau beste modu batera.

¡ Oh nere Jaun eta Aita Ceruetan zaudena! Zugan biurtzen naiz goiz onetan; zure billa dijoa nere anima, cergatic zu ceran ontasun paregabea eta zuregandic datorren on guztia. Adoratzen zaitut gauza guztien Jaun eta Jabe cerana, humiltasun eta errespetoric aundie-

narequin. ¡Oh nere Jaun maitea! Norc eman leiquedan Ceruco aingueru eta Santuac servitzen zaituen moduan eta zuc mereci cenduquean eran zu servitzea eta amatzea. Ofrecitzen dizquitzut, Jauna, egun onelaco nere lan eta pauso guzliac ala nere pecatuen satisfaciocaco nola purgatoriocaco animen sufragioan, eta indazu arren bendicioa zure legue Santua garbi gorde dezadan. Oraindano zu ofenditu izana det damu, eta eguindaco ofensa guztien barcacioa biotz osoaz escatzen dizut. Eta nola nerez ecin nezaquedan bear becela nere pecatuen zorra pagatu, esqueintzen dizquitzut Jauna, zure seme Jesus onaren merecimentuac eta aren neque ta oñaceac, aren erregu eta eriotza gurutzecoa.

Beguirazayozu, Jauna, zure seme Cristori eta adi ezazu aren icenean eguiten dizudan escari au, *Aita gurea eta Ave-Maria.*

Ama Virginiari escaria.

Zure proteccioaren azpian jartzzen naiz egun onetan ¡oh Maria pecatarien ama gozoa! eta cergalic batere mancharic gabe sortua izan ciñan, erregutzen dizut Ama, alcantza deguidazula gracia nere gorpuz eta anima beti beti garbi gordetzeco. *Iru Ave-Maria.*

Aingueru guardacoari.

Nere Aingueru guardocoa eta Jaungoicoac emanic zauzcadan Laguntzalle leyala, lagun zadazu egun



26

Eguneroco

onetan eta defenditu, gorde eta
libra ezazu orain ta beti nere ani-
ma. *Aita gurea eta Ave-Maria.*

Aita San José gloriosoari.

San José gloriosoa, Ama Virgi-
ñaren Esposo bedecatua, nic
erregutzen dizut defenditu naza-
zula; batez ere eriotzaco orduan zu
bitarteco izanic justuen eriotza al-
cantza dezadan. *Aita gurea eta
Ave-Maria.*

ARRATSECO ORACIOA.

*Cristabac oyaren aurrean belaunica-
turic eguin bear duena.*

Nere Jaun eta Jaungoicoa, esquer
humillac biurtzen dizquitut eguin

Egercicioa.

27

dizquidatzun mesede guztiac ga-
lic, bañan batez ere ceren criatu
ninduzun mundura, ceren erosi
ninduzun zure Seme Jesu-Cristo-
ren odolaren costuz, ceren eguiñ
ninduzun Elizaren hume, eta con-
servatu nazun gaurco egunean, eta
beste nere bicitzaco egun gucie-
tan; erregutzen dizut Jauna, eman
deguidazula egun onetan eguin di-
tudan pecatu, falta, eta utseguite
guztiac ezagutzeco eta gorrotatze-
co gracia. Amen.

*Oracio onen ondoren eguin bear
da egun guztian eguin dituan peca-
tu, falta eta utseguite guztien esami-
ña laburcho bat, eta esamiñaren on-
dorean esaten da Acto Contriciozcoa
edo Nere Jesu-Cristo Jauna.*



ASTEKO ZAZPI EGUNETAN

EGUIN BEAR DITUGUN ORACIO

eta meditacio laburrac.

Guizonarentzat da ondasun aundia meditacioa. Eguzquiac munduari servitzen dion aibat servitzen dio animari meditacioac: arguitu eta berotzen du mundua, ceñarequin icusi eta bici diran gauza guciac. Gure zori gaiztoacoac baldin bici ezpaguiña, edo icusico ezpaguendu; ecustea da ya beste bicitzat bat: arguia da meditacioa; bada Cerutic dator; ceñac arguitzen digu entendimentua, dulzura aundi batequin. Instrukitzen du cer

ulzi, edo cer escogitu bear degun: eracusten digu cer igaro dan, ta cer etorrico dan. Beguien aurean ipintzen dio guizonari cer dan gauza laburra, cer dan beticoa eta cer dagoquion. Argui onec borondatea berotzen du, consentimentua erabaquitzen du, eta determinatzen du obratzera alaco moduz, nun meditacio labor batequin deseguintzen ditu araguiaren berotasunac, eta munduaren amorioa. Ceñ ichua, falsoa, galdueorra eta nai ta nayeze galduco dana dan munduaren amorioa; argui onec deseguintzen du; eta dembora berean itzaltzen ditu araguiaren berotasunac bere garraren chispaquin. Emen bada, nere cristaba, beguira eta ezarri zayozu cere buruari sellua seculaco

condenacio edo salvaciocoa. Bes-
tela esazu, izan arren ondacorra
atrebitzen cerala ichasoac igaro-
tzera izarraz baliatu gabe. ¿Izan
arren ichua, argui edo lagun ga-
be salvatuco dezula zure burua
bide, lazo, altu baju, eta peli-
gro gucietan? ¿Eternidade guztian
gozaluco dezula Cerua, eta secu-
lan Ceruco gauzaric pensatuco ez
dezula? Beste moduz pensatu izan-
du dute testamentu zarreco ta
berrico Santuac: ez bada dembo-
rari culparic eman. Ez da beñe-
re religiosoen constitucio edo er-
regularic ipiñi meditacioan fun-
datzen ez danic; onec goberna-
tzen ditu araco anima ayec, ce-
ñac arquitzen diran balantzan,
batean ya ipiñiaz oiñ bat salva-
cioco portuan, ya atzera erretira-

tuaz, aseguraturoc Ceruco bidean.
¡O lecio gaiztoetaco gaztetasuna!
¡Cemba bider cere bacarrean
sospecha gaiztoac eguin dituzu!
Guciontzat degu Ceru bat, ta bide
bat. Etzaigu besteric falta begui-
ratzea baicic, bañan contuz, nola
gure etsayac inguratzen gaituz-
ten: baita gure biotzera cem-
bat sarbide edo ate dituzten. La-
pur bildurra duanac ez du bidean
cantatzen; bide sospechacoac ar-
maquin ta armatuaquin posatzen
ditu; ichasoan dabilitzanac indar-
rez arrauntzen dute demborale
gaiztoa sentitzean. Beraz dago-
quizu, cristaba, ipintea zure cui-
dado guztia meditacio labur one-
tan. Ara bada, bacarric egunaren
parte chiqui bat escatzen dizut,
baña lembici deseatzen dedana

da, egun ori zuc bear becela ar-reglatzea: bada da gauza precio-soa, chit guchi escatzen dizut, baña da guztiz eficaza, eraguillea eta poderosoa meditacioa, dan la-burrena ere.

Bost parte ditu zure gazte dem-boraco señalaten dizudan medita-cioae. Lembicicoa da oracioa, ce-ñarequin preparatu bear dezun, itz labur batzuen bitartez (zure biotzeco afecto ta deseo eguiaz-coac laguntzen dizularic) escatze-co Jaungoico onari gracia medita-tzeco ondo esquiñitaco puntuac. Bigarrena da, biltzea sentiduac eta imaginacioa, escogituaz lecu aín egoquia nun ecerc ere ez dizun eragotzico zure meditacioa: cerga-tic jaquizu, barrungo sentiduac, campoco sentiduen ateetatic alle-

gatzen diran gauza, edo gauza oen antz edo iruipenaren mendean daudela: beragatic ascó balioco di-zu ez distraitzeco ta espiritua oroi-tzeco, proponitzen dezun punctua asunto importanciacoa becela me-ditatzea. Guztiz erraz movitaco di-zu biotza, belarriac eta beguiac ocupatzen dizquitzun gauzac: bai nere cristaba, laster eguingo cen-duque ayetaco aldia baldin icusico bacendu zure buruaren gañean ari batetic ezpata. Ecusten dana da, erioztaco azqueneco trancean ar-peguiric ederreña oritzen dala. Irugarrena da, meditatzea propo-nitzen dan materiaren puntuac, bi, iru edo modu gueyagolara; ba-ña modu batera ascó da, baldin meditatzailearen entendimentua arquitzen bada instruitua medita-



cioa asitzeco bear dan guztian: gauza ascoc lagutzzen dio arrazoi naturalari, puntu proponitua danean sencilloa: bañan bada importancia andicoa, edo sedeco puntu delicadua, utzi alde batera ta sinistu Eleizac eracusten dizuna, cere arrazoi naturalean fiatu gabe.

Laugarrena da vorondatearen afecto andi batequin obratzea edo meditatzea; vorondate onac erabakitzen du arrazoyac aditzera ematen duan gucia, oracioa balitz becela; icasten du aditzalle gustoco baten modura: esagutzen du garra datorrela suagandic, bere burua animatzen du afecto ascoquin ta eguiazeo suspirioaquin, sutzen du pecatuaren gorrotoan, virtutearequin amorioan, munduaren desprecioan ta eternidadearen

deseoan; alaco moduz, nun asunto onetan, ez bada ere eguingo aldithequean diligenciaric aundiena, bai beintzat onena. Billatu bear dana da gustoa edo saborea, ta ez jaquinduria San Bernardoc dinez; ¿Ta cer balio dizu asco pensatzeac, ta ecer ez eguiteac? Ez culparic eman ez jaquiñari. Irugarren partean eracuzten dan becela, eciñ zabaldu badezu meditacioa, ipiñi ezazu cuidado gucia laugarren onetan; au gabe arc ¿cer balio du? Eta onec ura gabe asco du balio. Ara emen egemplo poderoso bat San Buenaventura Eleizaco doctore aundiarena. Arquite zuan San Buenaventura Aita Egidioe arrituric bere meditacioetan; eta esan cion • ¿siquiera zue ez dezu erraz izango Cerua, ceñari



Jaincoac ematen dizun aiñ doai aundi jaquinduriazcoa nun daquizon bide clara ta segurua? Bereala erantzun cion; «aiñ urruti dago, nere anaya, Jaungoicoaren amorioa jaquinduriatic, nun dan zarrenac, pobreenac, simpleenac ta obligacioric guchiena duenac dezaque amatu Jaungoicoa, eta unitu edo batu berarequin, ascoz urrago, Teologoen artean dan doctore onenac baño.» An aditu zuanean Egidio, contentuz beteric joan zan ciudadera, eta pozaz deadar eguiten zuan: «zarrae eta gazteac, pobreac eta aberatsac, sanoac eta gaisoac, ama ezazute Jesus, eta aundiagoac izango cerate Ceruetan, Aita San Buenaventura baño.»

Bostgarren partea da, edo consistitzen da ipintzean viotzeco reso-

lucio firme bat oracioaquin batean alde eguiteco, amatzeco edo despreciatzeco, meditacioac eracusten dizquitzun gauzac. Onetaraco deituco dezu Jaungoicoa zure amparrora pechuco golpe serio eta devociozcoaquin, modu onetan mercedezazun alcantzatzea ain antsiatz deseatzun dezuna.

ASTELENA.

Jarri zaitetz Jangoicoaren presencian.

Esan ezazu aurrena Aitagurea, Nipecataria edo beste zuc nayago dezuna, eta guero onela:

¡ Nere biotzeco Aita, Jaungoico aundia! oraiñ ipintzen zaitut nere beguetan gauza guztiac icusten dituzuna becela. ¡ Ah ichumen



allerra! Lecu gucietan arquitzen
cera, inun baño gueyago nere bio-
tzean; ta nie billatzen zaitut nizaz
campora. ¡Oh nere arguitasuna!
argui eguin nazazu, zu considera-
tu eta desea zaitzadan.

Escogi ezazu lecu bat lagun ar-
tetic apartatua, nun cere bacar-
rean igaroco dezun zure bicitza,
Jaungoicoaren beguetan baceun-
de becela.

Lenengo puntua: considera eza-
zu Jaungoicoaren aunditasun neur-
ri gabea, bada Ceruen gañean ta
azpian ez da arquitzen gauzaric aiñ
aundiric, ta aiñ chiquiric, ezta
ere aiñ ezcaturic, ceñagan ez dan
arquitzen Jaungoicoa, aiñ unituric
bera icusiaz, socorrituaz, conser-
vatuaz, alaco moduz, nun momen-
tu batez desamparatuco balu, ecer

ecera biurtuco litzaquean.

Bigarren puntua: considera itza-
tzu ta ecarri itzatzu zure memoria-
ra momentu guztiac, uso arrazoiz-
cora allegatu ciñanetic, arquitzen
ceran instanteraño, esna zaite, ta
beguira ceregan; cere artean, ta
zure conciencian, ya Jaungoicoaren
legueaz gobernatu ceran; escribi
itzatzu zure pensamentuac, itzac,
obrac, animaren intencioac, gor-
putzaren necesidadeac, loa, be-
llac, guciac balantza batean ipiñi,
ta beguira ezazu ya mercei dezuna
dan premia edo pena eternoa.

Irugarren puntua: considera eza-
zu cer guertatuco zatzun Jaungoi-
coaren presencian, ecusiaz mun-
duco Erregueen palacioetan pasa
oy dana. ¡Emen ez dezu ecusten,
erreinuan diran guizonic aundienac



eta aberatsenac presentatzen dirala Erreguearen aurrean gravedade eta modestiarequin, bere mendecoric humillen ta pobreenac becela? ; Daudelaric zutic beren oñenganean gaiso edo eri egon arren? ; Ez dezu ecusten emen dan pasioric desordenatuena, ta iracequiena itzaltzen dala? ; Virtutea amparatu ta socorritzen dala? ; Maldade genero guciac guizonaren arpeguia pasatu eta lotsatzen dutela?

Laugarren puntua: beguira zayozu cere buruari, eta compara ezazu zure beguia Jaungoicoarena-requin, ceña secular engañatzen ez dan, loac artzen ez duen, secretoac icusten dituen, gauza guciac presente dauzean. Ez da ecer arquitzen, dan chiquienic ere, neuritzen ez duenic, edo penaz edo pre-

mioz, ta au eternidade bateraco. Mundua engañatzen da, ta engañatzen zaitu; lotzen da, bere gauzac bacarric icusten ditu; onen pena andiac eta premio chiquiac guztia da laburra. ; Ah! ; Eternoric edo beticoric ecer ez du!

Ea bada, mugui ezazu zure afectoa, ta prepara ezazu beste peligro edo etsayen lazoen contra, meditacioac esqueintzen dizuna dessea zazu. Nere ichua, nere galdua, nic billatzen det vanidadea, eta icusten det nigandic campora. Eta zu, ; Oh nere arguia! etzaitut ecusten, nere ona ez det billatzen neregan. Baldin mundutar guztia beren podere eta aberastasunaquin niri beguira baleude, baldin mundu guztia nere mende banu ere, ecer ez nitzaque, Jauna, zu gabe



ecustea logratu baneza: bada asco da Jauna, zuc ecusten banazu. ¡Ay! ¡cembat dembora da ecusi ez zaitudala? Beragatic izandu naiz pecatuan largoya, virtutean epe-la, cuidadu-gabea dembora aprovechatzeco, esquer gabea zure mesedeetan. Ez del peccaturic eguingo, badaquit beguira dagoana maldadeen vengatzallea, nere Jauna ta Jabea.

Ez naiz bildurtuco; ez det uacuco, badaquit beguira dagoala nere Jaun defensora.

Ez naiz izango esquer gabea aibeste mesederi, badaquit beguira dagoala nere Jaun Criadore ta Redentorea.

Aprovechatuco naiz momentu guztietan, badaquit beguira dagoala, guztia presente daucan Jaungoicoa.

Ez diet obedituco nere pasioai: ez diot seguituco nere buruari. ¿Nora guiatuco du bada ichu batec bestea, ezpada peligrora?

Buca ezazu meditacioa propositu labur, eta devociozco pechuco golpequin, ezarri ezazu zure pechuan, copetan eta arpeguian itzau; *Jaungoicoa beguira dago.*

ASTEARTEA.

Cristabaren fiña edo destinoa.

Para ezazu atencio gucia, ta jarri zaitte criatura gucien erdian, ta beguira eguiozu, cer fiñetaraco Jaincoac criatu cituan lembicico sei egunetan.

Lenengo puntua: zabilta Ceruco, aireco, lurreco, ichasoco aim-

beste ta aín genero diferentearen artean, ta icara zaite araco Jaungoicoaren mirarizeco jaquinduria ta potestade artzaz.

Bigarrena: Beguira guiezu batbanaca. Eusico dezu nola lembici Jaungoicoac criatu zuen artatic duten beren jatorria. Nola secular mudatzen ez diran, ta ala arraultz bacoitzetic dator bere generoco chita, ta ezcurretic arbola.

Irugarrena: Nola guztiac suspiratzen duten beren fiña, ta centroa: ta ala ez dira guelditzen allegatu arte arria, sua, aicea eta ura. Nola eguzquiac Ceruarequin, eta izarrac aimbeste secularen urleetan beren jornada beñere mudatzen ez duten. Nola urtearen lau demborac alcarri jarraitzen dioten. Nola beren demboran cantatzen duten

egaztiac, bear eguiten duten erleac: ¡O guizon miserablea! zure servicio ta egemploraco.

Laugarrena: Beguira zure fiña, au da destinoa; guizona criatura guztien artean principalena da, criatura zure esclavo da; ez empenatu aberastutzen, bada ori lurrari dagoquo, ez vanidade gueyegui artu zure ichura ederraz, zure sentiduaz, zure indarraz, bada onetan ventaja eguiten dizute mendico animaliac ere. Jaungoicoari bacarric a gradatzea, da zure fiña ta destinoa. Beste araco munduco gauza ayezaz servitu zaitez Jaungoicoaren servicioraco bañan ez peccaturaco. ¡Cer bada, uste dezu dala Jaungoicoaren vorondatea gauza guztiac zuri servitzea, ta zu beraren contra? ¡Ah zure miserablea



46

Astearteco

baldin oec guztiaç servitzen badi-
tuzu, ta ez Jaungoicoa! ¿Cer ordena
descalabratuagoric, izatea guizo-
nac bacarric arrazoi naturalaren
ezagüera, eta guizonac berac des-
preciatzea baño? Contu bada, a-
nima, ta zaude atalayan; aparta
zaitte munduco criaturetatic, ba-
da, acusatuco zaituzte juicioan; lo-
tsa zaitte eguzquiaren eta izarren
obedienciaren vistan: lurraren be-
tico frutu, animalien virtuteetan,
guztiac premio ta pena gabe; baño
zuc bateraco edo besteraco eter-
nidadea izango dezunac becela.

ASTEAZQUENA.*Pecatuaren dañua.*

Guizona pecatuan consideratzea
baño, posible ez da desgracia an-

Meditacioa.

47

diagoric imagiñatzea guizonaren
entendimentuac; ez destierro edo
carcelaric, ez ta ere monstru aii
icaragarriric.

Lenengoa: Guztiz onac dira gau-
za guztiaç, Jaungoicoac criatu ci-
tualaco, bacarric pecatua da guz-
tiz doaquea. Guztiaç datoz Jaun-
goicoagandic: bacarric pecatua
sortu zan Jaungoico gabe, ta Jaun-
goicoaren contra. Infernuco dolore
guztiac, demonioen crueldade guz-
tiac, bacarric, pecatutic datoz. ¿Eta
guizonac bacarric ceñac munduan
recibitzen dituen favoreric aun-
dienac, pecatu eguiten dute?

Bigarrena: ¿Pecatu bacar batec
bota zuan Cerutic Lucifer, Paradi-
sotic Adan; eta ori, izanic ura ain-
gueruen burua, ta au guizonena!
¿Cer mereci dezu zuc guizonaren



itzala aibeste bider pecatu eguin dezuna? Zure tristes; baciñequien pecatua deseguitea-gatic Jaungoicoa guizon eguin zala, padecitu ta eriotza sufritu zuala.

Irugarrena: Ya bada, oraiñ, batu itzatu dañuac, pecatari erucarria: quentzen du gracia, araco ondasun pare gabe ura, araco ondasun bacar ura, ceña gabe guizona lurreco arra baño miserableagoa dan. Galerazotzen du araco frutu eder Jesucristoren Sacramentuena, ta Cerutar guztien merceduena. Isten du Cerua; iriquitzen du infernua, cargatzen du cateaz, esartzen du uztarri berria, araguiaren su-gar berriac pistutzen ditu: ez du secular aitortzen ase danic; aztu erazotzen du izan dezun virtute eta merceduena.

itzaltzen du Jaungoicoaren antz eta semejantza, unitzen du condena-tuaquin, apartatzen du Aingueruen compañiac, iltzen du anima, soberbiaz betetzen du espiritua, ucatzen du Jaungoicoa, adoratzen du Satanas; aimbesteraño lotzen du, nun milagro aundiagoa litzaque peccataria justificatzea, munda criatzea baño. ¡Ah! ta oraindic penagarriagoa ta dolorezco malcoquin negargarriagoa da; momentu labor bategatic saltzen du Eternidadea.

Igues eguizu bada anima. ¡Ah! aparta zaitetz aldezun ezquero, monstru cruel onegandic; bada beñ itsasten bazatzu, etzera erraz apartaluco: errazago da ez erortea, erorita libratzea baño. ¡Cerlastima andiagoric, zure anima,



Jaungoicoaren imagiña ta Cerua-
ren herederoa, Aingueruen lagna,
Jesucristoren Esposa izanic,
izatea guero demonioaren esclava,
infernuaren cautiva, Jaungoicoa-
ren etsaya, Jesucristoren lotsagar-
ria? Utzi itzatzu, bada, araguia-
ren deseo desordenatu, ondasunen
lazo eta honren itzal oyec. Ez ba-
cera biguntzen orrembesteraño da-
mutzea, samintasuna gozaten da
consideratuaz momentu labur ba-
tez Eternidadea.

OSTEGUNA.*Eriotzaco ordua.*

Consideratu ezazu zure azquene-
co agoniaco lancea ta para ezazu zu-
re imaginacioan, nola arquituco ce-
ran zure azquen-eriotzaren pelean.

Lenengoa: Eriotza da ciertoa,
eta da ere bacarra; da gauza gu-
cien azquena. ¡O anima! Ciertoa
da eriotza, eta bein bacarric ill-
bearra. Eta ill bearra gorputza du-
ten gauza guztiac.

Bigarrena: Ordua ez da ciertoa;
aün sarri dator derrepente, nola
aurretic avisoaquin: Ez degu eda-
de segururic, ez egunic eta ez ins-
lanteric.

Irugarrena: ¡O cer divorcio, edo
apartmentua! Beguira nola pe-
leatzen dan miserablea eriotzaco
tormentu sentiduen eta miembroe-
nean; galtzen du colorea; icara-
tzen eta bucatzen da; salbatzen
da ta icerditzen da; atera ezazu
contua, cembat eta nolacoac izan-
go diran, gorputza agonian dagoe-
nean, animac aurretic sentitzen di-



tuan biotzeco ontasun ta izugar-
rizzo naigabeac.

Laugarrena: Alde guztietatic in-
guratzen dute anima izu-aldi ica-
ragarriac. Demonioac presentatzen
dizca beguien aurrean bere peca-
tu guciac, dembora gaizqui em-
pleatuac, merecimentu desprecia-
tuac. ¡Ay! ¿nun dira araco instan-
te ayec, ceñetan momentu batez
aprovechatu banitz, Cerua logra-
tu nezaquean? Zori gaiztocoa mun-
duco ondasunen desecoa; ¿cer gue-
ro esperatzen dezu? Bide estua ta
bacarra izango dezu, eramango zai-
tuena Jaunaren presenciarra juzga-
tua izatera; nun bacarriac acompa-
ñatuco zaituzten zure obra onac edo
gaiztoac. Alferric orduan miserable
orrec deadar eguingo dezu; bada
aimbeste castigu izango du; zure

animac, cembat gusto eta atse-
guin cumplitu diozun zure gorpu-
tzari; eta gusto guciac gueldituco
dira gorputz illarequin usteltasuna
ta arren janari eguñic; eta anima
bacarriac presentatuco da Jaungoi-
coaren juicioco balantzan.

¿Nola bada, onembeste estuta-
sun eta zure miserien artean affli-
gituric, uste dezu azqueneco lan-
ce artan eriotza ona eguitea, bal-
din alde-aurretic beguiratu eta
prestatzen ez bacera?

Ea bada, anima, porta zaitte eta
obra ezazu alaco moduan nola de-
seatzen dezun arquitea juicioco
demboran: Ondasun temporalac go-
zaitzatzu soñeco arropac becela.

¡Ay ta bein ill bearra eta guztia
ill bearra, obra onaz eta gaiztoaz
campora, eta guero Eternidadea!



¿Beraz certan zaude lo, eta cergatic orren esclavo? Jaquizu bada Cristaba, araguia, gusto eta alseguintasunac ta desonestidadea bellan daudela eta nagusi dirala, zu ta zure animaren calteraco. Honoreac, gustoac, ondasunac ta beñ utzi bear diran gauza guztiac utzi itzatzu; bada beste gauzaric ez dizute emango pena eta dolorea baicic. Gaur-danic considera ezazu eriotzan. Gembat eta dulceagoa dan loa, ondo empleatutaco egunaren ondorengo, ambat gozoagoa izango du bere azqueneco suertea ta eriotza, ondo empleatzen dituanac bere pensamentuac, itzac, obrac, orduac, egunac, urteac, bere dembora, itz batean, bere bicitzaco momentu guztiac.

OSTIRALA.

Azquen juicioco eguna.

Para itzatzu zure beguiac, belarriac eta entendimentu guztia Josafateco celayan; nun batuco diran guiza casta guztiac trompeta icaragarriaren soñura.

Lenengoa: Aurretic datocen señalear aditzera ematen dute, cer icaragarria izango dan egun ura. Antecristoaren persecucioac, alacoric izan ez dan becelacoac, ichasoaren lurrera irteerac ta animalien alborotoac; ibayen acierac, lurraren dardarrac, ceñetan munduco gaztelu, ciudade ta palacioric gogorrenac auts viurtuco diran: Ceruco izarren erortleac, mendien



56

Ostiraleco

eta aitzen labañerac, landare eta arbola guztien galerac, guizonen icarac, oen alferricaco igueserac ta deadarrac.

Bigarrena: Adan-egandic asiric izandu diran guizon guztiac presentatuco dira Josafateco celayan icaragarrizco trompeten soñuan; criatura guztiac bata besteen contra armatzeco bullan, ceñarequin pecatariac nai izandu ez duen seruitu salvatzeco.

Irugarrena: Emen aguertuco dira itzac, obrac eta pensamentu guztiac. ¡O cer lotsa! An bay agradequitua izango dala virtutea ta despreciatua pecatua; aurpeguiz-aurpegui acusatuco ditu demonioac pecatu aundiac, chiquiac eta guztiac: conciencia barrutic garaituco du, gañetic Jaungoicoa dagoala-

Meditacioa.

57

ric irazaquia vengatzeco, azpitic infernuac iriquiric. ¡Ay cembat estutasunen artean ecusi bearra duan bere burua guizonac!

Laugarrena: Jesucristo lotsatuco da aimeste mesede eguin diozcalaco guizonari, eta guizonac ainguchi estimatu diolaco bere Jaungoicoari: Arpeguira ematen diolaric etsayac, nola bere demboranay ta nay-ez engañatu dituen guizonac, eta bere lazoaquin munduaren parteric gueyena bereganatu duen. Beraz lotsa colera biurturic, erabaquico du icaragarrizco azque-neco, eta ¡ay apelacio bagueco sententia! Biralduco ditu bere ezquer aldetic tropan eternidadera-co esanaz; ¡Zoazte madaricatuac su beti beticora!

Batu zaitetz ceregana, anima,



eta biotz biotzetie damu zaitez.
¡Ay! ez cuidadorie ipiñi guizonen
sentencietan: Jaungoicoac beste
moduz juzgatzen du. Ez zaitecela
engañatu. Eguizu beti confesio o-
soa. Uste arren libratzen cerala
Tribunal onetatic, besteari contu.
Obeago dezu emen baten aurrean
lotsatu zure salvacioraco, ta ez an
guzlien aurrean condenacioraco.
Lossinchatzen zaituzte gustoac ta
atseguintasunac; atzera itzatzu,
araco Jesusen sententia icaragarri
arequin; *Zoazte madaricatuac etc.*
Misericordia izazu, Jauna, nizaz,
zure misericordi aundi artzaz. Ez
arren, Jauna, conturic escatu niri
zure siervo oni. Etzaitut Jauna,
gueyago ofendituco; ez naiz biur-
tucu gueyago loitzera, gustatzen
zat garbitasuna eta inocencia.

LARUMBATA.*Infernucio pena.*

Jechi zaitez infernura, eta cui-
dadorie andienarequin esamina
itzatzu ango tormentuac.

Lenengoa: ¡Uste dezu azquena
dala eriotza? Ez, seguitzen dio
ora indie gaiztoagoa dan bicitzac:
Bicitza condenatua edo illa, au da
eriotza bicia.

Bigarrena: Anima irteten dan be-
cela gorputzetic, condenatua Jau-
naren Juicioan, entregatua izaten
da bertatic demonioaren mendera.
Ta ¡ay arren errucarria! ¡Ger tor-
mentuac sufritu bearra dan envi-
dia eta soberbiazco lecu artan!

Irugarrena: An gorputzeco sen-



60

Larumbateco

tidu gucien pena. Ecusico ditu monstru icaragariac, tormentu ecñ sinistu ditezqueanac. Adituco ditu ortzen carrascadae, blasfemiac, negarrac eta guztiac confundituac ta desesperatuac. Gustatuco du asufrea, quiratsa, gose eta egarri amorratua. Usai eguingo die atsen samintasun guzlien samiñenai: besarcatuco ditu monstroo icaragarienac. Pecatu genero guztiac su eguingo dute, itzalico ez diran garetan. Miembro guztiac sentituco dute beren tormentu contracoa, eta gueyena sentituco duana da eternidadean irautea eriotza bici onec.

Laugarrena: Andiagoac izango dira animaren tormentuac: araco concienciaco ar ura, ceñac erretzen, orchicatzen eta puscatzen

Meditacioa.

61

duen infernuco illumpe triste artan icusten dituen bitartean arguitasun eta seguridade guztiacquin alde batetic ichiac infernuaren auba, Ceruco atea, penitencia eguiteco dembora, guztiac eternidaderaco; bestetic beti egon bearra Jaungoicoaren eta Cerutarren gorrotoan, graciariac eta gloriariac gabe. ¡Ay, eta nere zori gaiztoea! deadar eguingo du, nic galdu nituan momentu labur bategatic, araco dicha ta zorion eterno ayec. ¡Ay ta nic instante labur bategatic, artu nituan orain sufrizen ditudan tormentuac, eta tormentu infernucoac ta beticoac! Emendic datoz desesperacioa, blasfemia, negarra ta guztiac eternidade bateraco.

¡O anima! ¡O anima nerea! baldin secular nere entendimentura

allegatu ez bazat, cer dan eternidadea, emendie aurrera bai mediatuco dedala oraindaño baño obeto. ¡Ay ta cembat bider pecatu eguin dedan, beste aibeste aldiz mereci nuan eternidade ura, bai ta ondo irabacia! ¡Ay ta cer lotsa artu bearra naicen, zori gaiztoco gusto ta atseguintasun, labur eta ecerez ayec gatic! Alde eguizute nigandic desonestidadeac, jolasac, gusto eta atseguintasunac. Badaquit allegatzean eternidadea nere entendimentura, izotz ta arri biurzen zadala biotza. ¡O nere Jaungoicoa! Emen sutu ta quiscal nazazu. Eguizu, arren, nic cumplitzea aguintzen didazuna eta aguindu zadazu nai dezuna emen, guero barca guidazun eternidadean. Amen.

IGANDEA.

Ceruco gloria.

Igo zaitex cere biotz eta sentidu guztiaquin ta jarririe Cerutarren compañian, medita ezazu ayen zori-ona, ceregan sentitzen dezun gozoric dulceenarequin.

Lenengoa: Guztia ecusten da infernuco contrara; an guztia da gaiztoa; emen contrara, guztia da pensatu alditequean onena.

Bigarrena: Sentidu guztiaac, icusmenac, entzuerac, gustaerac gozatuco dute atseguintasun cabu gabecoa; bacoitzac amatuco duana osoro mepetuco du. Ez dute bada secular beguiac ecusi, ez be-larriac aditu, cer prestatu duan



Jaungoicoac bere escogituentzat. Irugarrena: Beragatic, guizonac aditu dezaquean modura, comparatzen da Ceruco Gloria, Erreinuarequin, Ciudadeaquin, eztayaquin, ortubarequin, perla fiñaquin, jabe bagueco ondasunaquin, oetaco bacoitzera oidan deseogatic.

¿Baña combat dira gañeraco Cerutarren compañian arquitzen diran doteac? Araco coro ayec, araco Bienaventuradu ayen arteco compañia, nun arquitzen diran aín gozoz heteric, nola batec izan aldezaquean gloriaric andiena izango dute guztia.

Laugarrena: ¿Ceñec comprenditzendu animaren bienaventurantzaz? Ecustea batetic eta osoro Jaungoicoa bera dan guztia, ta Jaungoicoagan gauza guztia. Gozatzea

Jaungoicoa, eta Jaungoicoarequin gauza guztia seguridade osoarequin. Ecustea bere beguiaquin alde eguinie libratu dan castigua, ta alcantatu duan coroa, eta coroa onetan ¡ nolaco premioac obra on bacoitzarenac! An deseo codicia baguea, satisfacio iguibaguea, abundancia saltaric baguea, gozo ta alegria dolore baguea, posesio segurua bildur baguea.

¿Nai dezu gueyago? An ondasun deseatu, pensatu, ta ponderatu ecin alditezquean guciac, batere gaitzie bague, araco eternidade seguru eta zori oneco artan.

¡ Oh nere Jaungoicoa! ¡ O gauza gucién Jabea! ¡ Nere tristea, combat ta luceago dedan mundu onetan bicitza! ¿ Ceñec eman alditzquet us baten egoac, leen-bait leen



egal ta descansa nadin? ¡O anima desdichatua! ¡atrevitzen cera oraindic seguitzera gusto loy ta labur oyeec, engañaturic oyen errañuan michirrica arguitan becela? ¡Ah eta cer segurua dan itzac, obrac eta pautoac eternidade batean izango duten pagua! Ambat estimacio gueyago an izango du, cembat eta despreciatuagoa dan emen. Ta ala ere jez dezu sufritucogaitzie batere, eta despreciatucodemengo ondasun falso labur galducorra? Bai nere Jaungoicoa, erabaqui det bertatic, ta itz ematen diot, berorren servitzetie ez alde eguiteco beretzitzera noa dembora, alaco moduz nun momenturic laburrena ez det galduco; ascotan nere beguiac alchatuco ditut beroren palaciora, beguiratuaz eguna-

ren, ta gabaren begui eder oyei; au da eguzquiari ta izarra, oelaco bacoitzac ematen didan consuelo, eta pozarequin desea dezan vicitza araco Ceru artan, nun arquitzen ceran, ¡O nere Jesus ona!

IRU AVE MARIAC.

Goicean, egüerdian, eta arratsean iru Ave-Maria errezatu ta indulgenciac irabazteco, esazu modu onetan:

Angelus Domini, etc. Aingueruac Maria Virginiari berri onac eman, eta Espiritu Santuaren graciaz, Semea artu zuan. *Ave-Maria.*

Ecce ancilla etc. Ona Jaunaren esclava; zure itzaz batean, eguin bedi nigan. *Ave Maria.*

Et Verbum caro etc. Jaungoicoaren Semea guizon eguin zan, eta



68

Eguneroco

gure artean vicitu zan. *Ave Maria.*
Jaungoicoaren Ama Santa, erre-
gu ezazu gugatic; Cristoren prome-
sen diñaeguín gaitéan. Amen Jesus.

ORACIOA.

Iguzu arren, Jauna, gure anime-
tan, zure gracia, Aingueruac ber-
ri onac ecarri, eta Cristo zure Se-
mearen encarnacioa ezagutu de-
gunoc, aren pasio ta gurutzega-
tic, Resurrecioco gloriara erama-
nac izan gaitéan. Amen.

MAYA BEDEINCATZECO**ORACIOAC.**

Aitaren, eta Semearen, eta Es-
piritu Santuaren icenean. Amen.
Jauna, gure esperanza zugañ da-

Oracioa.

69

go, ta jateco bear dana zuc ema-
len dezu. Zure escua zabaldu eta
gucioe bendicioz betetzen gaituzu.
Pater nosterra.

*Aitagurea errezatu eta guero de-
vocio andiaz esazu.*

Doai gucien emalle gure Jauna,
zure escutic guc artu ta jan bear de-
gun gucia bedeınca ezazu Jesucristo
zure Semea-gatic eta beraren ice-
nean. Aitac eta Semeac, ta Espiri-
tu Santuac gucioe bedeınca gaitza-
tela, eta bere gloriaco Mayera beti-
co eramangaitzatela. Amen Jesus.

*Janaren ondoren graciae emateco
esazu.*

ORACIOA.

Aitaren eta Semearen, † eta Espiri-
tu Santuaren icenean. Amen Jesus.
Graciae eta alabantzac ematen

dizquitzugu gure Jauna, orañ eta beti eguin dignuzun on gucia gatic. Zugandic gure gañera etorri dan bendicio ta mesede onegatic, munda guztiac beti alaba zaitzala. Amen Jesus. *Pater noster*: eta guero esazu.

ORACIOA.

Gure onguille guciai, Jauna, zure bendicio ugariac paga zayezu, zure icen santuagatic: eta anima fiel guciac cerura Zu alabatzeru eramaitzatu. *Pater noster*, *Ave Maria ta Gloria*.

Ta guero anima fiel guciai Jaungoicoac betico descansua diela, R. Amen.

Emen batu gucranac Jaunac berac Ceruco glorian gucioc batu gaitzala. Amen.



ONDO CONFESATZECO EJERCICIOA.

Confesatzeco gogoa Jaungoicoac



72

Esamiña

emálean, favore andi bat eguiten dizu. Intencio ori zue artzean cere-gana bereala ta zure biotzean sartu bear dezu, ta bacartasun orretan pensatu Sacramentu onetan peca-tuetatic Jaungoicoa-gana biurtze-co, bear dezula: Lenengoa: bera-ren gracia beti prest dagoana, Bi-garrena: prestatzeco dembora. Iru-garrena: diligencia, edo zure eguin-naya. Jaunari bere ofensa gucien damu andi bat escatu bear diozu, eta conciencia ondo esamiñatzeco gracia esanaz:

ORACIOA.

Nere Jaungoico guciz ona! Nere gaitz gucietatic zugana viurtu nai det, baña orretaraco nere pecatuen ijuntasun onetan zure argui bear

Aurrean.

73

naiz. Mundu galduaren argui, ta erremedio bacarra zu cera. Zure misericordia aundia-gatic, arren, Jauna, nie bear dedan arguia inda-zu: nere conciencia illuneco baz-terrac ondo icusteco, ta nere cul-pac, nere animan diran becela, ezagutzeco. Betor zure gracia, orieco ondo pisatu, eta escatzen du-ten damu ta proposituaz bear be-cela confesatzeco. Ori, Jauna, de-seatzen det; ori erregutzen dizut, eta ala uste det alcantzatzea Jesu-Cristo zure Seme Jauna-gandic. Amen Jesus.

AMA VIRGIÑARI TA SANTUAI**ORACIOA.**

Geruetaco Erreguina, Jaincoaren Ama chit santa, eta peatari zu-

gana negarrez datocen gucien misericordiazco Ama; gurutzearen oñean zure Semearequin nigatic igaró cinduen penac-gatic, escatzen dizut artu nazazula zure amparoaren azpian, beraren Pasio eta merecimentu santuaz confesio onetan ni aprobechatzeco. San José guciz doatsua, Jesus ta Mariarentzat bitartecoric maiteena, biaquin eguizu nere pecatuen damu eguiazco bat nic alcantzatzea. Ceruco Santu eta Aingueru guciac, eta zue nere Aingueru guardacoa, erregutu ezazu penitenciaco Sacramentu santu au ondo artzeco presta nadin. Amen.

ESAMIÑA CONCIENCIACOA.

Escola duenac, liburu ascotan daucate esamiña au eguiteco modua: ira-

curten ezdaquiten euscaldunari, daquiten batec iracurri, ta ori errazago eguiteco bidea nic eman nai diet.

Mandamentuetan, cierto ez daquitenac cembat bider pecatu eguin duten beren modura esan bear dute onembeste bider guchi gora bera. Eta b. g. g. b. letra oec ori esan nai dute.

Lenengo Mandamentuan.

Bici guztico pecatuac billatu nai dituanac, uso arrazoizcotie asi bear du pregunta bacoitzean.

Esamiña onetan galde cere buaruari: Jaincoaren legue eta dotriña edo jaquin bear ciran gauzac beren demboran icasi cinduan edo ez: ta zure hume edo contucoai eracutsi ciniozcan edo ez.

Fede, Esperanza ta Carida-



76

Esamiña

dearen actoac eguin dituzun.

Fedeco gaucen contra ecer sinistu dezun, ezaguturic fedearen contra zala; oartu ezquero orrelaco pensamentu edo dudari lecuric eman diozun. Baña tentacioac nai eztezula burura elortzea, ezta dudarie, ez dala peccatu, quentzeco aleguñac zue eguiten badituzu.

Amesetaco gaucetan, sorguinqueria edo orrelacoetan sinistu dezun, edo orrelacoric eguin edo eraguin dezun.

Jaunaren misericordiaz desesperatu dezun.

Jaungoicoaren, Ama Virgiñaren edo Santuen contra aserratu edo blasfemiari esan dezun.

Madaricaturic edo escomicatoric egon ceran.

Confesio edo Comunio gaiztoric

Concienciacoa.

77

eguin dezun; pecatuac berariz edo lotsaz edo bestela utziaz, dolore edo proposituaren saltaz, cembat confesio gaizto urtean izan diran.

Penitencia cumplitu gabe utzi dezun eta cembat b. g. g. b.

Urteroco confesio edo pazcoeta-co Comunioa utzi dezun. Baña jaquizu ce confesio gaizto ta Comunio sacrilegoaz edo gaizqui eguñaz Elizarequin cumplitzen ez tala.

Sacramenturic, nola dan ezcon-tza edo besteric, peccatu mortalean zaudela artu dezun.

Voto edo promesa Jaincoari edo santuai eguñic cumplitu gabe zure culpaz utzi dezun.

Besteen devocioaz, virtutezco obra, egercicio edo obra onaz, edo orietan dabilzanaz burlaric eguin dezun.

**Bigarren Mandamentuan.**

Juramentu falsoric edo guezurra-
ren gañean eguin dezun; cembat
b. g. g. b. Ecer ecen gañean, edo
ecer importa ezagatic, juramentua
guezurrarequin dan gucian, beti da
pecatu mortala.

Dudan, edo ala zan edo ez gauza
jaquin gabe, dudaren gañean cier-
totzat juramenturic eguin dezun.

Erreparo gabe, naiz guezurra,
naiz eguia dala, juramentuac egui-
teco oitura edo costumbreric izan
dezun.

Gaitz andiren bat iñori eguiteco
ta cumplitzeco intencioaz juramen-
tu eguin dezun. Gaitz eguiteco in-
tencioric ezbazan ere, beti da pe-
catu mortala; ceren guezurrare-

quin dan. Gaitz andi, edo pisua da
bofetada bat ematea, ta beste
gaitz andiagoac.

Pecaturen bat ez eguiteco, edo
obra onen bat eguiteco, juramentu
eguin eta ausi dezun, cembat b. g.
g. b. Gauza chiquien gañean jura-
mentu ausitzea pecatu veniala da.

Pecatu mortalen bat eguin due-
la, bere burua alabatzea edo eguin-
go duela esatea, naiz eguia naiz
guezurra dala beti da pecatu mor-
tala, orren gañean juramentu egui-
tea ta cumplitzea guero da beste
pecatu mortala.

Justiciaren aurrean juramentu fal-
soric eguin dezun; edo besteri era-
guin diozun; ta iñoren caltean zan.

Juramentuac berez nola diran,
ta cer itz modu juramentu diran
edo ez diran, confesore jaquin-



suac bacoitzari ondoena esango dio.

Jarmentulzat itzen batzuec artu edo iduqui badituzu, ta guezurraz esan edo dudan, orrela confesatu bear dituzu, ta gueroico jaquin ondo juramentu noiz diran.

Irugarren Mandamentuan.

Bearric, premia gabe, igande edo jayetan eguiñ edo eraguiñ dezun: jayetan necesidade gabe bear eguita beti da peccato. Noiz dan veniala edo mortala Confesoreac esango dizu.

Jai egunetan zure culpaz meza ulzi dezun, edo besteri entzutea eragotzi diozun.

Batec uste bazuen meza izango zala ta aleguiña eguin, ezta culpa ezarquitzea.

Meza galtzeco peligroan zure culpaz egon ceran.

Bidezcoai, aur chiqui dunai ta eriaquin daudenai cer eguin bear duten confesoreac esango die.

Mezaren parte andia izquetan, batera besteri beguira egon ceran, edo orrela bestera eraguin diozun.

Garizuman arraultza edo esne gauzaric, bulda artu gabe, jan dezun; ta artzeco intencioa ezta asco.

Oguei ta bat urte cumplitu ezquero Elizaco barau egunac gorde dituzun.

Premicia ta amarrenac bear becela pagatu dituzun.

Laugarren Mandamentuan.

Onetan humeac gurasoai zor diozcale Amorioa, Errespetao eta Obe-



82

Esamiña

diencia. Beguira ezazu bada ondo oyen contra gauza pisu edo anditan fallatu dezun: beguira ondo zure demboraco obretan, itzetan ta beste moduetan nola, certan eta cembat b. g. g. b. uts eguin dezun Jaincoaren legue onen contra.

Gurasoen icenean emen aditzen dira gurasoen ordeco guciac, eta nagusi echecoandrac.

Orrelacoen testamentu eta mandac, zure contura daudela, cumplitu gabe utzi dituzun.

Emen gurasoac, orien ordeco eta nagusi-echecoandrac beguira-tu bear dute beren obligacio andiai nola erantzun dien; humeac edo beren contucoac nola aci dituzten, ala dotriñan nola oitura edo costumbre onetan, ta Jaunaren bildurrean. Edo gaitzeraco bideric, exemplo

Concienciacoa.

83

gaizto edo escandaloric eman dien. Edo beren demboran estadua ematen dien; edo ori ondo ta pecatu gabe artzeco bidean lagundu dien.

Jocoan, tabernan edo vicioetan echeraco bear zana galdu duten; edo echean bici gaiztoa ematen duten.

Bostgarren Mandamentuan.

Cere buruari edo besteri eriotza edo gaitz andiric deseatu diozun; edo inor ill dezun, eritu, maquildaric eman, edo beste gaitzic eguin edo deseatu diozun, cembat b. g. g. b.

Inor itzez bere arpeguian gaizqui tratatu dezun.

Aserre-aldi edo ocasioric billatu dezun, edo orrelacoetan arquitu



ceran; edo pecatu mortalean zaudela eriotzaren peligröetan edo ocasiöetan sartu ceran.

Iñoren gaitz andiaz cere biotzean atseguñ artu dezun, edo iñoren onaz damuric izan dezun.

Diosala, salva edo itza aserrez iñori ucatu diozun. Gorrotoric viotzean iñoren contra idnqui dezun.

Madaricacio edo maldicioric iñori bota diozun. Jan-edanean gueyegui, zure osasuna edo buruaren caltean ezagaturic, sartu ceran; ta gucian cembat b. g. g. b.

Aurric galtzeco edo abortoren batean culparic izan dezun.

**Seigarren ta bederatzigarren
Mandamentuetan.**

Emen beguiratu bear dezu, cer

pecatu eguin ditozun pensamentuz, itzez, escuca, ibilleraz ta obraz, ta cer personaquin edo ta cer estadutacoaquin, ta cembat b. g. g. b. Esan bear diran estaduac dira, 1. libreac ciran. 2. Ezconduac edo catigu ceudenac. 3. Jaincoari consagratuac. 4. Zure aideac laugarren graduraño; edo bestearen, ceñarequin pecatu eguin dezun, bigarren graduraño. Ta ezcondua bacer a zure guizon edo andrearen aide zan, ta au laugarren graduraño. Besterequin pecatu eguin ezquero, oyec dira esan bear diran estaduac.

Pecatu gucietan zure estadua esan bear dezu; libre ciñala cembat, ezcondu ezquero cembat: voto edo juramentu onetan pecatu ez eguiteco ezquero cembat.



86

Esamiña

Lecu sagraduan onelaco pecaturic eguin dezun.

Pensamentu loyetan atseguin artu dezun edo ezagutu ezquero zure artean atseguin artzen egon ceran.

Gogoz edo deseoz orretan consentitu dezun: « Nic onelaco gauza edo gusto eguingo nuque urliarequin.» Ta esan bear da estadua, ta cembat b. g. g. b.

Pecaturaco iñor billatu edo tentatu dezun: issill-mandatu, erre-galo, billete edo bestez baliatu ceran.

Orrelaco bide edo pausoetan iñori lagundu diozun; edo pecatuen estalqui edo infernuco mandatari izan ceran.

Itz desonestoric esan dezun atseguin artzen, edo besteri arre-

Concienciacoa.

87

razotzen diozula: ta ambat da conturic contatu, canta, edo danza, edo carta torperic eguitea: coplaric escribitu, biraldu, artu edo iracurri dezun.

Pecatu eguiñaz iñoren aurrean cere burua alabatu dezun, edo orrela bere pecatuaz alabatzeco iñori bideric eman diozun.

Pecaturic asmatu, edo eguin bacedu becela contatu diozun.

Pecatu ez eguiñaz damutu zatzun: gucian cembat b. g. g. b.

Obrazco pecatu edo orien oca-sioaz campora, beguirada torpe, escuca, musuca edo ibillera orrelaoric izan dezun: personen estadua ta cembat b. g. g. b.

Cere burnarequin pecatu ichusiric, anima ta gorputza loituaz, eguin dezun; (bear duenac aditzen



du, ta gueyago ezta esan bear.)
ta onelaco torpecetan ere gogoan
iñor cenducan, eta cer estadutacoac;
cembat bider edo cembat dembo-
ran oitura ori edo costumbrea idu-
qui dezun.

Amesetan orrelacoric iduquitzea
deseatu dezun; edo amesetan or-
rela iduquitzeaz guero atseguin ar-
tu dezun. Baña bestela ames gaiz-
toetan berez pecaturic ezta.

Besteren bitartecoz iñor pecatu-
ra eracartzeco baliatu ceran; edo
iñoren adisquidetasuna aurrera era-
mateco.

Pecatuetan aurric ez izateco
ecer eguin dezun; edo aurren bat,
bera duela jaquin, eta ucatu ta
galtzen utzi dezun.

Ezcontzeco itz guezurrezcoaz edo
bestela pecaturaco iñor engañatu

dezun; edo naita ta ez pecaturic
eraguin, edo doncellaric orrela
galdu dezun.

Ezconduac ezcontzaren zor san-
tua causa gabe edo gaitzez alcar-
ri ucatu dioten; edo bestela Ma-
trimonioco Sacramentuaren contra
pecatu eguin duten.

Bestela mutillac mutillaquin,
edo icusi edo eraguinaz, edo gui-
zonac alcarrequin, nescach, edo an-
dreac alcarrequin Sodomaco peca-
tari galduen guisa eguiten dituz-
ten nazcagarrizco gauzac; ta are
gueyago abereaquin; orrela egui-
ñac ez dira aztuco: onelaco peca-
tuac quezea eta arrantzaric asco
emango diote bacoitzari bere bio-
tzean ondo confesatu artean.

Onelaco pecatari gaisoac. Ceru-
co Aitac becela, confesoreac las-



timaz ta amoriez beteric artu bear ditu; ta soseguz ta pacienciaz aditu. Ta guero esan ta adierazo bear die aleguñaz, gaitz ta desdicha oriec Jesucristoren oñetan bein ondo esan ezquero, betico libre dau dela.

Emen aviso ta erregla consuelo aundico bat eman bear det; Cristau bildurti ta lotsatia, jaquizu ceruco dotriña au. Seigarrenaren contraco pecaturic, diranac dirala, diran itsusien ta icaragarrienac badira ere, naiz zure aideric urcoenaquin, nola diran Aita edo alaba, naiz abere edo animali ascorequin eguin badituzu ere, zure pecatu oriec berez eztirala beregiaco pecatuac. Jaquizu, oriec guciaczuri barcatzeco Erromara joanquizunic ez dala. Consola zaite tristeia; orche

zure errian Bulda dezula, edoecin confesore aprobatuac pocie eta erraz ondo confesatu ta absolutuco zaitu.

Jaquizu azquenic, confesorea ez tala arrituco orrelaco zure pecatuquin: badira oriec baño quezca gueyago ematen duten pecatuac: zure oriec erraz quentzen dira ta seculaco aztutzen dira. Ta ala confesoreac, erreco balute ere, edo chiquitu, ta ilco balute ere, zue ari confesioan esanicaco pecaturic ez Juezai, ez beste munduan daniari seculan eciñ esango dio. ¡Ay confesore Jaunac! ¡ojala eguia oyec gucien biotzelan ondo josiric betico baleude! Deabruaren guezurrac sinistu ta aibeste anima galduco ez liraque.

Baldin pecatuen locatzetan sar-



tu: ta luzaro edo urte ascoan amancebatu ta jarririe becela, cere buruarequin edo beste ascorequin egon bacera nastu ta oitura gaiztoenaz loturic, orduan ere zure esamiña ta contuac eguiten chit erraz da: beguira ezazu cembat dembora iraun zuan pecatuco bide edo ocasioac, ta illean edo astein cembat ciran bataz beste; egunero edo beti, ciran edo nola.

Zuc zure animaren calteac bici-modu charrac ta pecatuen peligrac ondo ezagutu, ta vorondate osoaz ta eguiazo gorroloaz bide orietatic igues eguiteco propositu eraguillea badacartzu, pecatu guciac ta orien arantzac ondo ta sustrietatic ateraco dira, zuc confesoreari esan edo onec zuri galdetu ta lagunduaz, ta onela zure anima

confesio oso batequin bein betico Jaunaren paque gozo eta amorio santuan gueldituco da; ta aurrera lengo pecatu edo gauzaric ez gueyago nastu ta erabilli.

**Zazpigarren ta amargarren
Mandamentuetan.**

Iñori ecer ostu, edo quendu diozun: cembat edo cer, ta cembat aldiz, gauza sagraduric edo lecu sagraduan.

Iñori bere aciendan calte andiric eguin diozun.

Ecer ostutzen, edo calte eguiten iñori lagundu diozun: ecer estali, edo orrelacoric agundu dezun; nola, ta cembat b. g. g. b.

Bide gaiztoetic, edo fiñ gaiztoraco iñoren ondasunic deseatu



dezun: siñ on-etaraco ta modu onean ondasunac deseatzea ez da pecatu mortala.

Tramparie jocuetan, tratu, artu-emanetan, neurri edo pisuetan eguin dezun: cer calte eta nola eguin dezun, edo gaizqui eraman da; eta cembat b. g. g. b.

Daquizula iñori berea quendu, edo zor diozula biurtu edo erres-titucioric eguiñ gabe egon ceran; edo confesoreac agiundu ta esan, nola asi puscaca eta eguin bear dezun, ta naguitasunez cumplitu gabe aldezula egon ceran. Orobat beste zorrac pagatu gabe orrela utzi dituzun.

Artzeco-dun justuac, languilleac, mirabe edo servitzariac berena cobratzeco pagatu nai-ecic aldezula, gaizqui erabilli dituzun.

ta cer calte onetan eguin diezun.

Seme ta alaba edo humeac beren gurasoai, ta lagunaren hume edo criaturac beren nagusiai ecer ostu dien, ascotan puscaca edo nola, ta cembat b. g. g. b.

Religioan sartzea iñori eragotzi diozun. edo conseju gaiztoaquin atzeratu eta orrela embarazatu diozun.

Zortzigarren Mandamentuan.

Testimonio falsoric, edo guezurrez iñori alchatu diozun, edo iñoren calte andian guezurric esan dezun ta nola.

Gauza jaquin edo publicoa ez-tala, iñoren peccaturic aguertu dezun, edo gauza pisuetan murmuratu dezun.



Bacoitzari bere fama edo creditua gaizqui quendu edo galduerazo diozun, ta bear becela biurtu diozun ala ez.

Secretoco gauzaric errebelatu, edo carta bear ezdanic idiqui dezun.

Juicio gaiztoric, ecer ez dagoquiola, inorenzat eguin dezun.

Azquenic bacoitzac bere estada ta bicimoduco obligacioac jaquin ondo, ta beguiratu edo esamiñatu bear ditu certan utseguin duen jaquiteco ta obeto erremediatzeco.

Beste culpa asco, emen ezdaudenac, jaquinac dira edo guchitan oi diranac, ta berariaz utzi ditut: alde onetatic peligroric ezla; erreglaric seguruena da duda dezun gucian pecatutic libratzeco Confessore oitu jaquinsu bati beti galde-

tzea au edo ori pecatu dan ta cer eguin bear dan.

Onela esamiña zure conciencia-rena aleguinaz igaro, ta bereala Jaincoagana biurtu zaitez: eguin dizun piedadeaz esquerrac emaitzatu, ta zure pecatu ta beraren ofensa gucien barcacioa escatu, esanaz biotzelic urrengo oracioa.

ESAMIÑA ONDORENGO ORACIOA.

O nere Jaungoico argui gucien Aita, eta doay on gucien emallea! Ezagutzen det zure gracia dala, nic eguin aldezaquedan on gucia. Zuc nere anima salvatzeco deseo au eman didazu: Zuc nere pecatuac billatzeco arguia ta arquitezeco gracia. Zuri bada, Jauna,



98

Esamiña

bacarric gloria guztia; Zuri nere
biotzeco esquer fiñ ta cabu ga-
beac. Amen.

Santu ta Aingueru guciac, ta
are milla bider obeto Ama Virgi-
ñac ta Jesus, aren ta zure Semeac
alaba zaitzatela orain ta beti niri
eguin didazun misericordia andi
onegatic. Amen.

**BARCACIOA ESCATZECO
ORACIOA.**

¡Ay nere Jaungoico guciz ona ta
Justua! Nere pecatuen artean sar-
tu naiz, ta arritu ta guelditu naiz.
Ezdaquit nundic asi ta ez cer esan.
Zure Justicia aserreari beguiratzen
badiot, ta contuetan nerequin sar-
tzen bada, galdua naiz Jauna; ce-
ren nere culpa eta zure contraco

Ondorean.

99

ofensac contu eta cembateric ez
duten. Buruco illeac baño ta icha-
soco ondar aleac baño gueyago di-
ra, ta orien carga pisuac seculaco
ondatzen nau.

¿Cer eguiñ aldezaquet, bada es-
tu onetan? Lotsaren ta icararen
pasioz nere ecer-ecera ondaturic,
zure justiciatic zure misericordia-
ra viurtzen naiz, ta oni nere fa-
vore deitzen diot. Badaquit, Jau-
na, zure misericordiac caburic ez
duala, ta nere miseria guciac baño
andiagoa dala. Bearra det, Jauna,
bearra det; ta au obeto arqitzeco
Santu ta peccatari penitente gucien
damua ta orien eguiazco dolore ta
propositua orain iduqui nai nuque.

¡O Jaun guciz santua, pecca-
tuari gorroto gabe ecin beguiratu-
co diozuna! Nere Jesus, zure Se-



100

Esamiña

meac, pecatuen contra iduqui zuen, ta zuc ta are orien contra beti dezuten eciñ esan-alaco gor-rotoa bera, zure justiciari esqueintzen diot; ta ori da zure ondasunari dagoquion pagu osoa. Arrezazu bada, Jauna, ofrenda andi au, ta ez nigatic, ezpada zure Seme Jesucristo gure Jauna gatic ceñen icenean esqueintzen dizut.

Ez arren, Jauna, nere culpa andiai beguiratu, baicican aren meritu andiagoai, aren Gurutzeco dolore, pena ta amorio guzliari: an nigatic ta niri barcatzeco penaz ta deadarrez erregatu cizun; ta zuc bere erreverencia-gatic Jesus ona aditu cenduan. Indazu, bada, ondo confesatzeco bear dedan gracia. Amen.

Emen quezca ta bildur gucieta-

Ondorean.

101

tic libratzeco, Acto contriciozco asco, confesorearen oñetara baño len eguin bear dituzu, modu onetan edo orain icusico dezunean.

CONFESATU BAÑO LENAGO EGUITECO
ACTO CONTRICIOZCOAC.

Jauna: zu cera nere Jaungoico guciz Ona; ta orregatic damu det biotzetic zu ofendituaz, ez gueyago ofenditzeco propositu firmearequin.

Jauna: zu cera nere Aita guciz maitea; ta orregatic damu det biotzetic zu ofenditoaz, ez gueyago ofenditzeco propositu firmearequin.

Jauna: zu cera nere Jabe guciz santu ta justua; ta orregatic damu det zu ofendituaz, ez gueyago ofenditzeco propositu firmearequin.



102

Esamiña

Jauna: Zu cera nere Onguille guciz amoroso, ta doay gucien Emalle chit ugaría; ta orregatic biotz guztitic det damu nere pecatuquin zu ofenditua, ez gueyagoren gueyago zu ofenditzeco propositu firmearequin.

¡O Jauna! Zu cera nere Salvadorea, ta eman nai didazu Ceruco gloria: orregatic, bada, ta ceren guztia ona ceran damu det, Jauna, nere pecatuaz zu ofenditua, propositu firmearequin ez gueyago zu ofenditzeco.

¡Ay nere pecatu zori gaizto-coac! ¡Ay secular eguiñ ez banitu! ¡Ay cer dicha milla bider ill banintz, nere Jaungoico maitea ofenditu baño lenago!

Jauna: ez gueyago zure ofensaric: ill bedi pecatua, ta bici be-

Ondorean.

103

di nere Jaungoicoa. Jauna, nayago det ill zu ofenditu baño.

Beti ondo, damu, propositu ta fruluaz confesatzeco, iru consideracio jaquiñac dira oyec. Lenen-goa: Edocein confesore-gana joatean, contu eguizu Calvarioco mendian Gurutze-pean Jesusen onetan jartzen cerala. Ama Virginiaren ondoan an arqitu baciña, ¿cer eguiñ edo esango cenduen?

Bigarrena: Fede bici batez sinistu, eta esan ezazu ceregan; oraiñ Jesucristorequin ta ez guizonarequin confesatzen naiz. Bada Cristoc gucia daqui, bai ta ere nere pecatu guciac. Lotsaz ez dezazula utzi ecer. Irugarrena: Confesio onetan Jaungoicoac edo Aingueruac esango balizu: au zure atzeneco confesioa da: ¿Nola confe-



satuco ciñaque? Bada iltzeco be-
cela beti confesa zaite: esan zu-
re pulpac garbiro, ta ez bestere-
nac. Guero confesoreac cer esa-
ten dizun, cer consejuac eta cer
penitencia ondo aditu; damuaz
absolucioa artu ta jaiqui Jaincoari
esquerrac ematera, ta comulga-
tzeco ondo prestatzera.

Au beran beste bere lecu batean
ondo confesatzeco ta ondo comulga-
tzeco oracioaquin arquituco dezu.

CONFESIO AURRERACO

iru consideracio.

Sacramentu onetan bear dan fru-
tua ateratzeco confesio guztietan
iru gauza ondo pensatu bear dituzu.

*Lenengoa: edoceiñ confesoren oñe-
tan jartzean Calvarioco mendian Je-*

susen gurutze-pean arquitzen cerala.

ORACIOA.

Ah Ostiral-Santuz ni an arqui-
tu banintz! ¿Ger negar eta cer
deadar biotzecoac eguingo nituan?
¿Ay nere Salvadore maitea! Nere
pecatuac ipiñi zaituzte estadu tris-
te orretan. Ez Jauna gueyago pau-
so gaiztoric, baicic bicitza ber-
ria: Ala ematen dizut itza zure
graciarequin batean, ta esperanza
osoa daucat barcatuco dizquida-
tzula nere pecatuac zure mereci-
mentuac dirala mediante.

*Bigarrena: Confesatzera zoacen
gucian Federic bicienaz pensa ezazu,
ez guizon baten ezpada Jesucristoren
oñetara zoacela.*



Ay Jesus nere biotzeco! Baldin Jerusalem zure egunetan bici izan banintz, edo zu orain orduan becela, emen aguertuco baciña, zure onetan belaunico jarriric. ¡O eta nola esango nizuquean! Ona, Jauna, pecatariric galduena: pecatu mortal, ascoren enfermedade cruelen azpian ondaturic arquitzen naiz. Zu cera nere animaren medicina. Zuc daquizu nic baño obeto nere gaitz gucien berri. Arren zure misericordia-gatic senda nazazu. Banua bertatic zuri nere pecatu guciac zure ministroaren onetan aitortzera eta Confesatzera. Ta zuc nola nere berri daquizun, ez lotsa eta ez bildurric izango det nere barren gucia aguertzean.

Irugarrena: Confesatzen ceran guztian contu eguizu ori izango da la azquenecoa, eta illtzeco confesatzen cerala. Ill-bearra fedeco gauza da, eta Confesio gabe bazoaz, au edo beste bat izango da zure atzenecoa.

ORACIOA.

O nere biciaren ordu ta dembora gucien jabea! Zuc esango bacinic, au dala nere atzeneco confesioa; illtzeco zorian nagoala; bereala ill bear dedala; edo nere Aingueru Guardacoac zuregandic mandatu au eguingo balit; ea, orain confesatu eta bereala ill bear dezu; etzera gueyago confesatuco. ¡Jesus milla bider! Adio, esango nuque, adio mundua: Quen ortic nere lagun falso eta gaiztoac, cam-

póra seculaco nere biotzetic oitura gaiztoac: Zoazte emendie ondasun gaizqui eramanac: Zoazte nere ibillera gaizto ta munduco atseguin guezurtiac: Zoazte janedan gaiztoac, anima eta gorpuzta galdu dirazutenac: Zoazte gucioc oraindaño zoratu eta galduric iduqui nazutenac: Zoazte betico nigandic. Ill bear det, Jaincoac ala dio ta ala nai du, ¡Ay nere Jesus ona, nere jabe maitea! Ta ¡ceiñ damu dedan Zu nere pecaquaquin aibeste bider ofenditua! Damu det lenago bear becela ez prestatua. Zu, nere Jainco ta nere Aita ona, amatu ta serbitu bearrean aibeste bider ofenditu zaitut.

¿Nunda, Jauna, nic eman bear nizun honra ta errespetoa? ¿Nunda nic zuri bear nizun amorioa?

¿Etzan neretzat honrarie asco zure seme izatea? Bai nere Jesus ona. Damu det, Jauna, nere biotz guztitic Zu ofenditua, cergalic erran orren ona, Santua ta amablea. Zugar, Jauna, arkitzen dira Ceruco Santuac, Aingueruac eta criatura guciac, seculan eciñ esan eta comprehendituco ez ditezquean excelencia, grandeza ta perfeccio guciac. Zu orrelacoa izanic damu det zu ofenditua, Zu ceranagatic baccarric. Atzeratuco ditut nere oitura eta egitura gaizto guciac; eta eguingo det penitencia nere pecaquen vengantzan; Zu maite zaitudala adierazten dedala ondorengo bicimodu berri batequin. Amen.

Onela prestatu naico dezu illtzeco demboran. Bada contu orinain eguizu, eta nere contu ondo



110

Confesio

prestatuco cerala, eta eguingo dituzula ondo zure confesio guci guciac.

Oraindano esan danetic ezagutuco dezu, esamiña concienciacoa eguiñ eta beste bague confesaterra dijoacenac, gaizqui confesatzen dirala dolore ta proposituaren faltaz, ceñac diraden parteric principalenac; eta confesio general bat eguiteco premian arquitzen dirala. Gañera dolore eta propositu au iristeco, bear da ascotan dembora gueyago, conciencia esamiñatzen baño.

Vezperatic edo lenago lan onetan jardun gabe, goicean lasterca jantzi eta Elizaraco bidean eguiten dezun esamiña eta dolore ariñarequin beste gabe bereala confesatzea da gauza peligrosoa; ceren presaca eta espacio gabe nequezondo eguiten oi diran gauza oec.

Aurrean.

111

Beintzat naico etzenduque iltzeco orrela prestatzea.

Lenagoco pecatuac barcatuac egon arren confesio ona dala bidez, aen eta beste gucien gañean artu bear da dolorea confesatuac ez baleude becela.

Guero confesorean aurrean be-launico jarriric cñatu zaite, eta esan biotzetic: *Ni peccataria edo nere Jesucristo Jauna*, eta guero arri-matuco cera confesoreagana modu onetan, eta esango dioscatzu cere pecatuac diranac diran becela.

CONFESIOA ONDO EGUIÑ

ETA GUERO ESASU,

ORACIOA.

O nere Jaun amoroso ta miseri-



112

Confesio

cordiazco Aita! Zure odol precio-
soan nere anima bere culpen loye-
tatic garbitu nai izan dezu. Zuri
esquerrae, Jauna, ceren pecatuen
eriotzatic libratu ta ceruco bidea
eman didazun. Ez, nere Jesus,
gueyagoren gueyago pecatuari le-
cu edo ostaruric nere biotzean. Zu-
re amoriozco biciera onetan nere
anima sendoago jarri dedin, orain
zure Comunioco Sacramentu adora-
garrian Zu ondo artzeco indazu
gracia. Amen.

COMUNIO ESPIRITUALA.

CER EDO NOLA DAN.

Anima justua: Mezatan edo bes-
tela cere espirituz edo deseo bi-
ciaz comulgatzea da comunio espi-

Ondorean.

113

rituala. Eta da Jesu-Cristoren chit
atseguin andico gauza, edo ejerci-
cio divino bat chit erraza, eta
animaren irabaci andiaz nai dezun
guztian seguru egingo dezun de-
vocioa. Santuen dotriña da, inoiz
comunio espiritual batean, Sacra-
mentua artzen danean baño gue-
yago Jaincoarequico irabaci edo
mereci ditequeala; ceren comul-
gatzen danac baño beste comul-
gatzen eztanac devocio edo fervo-
re andiagoo daducan, ta espiritu
gueyagorequin prestatzen dan. Fer-
vore, devocio eta espiritu au nai
du Jesucristoc, eta arrazoi andia
da zue ari orretan gusto ematea.

Eta Aita; ¿Comunio espiritual
ori nola eguiten da? Chit erraz,
edocein lecutan ta noiz nai. Ara
nola: Zue Meza enzutean, edo Eli-



zara Santisimoa adoratzera zoace-
nean, edo echean edo bidean, edo
cein lecu ta demboretan ecarri
itzatzu gogora Jesucristoren sacrifi-
cioco misterio divinoac bere Sa-
cramentuan; eta aldezun federic
bicien ta amorioric iracequienaz
zure biotzean deseoz comulgazaita.
Au ta ez besteric da comunio es-
pirituala. Aita; ¿baña devocio ori
nola eguin dezaquet? Ara nola:
esan dan fede bicia ta amorioaz
biotzetic zure modura esayozu.

COMUNIO ESPIRITUALA,

JAINCOAC NAI DUEN BECELA, ZUC EGUI-
TECO IRU MODU ERRAZAC.

O nere Jesus, Jainco eta guizon
eguiazcoa! zure ontasunac eta ne-
re amorioac Sacramentu orretan

zaucazqui. Federic aldedan bicie-
narequin sinisten ditut misterio
onelan zue eguiten dituzun milagro
guciac. Aldedan humildade gu-
ciaz adoratzen zaitut. Zure ofensa
guciac damu ditut, ceren amaten
zaitudan gauza gucien gañean. Or-
zaude nigalic, zu nie nere bio-
tzean errecibitzeco.

¡O! ¿nundic edo nola amorio au
pagatuco dizut, ezpada nere espi-
rituan ta deseoz Zu comunioan artu
eta zure ondasun neurri bagueco
oriequin baicic? Sacramentu ope-
tan Zu ondo artu, ta betico comul-
gatu nai det. Baña ori ecin badet-
ere, comunio espiritualean artu
nai zaitut, zure graciarequin es-
quer onac zuri beti emateco. Amen.

¡O nere Jesus amoroso gau eta
egun nere beguira Sacramentu or-



retan zaudena! ;Biotz garbia ta vorondate ona duten animai zure gorputza or ematera elorri cera! ;O nere Jaungoico ezcutatua! ;O cer favore ta erregalo divinoa Zu nere biotzean artzea! ;O eta norc Santu ta Aingueru gucien virtuteac lituzquean, eta Ama Virginiaren garbitasuna eta amorioa comunio espiritual onetan Zu bear becela artzeco! Atoz, nere Jesus, atoz ordu onean; ta zure bendicio ta amorioz nere anima seculaco bete ezazu.

;O nere Jaun Soberano Sacramentalua! Betor zure fede bici ta argui bero bat ondo prestatu dedin nere anima Zu errecibitzeco. Bestelanic mereci ez del Zu nere biotzeco echean sartzea. Baña itz bat esazu, ta gucia eguiña dago eta nere anima salvatuco da. Virtute guztiaz

ondo jantzi ta apainduric comunioan beti errecibitu nai cinduzquet; eta anima guztiac zure gracian comulgatzea nai nuque. ;O cer dicha Zu, nere Jauna, nere biotzean artzean! ;O eta ceñ aberats izango nintzaquean zure Sacramentuan errecibitzen bacindut! Nere animac zure bearra eta zurequin beti egoteco gogoa dauca. ;Nere Jesus ona! Zu cera nere animaren eguiazco bicitza: Zu bague eciñ bici naiz. Beti Zurequin bat eguiñic bici ta ill nai del zure escuetan. Amen.

Fedeco eta amoriozco acto asco eguiñaz cere modura errazago ere Comunio espirituala eguin dezaquezu naidezun gucian.



**ONDO
COMULGATZECO
EJERCICIOA.**

Gauza jaquiña da confesatzen dan guztian ez dala precisoa comulgatzea, eta cristauric onenae ascotan guelditzen dirala comulgatu gabe.

Beñic beñ confesio generala eguiten danetan, bi edo iru confesa alditan ez da comulgatzen; ez ta

confesoreac penitenciaz, mortificacioz edo pruebaren batzuec eguiteco disponitzen duenetan ere. Eta dotriñaren falta ta errore gaizto bat da pensatzea pecatuac ez dirala barcatzen comulgatu arteraño.

Ala, zuc utsegin ez dezazun onetan, ez dezu beñere comulgatu bear confesoreac agundu gabe, utzitzen dezula humildade aundiarequin ez joateco esaten dizunean; ta baldin aguintzen badizu comulga zaitecela, prestatuco cera ondorengo consideracio onequin.

CONSIDERACIOA.

Pensa ezazu ondo nor datorren comunioan zugana, Jesucristo gure Jauna, Jaungoico eta guizon eguiazcoa bera dan gucia Hostia santuan



dator zuri laguntzera. Eta zu ; nor
cera ?

ORACIOA.

O ceruetaco Erregue , Jaun aundi, nere Jesus maitea ! ; Zu nigana cerutic jechi cera ? ; Au cerda ? ; Nori onelaco gauzaric zure amorioari baicic gogoratuco citzayon ? ; Izan diteque , (eta fedeco eguia da) nic Zu , nere Jaun aundia , Hostia chiqui batean nere biotzean artu bear zaitudala ? ; O misterio guciz ezcutatua , ta guciz miragarria ! ; O amoriozco Sacramentua ! ; Cer eguñ aldezaquet nic ezpada zure aurean arritu , humillatu eta nere biotzeco atea zuri poeic idiqui , nere animaco oostatu pobre onetan Zu , Erregueric andiena , artzeco ? ; O norc luquean ce-

ruaren garbitasuna ! ; O ceñec luquean Aingueru eta Santuen espiritu gucia eta zure Ama Virginiaren virtuteac , Zu orañ bear becela artzeco ! Eguia da ni peccatari galdu bat naitzala. Baña , Jauna , Zu cera nere erremedio gucia. Atoz , bada , atoz misericordia gucien jabea , ; O nere emalle guciz aberatsa ! Zure ontasun cabugabeac eta zure eman-nayac empenatu ta eracarri zaitue cerutic lurrera , zure ondasunac cerorrequin batean niri emateco. ; O favore parebaguea ! Badaquizu zure diña ez naitzala ; ta ala ere orregatic zure amorioac zacartzi nigana. Badaquizu ceren premia daucan ; chit bearra nago. Indazu fede bici , esperanza firme ta caridade iracequin bat Zuc nayen dituzun beste vir-



122

Comunio

tuleaquin, Zu nere animan ondo arlzezo, eta aurrera obeto amatu eta servitzezo. Amen Jesus.

Sacerdotea comunioa ematera datorrean, arrimatuco cera comulgatzeco lecura fede bici ta amorioz beneric. Eta bendicioa ta barcacioa ematean zuc ere Jaunari escatuco diozcatzu, Jauna artzen dezunean escatu aoz edo biotzez cedorren devocio guezuz dezun moduric onenean.

COMUNIOAN.

Jauna, ez naiz ni diña zu nere echean sarzaitecen, baña asco da zure itz bat nere anima sendatzeco ta salvatzezo. Amen Jesus.

Guero Jauna artzean egon bear dezuz gueldi, devocioz ta modestiaz: burua alchatu zucen; beguiac lurrean

Aurrean.

123

edo ichila; aboa era onean zabaldu ta mingaña pisca bat atera bear dezuz, eta orrela Comulgatu bear da.

Graciac emateco erara jarri zaite lecu on batean; ta aleguñaz ez beste gauzari beguiratu, ezpada zure Jaun aundiari bacarric: cere sentidu guciaquin cere barrenean devocioz sarzaitte etorri dan Jesus maiteari itzeguileco, eta esquerrac emateco esanaz onela.

ORACIOA.

Ongui etorria cerala nere Jaun aundia eta nere guztia. ¡O nolacoa dan zure amorioaren indar paregabea! ¡Nori secular gogoratu, Jauna, Zuc niri onelaco favorea eguingo ciñidala? ¡Ay nere Jesus guciz ona! ¡Eciñ, Jauna, eciñ bear becela ni zure diña izan! ¡Ay eta



124

Comunio

cer eche, cer ostatu pobrea nere biotzean artu dezun! Baña Zucera bacarric ceruan eta lurrean nere Jaungoicoa. Zu asco zaitut bacarric, lazurequin nago chit aberatsa.

Ea, bada, atozte barrena, atozte nere beguiac, nere escuac la beste sentiduac; atozte guciac zuen Jabe amoroso oni ongui-etorria emateco, la gucioc Jesus biotzean la beraren antzera santificatu, eta biciera berri bat eguiteco bear dezuena escatzera. Zuen gucien erremedioa da bera. Nere memoria, adimentu ta vorondatea, atozte gucioc batean, betico zuen Jabea adoratzera ta alabatzera. Amen.

ORACIOA EDO ESCARIA.

Ea ceruco nere etorcari abera-

Ondorean.

125

tsa, eta emalle ugaria! Bada etzera ostatu pobre onetara alferrie allegatu, eta ez utsie nigana etorri, ezpada ondasunez beteric, nere jaberie onena becela. Ondo zure beartua nago, badezu nigan nun zure doayac ondo empleatu. Ona, Jauna, zure onetan eta beguien aurrean nere anima triste bearra. Orra nere beguiac, mingaña, escuac eta beste sentidu galdu erabagueac; diranac zuc erremediatu, zure bendicioz bete, ta zure antzera eguiteco

Nundie escatzen asi ez daquit, Jauna. Zuc nere berri obeto daquizu, eta zuri gusto emateco cer ondoen dagoquidan. Zu servitzeo, zure vorondate gozoa nere echeco ta campoco lanetan, nere estutasun ta asnase gucietan beti egui-



126

Comunio

leco zure gracia indazu, eta orre-
quin aberats ta zori onecoa beli
izango naiz. Amen.

ORACIOA.

O ceruco ondasun gucien Jabea!
Ez dizut utzico nere animaren eche
pobre onetatic irteten: ez dizut u-
tzico nigandic joaten, ni utsa po-
brea ta beartua utziric. Ez, Jauna,
nere ostatu onetatic joango etzera,
ni zure bendicioz bete arteraño.
Gucien Jabea cera, eta esqueco gu-
cien onguillea; badezu nigan ondo
cer eguiñ. Orra, Jauna, nere anima
lur legorra becela zure euri gozoa-
ren esque. Orra ontzi utsa becela
Zuc graziaz betetzeco. Badaquizu,
zure antzeco humildade, paciencia,
caridade, modestia, animaco eta

Ondorean.

127

gorputzeco garbitasunaren cer pre-
mi andia daucadan. Orietz gañera,
indazu zure bendicioa nere biotz
au, nere beguiac, mingaña ta bes-
te sentiduac zure gustora zucendu
eta moldatzeco. Zure biotz santua-
gatic biotz berri garbi bat indazu,
zure guisa biciera berri bat egui-
leco, nere aleguiñ gucziaz zuri jar-
raitzeco, zure borondatea, ceñean
nere zori ona baitagoan, oraiñ lur-
rean eguiñ eta guero Ceruan beti
eguiteco. Amen.

ANIMA CRISTI.

**Oracio jaquiña Aita San Igna-
cioe beti esaten zuana.**

Jesusen anima, Santifica nazazu.
Jesusen biotza, irazaqui nazazu.



128

Comunio

Jesusen gorpulza, salva nazazu.
Jesusen Odol precioso, zure
onez bete nazazu.

Jesusen biotzeco ura, garbi na-
zazu.

Jesusen Pasioa, senda nazazu.

¡O Jesus ona! entzun nazazu.

Zure llaga-en artean gorde na-
zazu.

Zu-gandic irteten utzi ez nazazu.

Etsai gaiztoetatik libra nazazu.

Nere eriotzaco orduan dei na-
zazu.

Zu-gana joateco aguingu zadazu
Santu guciaquin Zu beti alabatze-
co secula gucietan. Amen.

**AMA VIRGIÑARI TA SANTUAI
ORACIOA.**

¡Cernetaco gure Erreguiña Ama

Ondorean.

129

Virgiña, Santa Maria, nere Salva-
dore ta Jaun aundi onen Ama mai-
tea! Certico Aingueru ta Santuac,
atozte nere eche pobre onetara,
zuen gloria guztia nerequiñ batean
nere biotzean adoratu eta bedein-
catzera, eta nere uts edo falta gu-
ciac betetzera.

¡O nere biotzeco Jaungoicoa!
Zure Santu gucia beti bedeinca
zaitzatela, niri eguin didazun mi-
sericordia eta favore onegatic. Ecer
ez det, Jauna: Zuc daquizu nere
pobrezaren berri. Zuri esquerrac
emateco cer esqueñi edo aguingu
ez daucat, ezpada nere biotz otz
edo ill au. Orra, Jauna, dana, nic
dedan eta naizan gucia zurea da; ta
ordu onean izan bedi betico zurea.

¡Ay, Jauna, ceñ gauza laburra,
ceñ guchi dan biotz bacar bat,



eta ori aĩn epela eta ecer-eza no-
la dan nere au! ; Ay ceruco San-
tu, Aingeru, eta Serafin irace-
qui gucien espirituac ta munduan
diran guciac nie banitu, zu beli
adoratu ta amatzeco. Guciac nai
nituzque, ta diranac, Jauna, zure-
tzat: zuri amore onez guciac es-
queintzeco eta esquer onac ema-
teco. Amen.

SANTA TERESAREN AVISOAC.

Ill zaitte, nai badezu bici. Pena-
tu, nai badezu gozatu. Gechi, nai
badezu igo. Galdu, nai badezu ira-
baci. Viva Jesus ta Maria.

MEZA SANTUA CER DAN.

Eguzquiac ceruco izar gucien e-
dertasuna estaltzen duen becela,
ala meza santuac gañez eraguiten
die lurreco devocio guciac: cerga-
tic dan xure religio santuac dau-
can gawac aundi eta errespeta-
garrien Baña ; cer da meza? Da
sacrificio edo ofrenda divino mi-
lagroz betericaco bat, ceñean Je-
sucristo gure Jaunac bere Gorputz
eta odol preciosoac ofrecitzen dioz-
can bere Aita Eternoari oguiaren
eta ardoaren antzen azpian.

Da Jesucristoc ostegun santu
gabean edo atzeneco afarian eguiñ
zuan sacrificio miragarri ura bera.
Da gurutzean illtzean AITA ETER-



NOARI ofrendatu ciozcan tormentu.
eta eriotzaren ofrecitze berri bat.
Da azquenic bere pasio santuco
bolore, pauso ta misterioen, eta
oetan eracutsi cigun amorio irace-
qui neurri baguecoaren acorda-gar-
ri edo oroipen-garri bat.

Lau gauza jaquin bear dituzu,
San Agustiñec eracusten duen be-
cela, Mezaco sacrificio ^ontu onen
gañean. Nor dan sacrificio ^ontu ofre-
citzen duan persona: nori ofrecitzen
zayon: cer ofrecitzen dan: eta no-
rentzat edo certaraco ofrecitzen dan.

Orañ bada, ¿nor da mezaco sa-
crificio santu au esaten duana, edo
sacrificio guciz benera-garri ta er-
respetat-garri au eguiten ta ofreci-
tzen duan sacerdote principala?
Da Jesu-Cristo gure Jauna, Aita
Eternoaren Semea.

¿Nori edo ceñi ofrecitzen dio?
Aita Eternoari berari.

Eta ¿cer ofrecitzen dio? *Bere*
Gorputz eta Odol preciosoa: bere
merecimentu cabu-bagueco guciaquin
batean.

¿Norentzat, edo certaraco ofre-
citzen diozca? *Jaungoicoa honratze-*
co eta gure oneraco, mesede eta fa-
vore asco iristen dizquigula ofrenda
miragarri onen bidez.

San Agustiñec berac dio, meza-
tan gauza bi guertatzen dirala:
Bata aguirian icusten dana edo
campocoac; ta dira *equiteco San-*
tuac. Bestea ecusten eztana edo
barrengoa; ta da *Jaincoaren Semeac*
bere Gorputz ta odola Aita Eter-
noari ofrecitzea. Barrengo sacrificio
onec ematen dio campocoari bere
izate, espiritu edo bicia. Baña



¿certaco? Orañ esango diran lau fiñ edo gaucetaraco.

Lenengoa: Gu nola laburrac ta escasac bait gueran, ta Jaungoicoa infinitoa eta caburic ez duana; eta Jaincoaren Semeac nola gure naturaleza daucan, eta berez nola Persona infinitoa eta cabu-baguecoa dan, au gac ofrecituaz ematen diogu Jaincoari gugandic na yen duen eta aren anditasunari ondoen dagoquion honra eta gloria.

Bigarrena: Gure Jaincoa-gandic errecibitu ditugun mesede eta favore gucien esquer onac, gracia eta alabanzac emateco.

Irugarrena: Sacrificio santu onen bidez Jaincoa-gandic guretzat eta gure adisquide-entzat nai ditugun eta conveni diran mesedeac iristeco ala espiritualac nola temporalac.

Laugarrena: Jaincoaren colera eta aserretasuna aplacatzeco, aren justiciac pecatariac bereala castigatu ez ditzan; eta bere misericordiaren bidez eman deitzen ausilioac eta laguntza estadu triste artatic irteleco.

Emen aditzera emango det Espiritu Santuac Trentoco Concilioan eracusten duan dotriña.

Lenengoa: Santuen honran Elizan mezac esaten badira ere, sacrificioric Santuari ofrecitzen etzayela; ezpada bacarric Jaungoicari ceña dan Santuac eguiñ ta gloriaz eta honraz coroatu cituana.

Bigarrena: *Santustic* aurrera Mezaco gauza guciac Jaungoicoaren santidade aundia aditzera ematen



136

Meza

dutela, edo misterio oriee ceruco usai divinoa dacartela.

Irugarrena: Espiritu Santuac concilioan aguintzen die (*Mandat S. Sinodus etc. Ses. 22 cap. 8.*) animen contua daucaten apaizai meza santuco gauzac beren ardiai ascotan eracusteco.

Sacerdoteen ornamentu edo jantziac, itzac, gurutce, señaleta ceremonia guztiac misterioz beteac daude. Euscaldunac beren devocioraco oriee aldan ondoena jaquittea arrazoi da: ta Santuen dotriña orain nic emango diet onela.

MEZATACO MISTERIOEN DOTRIÑA.

Sacerdotea prelatu, ta Ornamen-

Santua.

137

tuac jazteco Sacristian sartzeac esan nai du, nola Jesucristo Ama Virginiaren sabel garbian sartu zan, eta gure araguizco soñecoa jantzi zuan eta bere Sacrificioa Aita Eternoari ofrecitzeco prelatu zan.

Amitoa da estalqui zuri bat, burutic bera Sacerdoteac artzen duana; eta esan nai du, nola Juduac Jesucristori burla eguitemo ta mallasalecoac emateco arpeguia estali cioten.

Albac: nola Cristo zuriz jantzi ric Herodesec burlaz Pilatosi biraldu cion.

Cinguloac: nola socaquin gugaritic lotu zuten.

Manipulo esquer besocoac: nola azotatzeco escuac lotu ciozcaten. Ezquerrean ori artzen da, Jesusen biotzeco amorioa, gugaritic azoteac

artzean, ta gue zor diogun amorio
aundia eracusteco.

Estola leptic gurutzaturic ar-
tzen du eta esan nai du, nola Je-
sus irugarren aldian gurutzea ar-
tzeco soca gogor andiaquin leptic
lotu zuten.

Casulla gucien gañean artzen
duanac: nola burla eguiteco gra-
nazeo soñecoa jantzi cioten; edo
gurutzean jositzeco, nola tunica
joscura baguea quendu cioten. Jan-
tzi edo *Ornamentuac* oyec dira.

Mezac iru parte ditu: *Ofrenda-
raño* bat: *Paternoster* edo *Comunio-
ra* bestea: eta *azqueneraño* bestea.
Bata da sacrificioraco prestatzea:
bestea ofrecitu, consagratu, ta
comulgatzea.

Irugarrena da Jaunari graciae
ematea.

Ondo pensaturic cer aditzera
ematen duen Misterio oyec, esan-
go dezu:

Aitaren eta Semearen † eta Es-
piritu Santuaren icenean. Amen
Jesus.





Meza aurrean.

ORACIOA.

Trinidad e guiez Santa; Aita, ta Se-
mea, ta Espiritu Santua; Jaungoico
bat bacarra, eta iru Persona cerana.
Adoratzen zaitut humiltasun eta er-
respeto guciarequin. Esqueintzen
dizut entzutera noan meza au, lenen-
go lecuari: zuri gauza gucien asiera
eta itur-buruari becela honraric an-
diena emateco. Bigarren: egin
dizquidatzun ontarte ta mesede gu-
cien esker zure diñacoac emateco.
Irugarren: nere eta lagun urco
bicien pecatuen barçacioa iristeco.
Lauarren: Purgatorioco ani-
men alde. Azken: esqueintzen
dizut Jesus maitearen ofrenda au,
eman deguidazun ceruco bidean
bear eta on izango dedan gucia, ba-
tez ere pecatutic alde eguiteco eta
bicitza onean irautecodoaya. Amen.



Mezaren asiera ta pecatuac aitorcea

*Consideratu nola Jesu-Cristoc gure
pecatuac bere gain artu, ta orien
zorra pagatu zuan.*

ORACIOA.

Jauna: entzutera noan meza
au esqueintzen dizut eguin diz-
quidatzun mesede gucien es-
querrac emateco; nere ta bes-
te gucien pecatuen barcacioa
iristeco; eta indazu ceruco bi-
dean bear eta on izango de-
dan gracia; batez ere pecatu-
tic alde eguiteco eta bicitza
onean irauteco doaya. Ala izan
dedilla.



Introitoan.

*Consideratu nola legue zarreco
Santuac Jesu-Cristo guizon egui-
tea descatzen zuen.*

ORACIOA.

Nere Jesus maitea: nere ani-
ma zure amorio santuan ira-
cequi zazu, nere pecatuac eza-
gutu eta oriequin zu ofenditu-
taco damutasun eguiazcoa nere
bici gucian iduqui dezadan.
Ala izan dedilla.



Kyrie eleison.

*Consideratu nola Irutasun edo
Trinidadetx hit Santuari mise-
ricordia escatzen zayon.*

ORACIOA.

Jauna: erruqui zaitetz nizaz.
Jauna: erruqui zaitetz nizaz. Jau-
na: erruqui zaitetz nizaz. Je-
su-Cristo: erruqui zaitetz nizaz.
Jesu-Cristo: erruqui zaitetz ni-
zaz. Jesu-Cristo: erruqui zaitetz
nizaz. Jauna: erruqui zaitetz ni-
zaz. Jauna: erruqui zaitetz nizaz.
Jauna: erruqui zaitetz nizaz.



Gloria in excelsis Deo.

*Consideratu nola Aingueruac Je-
susen jayotzan cantatu zuen.*

ORACIOA.

Aingueruac alaba dezatela Jau-
na, zure ontasuna zu jayo ci-
ñanean becela. Orain gure a-
nimetan zure graciaz jayo nai
dezu. Alabatzen, bedeincatzen,
adoratzen eta glorificatzen zai-
tugu.

Zure gloria andiagatic graciae
ematen dizquitugu. Gure cul-
pen bareacioa escatzen dizugu.
Misericordia Jauna. Amen.



Dominus vobiscum, ta oracioac.

Consideratu nola Jesu-Cristo guizonai ezagutzera eman ciztaz-yen, eta iru Erregueac adoratu zuten.

ORACIOA.

Jauna: Sacerdoteac santuen birtartez escatzen dizuna, nic ere escatzen dizut. Arren Jauna, aren eta nere erreguac entzun ilzatzu. Iguzu emen lurrean zure gracia, eta ceruan betico gloria, Jesucristo gure Jaunaren merecimentuac-gatic. Ala izan dedilla.



Epistolán.

Consideratu nola Apostoluac penitencia predicatu zuen.

ORACIOA.

Gure Jesus, maisu bacarraren aurean guciac isill bitez. Atoz, Jauna, ta itz eguidazu: Indazu nere animan zure Profeta Santuen celo eta amorioa zure promesac edo aguindua cumplitzeco. Ala izan dedilla.



Evangelioan.

*Consideratu nola Jesu-Cristoc
munduan predicatu zuan
Dotriña.*

ORACIOA.

Lurreco bide triste onetan na-
billen artean, Jauna, gauza bi
chit bear ditut: Arguia eta jana-
ria. Ez arren oriec niri ucatu.
Zure Evangelioco Dotriña nere
pausoen argui izan bedi; eta
Zure Gorputz Divinoa nere ani-
maren janaria, emendie cerura-
ño falta zadan bidean erori ez
nadin. Amen.



Credoan.

*Consideratu nola Evangelioac
ecarri digun Legue Santua
ta ailtortzen du aoac bio-
tzac sinisten duana.*

ORACIOA.

*Esazu Credoa : baña devocio gu-
ciaz , Apostoluac eman ciguten Ce-
ruco Dotriña becela. Guero esazu ;
Jauna : zuc Eliza Ama Santari
eracutsi diozcatzun fedeco eguia
guztiac sinisten ditut. Indazu
gracia nere bicitzaco obra gu-
ciac Fede bici batequiñ egui-
teco ; guero orien sarian zure-
quiñ bici nadin Ceruan. Amen.*




Ofertorioan.

*Consideratu Jesu-Cristoren Dotri-
ñac eman digula Fedea, eta au
aitortzeco laguntasuna.*

ORACIOA.

Jaun Soberanoa: Zure Semea-
ren Sacrificio au Sacerdoteare-
quin batean ofrendatzen dizut
zure gloriaric andieneraco: Niri
eta mundu guzliari zuc eguiñ-
daco mesedeen graciac emate-
co: Nere eta mundu guciaren
pecatuen Satisfacioraco: Nere-
tzat eta nere obligacioco gu-
cientzat bear ditudan laguntza
ta gracia guciac zugandic iris-
leco. Zure Seme gure Jauna
gatic. Amen.



Prefacioa eta Santusean,

*Consideratu nola Jesu-Cristo as-
toaren gañean Jerusalemen sartu
zanean, Juduac cantatzen cio-
ten: Santua, Santua, etc.*

ORACIOA.

Jauna: Alabatzen zaitut Ce-
ruco Aingueru guciaquin. Gu-
gana etorri nai dezu. Eman
nai dizquitzut bada biôtzetic on-
gui-etorri ta bedeincacio guz-
tiac. Santua, Santua, Santua
ta gloriâz betea zaude gure-
tzat. Jauna, zurea da gloria.
Ala izan dedilla.



Canon ta mementoan.

*Consideratu Jesu-Cristoren Pasio
santuaren asiera.*

ORACIOA.

Zure Seme Jesu-Cristo-gatic es-
catzen dizut, Jauna, Eliza San-
tua-gatic, Aita Santu, gure Obis-
po, Erregue ta beste fiel guciac-
gatic: Nere guraso. senide, aide
eta adisquide N. onelaco-gatic,
onguille eta gaizquille eta peca-
lari guciac-gatic, zure graciara
biurturic, Zu amatzen gucioc
beti bici gaitecen. Amen.



Consagracion.

*Consideratu Pazcoaco arcumearen
figura, ta beste figura edo irudi
gucien bucaera.*

ORACIOA.

Nere Jesus amoriotsua: azque-
neco afarian zure Apostoluai
eman ciñen zure gorputza ta
zure odola. Zure ontasun ta
misericordia andia-gatic erregu-
tzen dizut Sacramentu onetan
participante eguin nazazula; eta
orrela bici izan zaiteala nigan,
ta ni zugan Zu beti alabatzen.
Ala izan dedilla.



Ostia alchatzean.

Consideratu nola Jesu-Cristo gurutzean alchatu zuen.

ORACIOA.

Adoratzen zaitut, Jesus, nere Jaungoicotzat, ta ostia Santu orretan adoratzen det zure Gorputz Sagradua, gurutzeco aldarean mundu gucia erredimitezco ofrecitu zana. Sinisten det Zu or zaudela.



Caliza alchatzean.

*Consideratu nola Jesu-Cristoc be-
re zaurietatic odol precioso
issuri zuan.*

ORACIOA.

Adoratzen det, Jauna, zure
Odol precioso, gure amorez
Gurutzean issuria; gure animac
garbitzeco Zuc emana: Odol
precioso orretan esperatzen det
nere culpen barcacioa izango
dedala. Amen.



Caliza alchatu ondorean

*Consideratu oraindic Jesu-Cris-
toren pasioa ta bere eriotza.*

ORACIOA.

Zuc nai dezun becela, Jauna,
Sacerdotearequin sacrificio au
esqueintzen dizut zure Semea-
ren pasio ta eriotza, Erresur-
recio eta Ascensio gloriosoa-
ren erreverencian, Ostia gar-
bia, Ostia Santua, Ostia man-
cha-gabea. Jauna, ez beguira
guri, ezpada zure Seme maite
oni; zure bendicioaz onequin
bat eguin gaitean. Amen.



Ostia calizarequin alchatzean.

*Consideratu nola Josè ta Nico-
demusec Jesusen gorputza gu-
rutzetic erachi zuen.*

ORACIOA.

Nere Jesus ona: Zuc nere pe-
catuen zorra pagatzeagatic gu-
rutze batean bicitza eman cen-
duan: indazu, bada, niri ere
nere culpac eguiazeo peniten-
ciarequin deseguiteco gracia;
orientzat ill eta zurequin ce-
ruan bici nadiñ. Amen.



Pater-nosterrean.

*Consideratu Jesu-Cristoc guru-
tzean esan cituan zazpi
itzac.*

ORACIOA.

Esazu Aita gurea, onen zaz-
pi escariac soseguz pensatuaz.
Eguneroco Oguia escatzean adi-
tzen da, gure obligacioac eza-
gutzeco arguia: Sacramentuen
laguntzac, animac estadu gra-
ciazcoan irauteco, ta gorputza-
rentzat alimentua. Amen.



176

Meza



Pater-nosterra esan ondorean.

Santua.

177

*Consideratu nola Jesu-Cristo Lim-
bora jechi ta an ceuden animac
atera cituan.*

ORACIOA.

O nere Jesus maitea! Zure
anima Jangoicotasunarequin u-
nituric jechi zan limbora, jus-
tuen animac pena artatic ate-
ra ta gloriaz betetzera: indazu
niri ere gracia, nere anima
pecatuen mendetic atera ta in-
fernucio penetatic libratzeco lem-
bait len, Santu guciaquin ceruan
alabatu zaitzadan. Amen.



Ostia partitzean.

*Consideratu nola Emausco Disci-
puloac Jesu-Cristo ezagutu zuen
ogüia partitu cienean.*

ORACIOA.

Nere Jesus animen guidaria:
zure discipulo ta icasleac becela
eraman nazazu bide zucenetico:
nere biotza ta nere entendimen-
tua bete eta iracequi itzatzu zu-
re arguiz: emen zure vorondatea
eguiñaz, ceruco gloria irichi de-
zadan. Ala izan dedilla.



Pax Domini.

*Consideratu nola Jesu-Cristo bere
Discipuloai aguertu citzayen,
ta paquea eman cien.*

ORACIOA.

¡O Jesus gloriáz betea! Zure
pizte edo erresurreccio glorio-
soarequin idiqui cenduan betico
bicitzaraco atea, eta ori aditze-
ra eman ciñen zure apostoluai
esanaz: Paquea izan dedilla zue-
quin. Erregutzen dizut, Jauna,
eman deguiozula nere animari
pecatulic graciara piztu, ta gue-
yago Zu ez ofenditzeco bear
duan laguntza. Amen.



Agnus Dei.

*Consideratu nola Jesu-Cristoc be-
re Discipuloai pecatuac barca-
tzeco escubidea eman cien.*

ORACIOA.

Jaincoaren Bildots garbia:
munduco pecatuac quentzen di-
tuzun Jesus ona, misericordia
guzaz.

Jaincoaren Bildots garbia:
munduco pecatuac quentzen di-
tuzun Jesus ona, misericordia
guzaz.

Jaincoaren Bildots garbia:
munduco pecatuac quentzen di-
tuzun Jesus ona, zure paquea
iguzu. Amen.



Comunioan.

*Consideratu nola Jesu-Cristoc be-
re Discipuloquin jan zuan
Cerura igo baño lenago.*

ORACIOA.

Zu cera, Jauna, gure paquea.
Apostoluai eman ciñen becela,
Eliza Santuari eta guri iguzu: gu-
re gaitz ta peligro gucietatie libra
gaitzatu. Zure vorondatea beti
eguiteco, ta zugandie iñoiz ere
ez apartalzeco gracia iguzu.

Jauna, nic mereci ez det Zu
nere echean edo animan sar-
tzea, baño itz bat esazu, eta ne-
re anima Salvatuco da. *Iru bider
au esalen da.*



Comunio ondorean.

*Consideratu nola Jesu-Cristo bere
virtutez cerura igo zan.*

ORACIOA.

Jauna: baldin Zu beregan ar-
tzen zaituana, Zuc zure seme
edo alaba eguiteraño jasotzen
badezu, arren neri ere favore
au eguidazu. Nere naturaleza
onec gaitzeraco dauzcan griña
macurrac atzera itzatzu. Zure
graciaz confesioco Sacramen-
tuan berriro jantzi nazazu, Co-
munio espiritualetan beti fede
bici ta amorio iracequi batequin
errecibitu zaitzadan. Amen.



Bendicioan.

*Consideratu nola Jesu-Cristoc
aguindu zuan becela, Espiritu
Santua bialdu zuan.*

ORACIOA.

Nere Jesus maitea : Zuc aguindu becela Espiritu Santua sugar bici ta mingañen antzean Apostoluetara etorri zan : eguizu, bada, Espiritu consolagarri orrec nere biotza ta anima bere argui ederraz bete, ta amoriozco surtan iracequi ditzan. Amen.



Azqueneco Evangelioan.

*Consideratu Jesu-Cristoren Jain-
goicotasuneco ta guizatasu-
neco misterioac.*

ORACIOA.

Nere Jaungoicoa: Nic dedan
ta naizan gucia zurea da, ta
Zuc eman didazu: bada, dan
guztia nic zuri biurtzen dizut,
zure borondate santuarequin
goberna dezazun. Zure amorioa
zure graciarequin indazu; ta
orrela aberats izango naiz, eta
besteric nai ez det Zuc nai de-
zuna baicic. Amen.



192

BOST ALDARETACO
ESTACIOAC EGUITECO, ETA
INDULGENCIAC IRABAZTECO

ORACIOA.

Gure Jaungoico eta misericordiaz-
co Aita: zure Semearen ondasu-
netatic gure anima pobreac in-
dulgencia edo pecatuen barcacioaz
zure adisquide aberats eguiñ di-
tuzuna. Gure culpen satisfacioan
ta purgatorioco animen sufragioan
gaur diran buldaren indulgenciac
irabazteco bost Aldareen oracio au
esqueintzen dizugu zure boronda-
teac escatzen duan becela, eta
Jesu-Cristo zure Semearen inten-

193

cio ta amorioaz batean. Ta onda-
sun orieci irabazteco zure ondasu-
nari erregutzen diogu, Eliza Ama
Santaren estada dichosoagatic be-
guira dezala: Zure fedea mundu
guciarri aguertuaz; Principe cris-
tau guciai beren arteco paquea
emanaz: heregiac ta infielen ingar-
rac deseguiñaz. Zure seme Jesu-
Cristo gure Jaunagatic, ceñari zu-
requin eta Espiritu Santuarequin
batean betico gloria. Amen.

*Oracio au esan ta bacarric alda-
reac visitatzen badituzu, esan itzatzu
bacoitzean iru Pater noster, iru Ave
Maria eta iru Gloria: eta besterequin
bacera, zuc esan eta besteac eran-
tzun: edo contrara, besteac esan eta
zuc erantzun.*

CORUAN VEZPERAC
CANTATZEN DIRAN ARTEAN
PERSONA DEVOTAC LETU DITZAQUETEN
CONSIDERACIO EGOQUIAC,

NAIZ ECHEETAN.

✠

SARRERA.

Bedeincatua, alabatua, ta adora-
tua izan dedilla Trinidad Santisi-
moa. Aldareco Sacramentu chit
Santua, ta Maria Santisima Ain-
gueruaquin batean. Amen Jesus.

Gurutze Santuaren señaleac ga-
tic etc.

Nere Jesu-Cristo Jauna, Jaun-
goico ta guizon eguiazcoa, nere

Criadorea, ta Erredentorea, Zu ce-
rana ceralaco, ta maite zaitudalaco,
damu det Jauna nere biotz guztitic
zure Ontasun paregabea aimbeste
aldiz ofenditua, ta artzen det gogo
eguiazcoa berriz peccaturic ez egui-
teco, peccaturaco bide gaiztoetatic
alde eguiteco, ta oraindaño pe-
ccatuacgatic mercei dedan peniten-
cia eguiteco, Jauna, zure graciac
laguntzen didala. Amen Jesus.

¡Oh Jaungoico oundia! atoz lem-
bait leñ neri laguntzera.

Jauna: erabilli nazazu beti bide
zucenetico. Ala izan dedilla. Gloria
Aitari, Gloria Semeari, Gloria Es-
piritu Santu Jaunari, oraindaño
becela, orain, ta betico dembora
guztietan. Amen.

**LEMBICICO SALMOA.**

*Emen ematen zaizca alabanza
Aita Eternoari.*

¡Oh cernen ta lurraren Jabea!
¡Cein poderosoa dan zure escua!
bada instante batean atera cinituan
ecer ecetic, ta eguin aibeste mi-
lla milloi Aingueru ceruan, ta ecin
contaala criatura munduan. Baña
gnore consideratu ditzaque Jauna,
Zuc eguindaco ceruco Aingueruen
virtuteac? ¡Cein miragarriac dira,
batzuec garbitasunean, besteac
anditasunean, besteac aguintean,
besteac zuentasunean, besteac
Jauntasunean, besteac jaquindu-
rian, besteac amodioan, ta guztiac
edertasunean. Izanic milloica ecin

contaala Aingueru guztiac dira di-
ferenteac, ta guztiac miragarriac.
Cueroztic, au da munduaren asiera-
tic, Erreinu orretan dauzcatzu Jauna
Zu beti alabatzen. Alaba zaitzate-
la emendic aurrera ere eternida-
de guztian. Mundu onetan ber-
riz ¡cembat milla ta milla cria-
tura eguin cinituan Jauna, instan-
te artan bertan, ta nolaco errazta-
sunarequin! Zure ceruco Jarlecu
miragarrian eserita ceundela, esa-
naz: EGUIN BITEZ, bete ciran ichasoac
arraiz, ta mundu guztia criaturaz,
ta ¡cein diferenteac dira! Criatu-
ra oen bidez sortzen da sortuco di-
luzu beste ecin contaala mundua-
ren azqueneraño. Bera gatic cria-
tura ezagüerarie ez dutenac ere
¡nolaco leyaltasunarequin ari dira
Jauna alabatzen beren modura zu-

198

re icen santua, zure escu poderoso!
Guizona eguin cenduenean
berriz anima gorputzarequin bat e-
guinda ¡jorduan bai eraculsi cen-
duan batezere zure escu poderoso-
ren anditasuna! Bedeincatu ta ala-
batu zaitzate la beragatic Jauna
ceruan ta lurrean, aingueruac, eta
guizonac, eta beste criatura guz-
tiac orain ta beti. Amen.

Gloria Aitari, Gloria Semeari, etc.

BIGARREN SALMOA.

*Emen ematen zuizca alabanzac
Seme Jaungoicoari.*

¡ Oh ceruco Aingueruen, ta mundu-
co criatura guztien gobernatzallea!
Nolaco arreta, ta leyalta sunarequin
beguiratzen diezu zure Aitac eguin
citan ceruco Aingueruai, ta lur-

199

reco criatura guztiai! Zuc Jauna
zure jaquinduriarequin ezagutu ci-
nituan iastante batean Aingueru
guztien virtuteac, eta jarri cinituan
guztiac beren jarlecu altu, edo tro-
nu aiñ egoquietan, capitán gene-
ral batec bere mendeco soldaduac
jartzen dituen becela. Zuc aguin-
tzen diezu guztiai, ta guztiac obe-
decitzen dizute zuri, guztiac daude
Jauna zure mendean. Eta Zuc guz-
tiac aiñ zucen ipiñi, ta aiñ ondo
aguintzen diezulaco, guztiac daude
beñere aspertu gabe zuri alabanzac
ematen. Ala segui dezate la eterni-
dade guztian. Zuc gañera ¡oh Jaun-
goicoaren Semea! zure Aitac ce-
ruan eguin cituan eguzquia, illar-
guia, ta izarrac ipiñi cinituan aiñ
zucen beren bideetan. ¡Nolaco le-
yaltasunarequin obedecitzen diote



200

zure aguinteari, zure jaquinduria
aiñ ederqui gobernaten dituelaco!
Ez ditecela bada beñere aspertu
Jauna, zure jaquinduriazco gobier-
nuari alaco alabanza ematez. Mun-
duan zure Aitac eguindaco criatura
guzliac orobat daude Jauna, zure
jaquinduria Jaungoicozcoari gracia
ematen aiñ ederqui gobernaten di-
tuzulaco. Zuc Jauna, eracusten diz-
quetzu arrayai beren bidea ichaso
zabal orietan. Zuc erabiltzen ditu-
zu bein batera ta bein bestera. Zuc
gañera ceru altu orretan ceundela
jarri cinituan legorreco criatura
guzliac aiñ egoqui beren lecuetan;
ta gueroztic zaude beguira guztiai
batean artzai batec beren ardiai be-
guiratzen dien becela. Baña batez
ere guizonarequin eracutsi cen-
duan zure jaquinduria eguiaz mi-

201

ragarrizco moduz. ¿Cer asmatu
cenduan, edo obelo esateagatic,
cer asmatu etzenduan guizon gal-
dua billatzeco, eroria alchatzeco?
Jechi ciñan cerutic guizon eguitera
artzen dezu gañean bere zor guztia,
bera gatic pasatzen dezu bicitza aiñ
penagarrizcoa, eta azquenic alaco
tormentuen artean eman cenduan
gurulzean azqueneco asnasa. Eta
onembestez contentu ez izanic su-
matu cenduan nola guelditu guizo-
narequin aldareco Sacramentu San-
tuan munduaren azqueneraño. Bera-
gatic ¡ceiñ obligatuac daude guizo-
nac Zu honratzen ta alabatzen ari-
tzeco eternidade guztian! Honratu
ta alabatu zaitzatela bada guztia
munduan ta ceruan Aingueruen
compañian. Amen.

Gloria Aitari, Gloria Semeari, etc.

IRUGARREN SALMOA.

Emen ematen zaizca alabanzac Espiritu Santuari.

¡Oh, Aita Eternoac eguin, ta Se-me Jaungoicoac gobernatzen dituan ceruco ta munduco criatura guztiac maitatzen, ta mantentzen dituzun Espiritu consolagarria! ¡Nolaco vorondatearequin beguiratzen diezu ceruan zure companian dauzcatzun Aingueruai, ta nolaco pozarequin daude berac zuri beguira, zure edertasunari beguira beñere aspertu gabe, zure edertasunean beti gauza berriac, eta miragarriac icusten dituztela! Zuc, Jauna, zure ontasunarequin eracartzen dituzu zugana amodiozeco cateaquin, ta ecin-

alde eguin dezaquete instante batean ere zugandic; alaco janari gozoa, alaco edari preciosoa, ta alaco atseguñac billatzen dituzte beti zure mai sagraduan! Zu jostatzen cera beraquin, ta berac gloriaz betetzen dira zurequin. Zuri beguira joaten zaizcate milla urte emen egun bat becin laister. ¡Nolaco gloria ematen diezu, millaca urteac aiñ laister pasatzen zaizcatenean! Ta zure ontasun zoragarriac ematen die seguranza ecin faltatu dezaqueana beti ta beti ala izango dirala. Beragatic ¡nolaco alabanzac cantatzen ari zaizquitzu oh Espiritu consolagarria! Mundu onetaco criatura guztiac ere daude zure escu ondasunez beteari beguira pozaren andiz, zugandic esperatzen dutela bear duten guztia.

Eta zuc mantentzen dituzu guztiac
asetzeraño Aita Eternoac eguiñac
diralaco. Zuec bada ¡oh ichaso
zabal orietaco arrayac! oh legorre-
co animaliac, eta criatura guztiac!
bedeincatu ta alabatu ezazute zuen
modura alaco vorondatearequin
bere escu aberatsa luzatzen dizuten
onguille aiñ maitegarria. Baña ba-
tezere guizonaquin eracusten dezu
zuc, Jauna, ceñ onguille zoragar-
ria ceran. Zuc daramazquitzu issil-
issilic guizonen esquergabequeria;
Zuc arguitzen dituzu beren enten-
dimentuac billatu dezaten cerura-
co bidea: Zuc prestatzen dituzu
beren biotzac, ta laguntzen diezu
zucen ibilli ditecen ceruraco bi-
dean, eta zuc eramán nai dituzu
beren animac zure aldamera, be-
lico gloria gozatzerá. Munduan e-

zagüera eguiazcoan jartzen dirala,
guero zure Erreinura eramateaga-
tic, ¡cembat demboran, ta nolaco
pacienciarequin sufritzen dituzu
beren gaiztaqueriac! Ceñ erraz ta
ceñ laister barcatzen dituzu beren
pecatuac, eta artzen dituzu zure
beso zabaletan, zure adisquideta-
sunean beren animac! ¡Oh ani-
mac Espiritu Santu Jaun onen es-
posac! Bildu zaitetzte guztiac el-
cargana; eguin ezazute coru bat
eta canta itzatzute guztiac batean
bere alabantzac; bedeınca ezazute
gabaz ta egunez, ordu ta instante
guztietan bere ontasun maitagar-
ria. Amen.

Gloria Aitari, Gloria Semeari, etc.

LAUGARREN SALMOA.

*Emen alabatzen da Jaungoicoa eguin
zualaco guizona.*

¡Oh Trinidad Santisimoa! ¡nolaco arrela izan cenduan guizonaren anima eguitea pensatu cenduan! Beste criatura guztiac eguin cinituan instante batean Cerucozure Tronuan eserita ceundela; baña anima eguiteco, ta eguin baño lenago, Zu ¡oh Aita Eternoa! consideratzen dezu, zure escu poderosoac cer eguin aldezaquean, Zuc ¡oh Seme Jaungoicoa! consideratzen dezu zure jaquinduria noraño zabaldu alditequean: eta Zuc ¡oh Espiritu Santu Jauna! consideratzen dezu Zure onta-

suna ceñ andia dan, eta ontasun, jaquinduria, ta escu aín poderoso orrezaz baliatuta, diozute elcarren artean: eguin dezagun guizona gure antzecoa, ta apaindu dezagun gure virtute ederraquin: eman dizayogun escu poderosoa gauza andiac eguin ditzan: entendimentu arguia, au da, jaquinduria, gobernatu ditzan: ta biotz amorosoa, bear duara mailatu dezan. Beragatic gueroztic guizonac ¡ceñ gauza andiac asmatzen ta eguiten ditu, ta ceñ diferenteac guiza aldi edo dembora guztietan! ¡Eta nondic ditu guizonac escu aín poderosoac, entendimentu aín arguia, ta alaco gauzac sumatu ta eguiteco gogo aín egoquia? Zureac dira ¡oh Trinidad Santisimoa! Zuc emanac, ta zure escutic ar-

tuac ditu fedea eracusten duan
becela, ta guztiac aitortzen degu,
ala dala. Onezaz gahera mundu-
co beste criatura guztiac eguin ci-
nitudan, Jauna, Guizonarentzaco.
Eguzquia, illarguia, ta izarrac
eguin cinituan guizonari argui
eguiteco: ichasoelaco arrayac, ta
legorreco animaliac, frutac, oguia,
ta edariac guizona mantentzeco,
ta servitzeco: sedac, damascoac,
ta beste soñecoac, guizona jazte-
co, ta apaintzeco: cantuac eta mu-
sicac, guizonari atseguin emate-
co, guizona alaitzeco. Baita Jau-
na, ceruco Aingueruac ere eguin
cinituan moduren batera guizonaren
servicioraco. Zuc bada aguindu ci-
nien Aingueruai, zaitu dezatela gui-
zona, ta lagundu bere ibillera guz-
tietan. Beragatic cein obligatua

arquitzen da guizona Zu alabatzen
beti aritzeco. Bedeincatu eta ala-
batu zaitzate bada guztiac beñe-
re aspertu gabe: esaten dizutela
beste criatura guztien partetic ere
¡oh Trinitade Santisimoa! Ala
izan dedilla.

Gloria Aitari, Gloria Semeari etc.

BOSTGARREN SALMOA.

*Emen alabatzen da Jaungoicoa gui-
zona erremediatu zualaco.*

¡Oh gure Jaun ta Jaungoico aun-
dia! guizonaren anima eguiteco
alaco arreta artu bacenduan ¡cem-
bat gueyago costa citzatzun bere
anima billatzea, pecatuan erori
zanean! Ieusi cenduanen bada
etsayaren mendean, condenacioco

bidean, consideraturic etzeucala beste erremedioric, cerorrec Jauna, pensatzen dezu erremediatzea. Eguin dezagun anima gure antzera esanaz, atera cenduan eeer ecetic, la eguin criatura aiñ ederra; baina erremediatzen pasa cinituan oguei la amairu urte. Jaichi cñan cerutic anima galduaren billa, eguiñ cñan guizon doncella baten entrañetan, pasa cinituen bederatzí illabete, carcela illun artan: jayo cñan animalien etzanlecu batean. Pasatu cinituan ogueita amairu urte beli nequepean; izandu cñan urrutira desterratua, despreciatua, zoro gaiztotzat tratatua, aiñ cruelqui azotatua, arantzaz co-roatua, iltzera sentenciatua, lapur bien erdian jarria gurutze pisua bizcarrean cenduala. Estadu-

aiñ negargarri artan joan bear cenduan, edo eramán cinduzten mendí batera bide gogor artan puntuan beñ erortzen cñala. Izandu cñan gurutze artan josia, cincilica jarria, alde guztietatic atormentatua, azqueneco asnasa emateraño sacrificatua, eta azquenic lurpean sepultatua. Aimbete costa izan eitzatzun Jauna, anima pecatuan eroria erremediatzea, ardi galdua billatzea, ¿Eta certaraco Jauna? infernuco etsayen mendetic atera la cerura eramateco. ¡Ah anima zorionecoa! Orain bai deseguin bear cera Jaungoicoari graciae eta alabanzac ematen. Combidatu itzatzu bada ceruco Aingueruac, ta munduco criatura guztiae eta esan zayozu aequin balean: Jauna: Zure urriqitasun zoragarria alaba-

tzen arico naiz beti betico dem-
bora guztietan. Zuc Jauna, aim-
beste costata atera dezu nere ani-
ma infernuco bidetic; libratu peca-
tuaren mendetic, ta etsayaren a-
tzaparrelatic; sendatu diozcatzu
pecatuac eguindaco llagac, garbi-
tu manchac, artu dezu zure adisqui-
detasunean, ipiñi ceruco bidean,
ta eraman nai dezu ceruco gloria-
ra, zure aldamenean jartzera, Ain-
gueruen companian izatera Zu Jaun-
goico ceran arte guztian. ¡ Ah nere
sentiduac: biotzac eta mingañac ba-
ciñateqne Jaungoico onguille mai-
tearen alabantzac cantatzeco zuec
urtutzeraño amodioaren andiz!
Ala bada izan dedilla.

Gloria Aitari, Gloria Semeari etc.

TRINIDADE SANTISIMOAREN
CANTAC.

- 1 Atoz Eguzqui ederra,
Ceru altutic lurrera,
Illuna desterratzera,
Ta gu arguitan jartzera.
- 2 Aitaren anditasuna
Da bai gure ondasuna,
Bai ta zoriontasuna,
Aitortu bear deguna.
- 3 Zuc gaituzu gobernatzan,
Etsayagandic libratzen,
Cerura bidean ipintzen,
Bide onetan laguntzen.
- 4 Argaitzatzu biotzean,
Zurequin izan gaitean,
Bici guerala lurrean,
Bai gure zorionean.
- 5 Aita: zaitugu honratzen,

214

Degu Semea alabatzen,
Espiritu Santua adoratzten,
Iru personac gozatzen.

6 Guretzat dira gloriac:
¡Oh gure biotz alayac!
Baldin baguera garbiac,
Ceruac daude sariac.

7 Jauna: zuri esquermilla,
Bada zabiltz nere billa,
Zurequin izan nadilla,
Ceruac guerta nadilla.
Amen.

VERSOA.

Bedeinca dezagun gure Jauna,
ta Jaungoicoa.

ñ. Orain da beti seculaco
dembora guztietan. Amen.

215

MAGNIFICAT.

Nere anima: alabatu ezazu gogotie zure Jauna ta Jaungoicoa, ta poztu zaite biotzetie graciac emanaz, mesede aiñ andiac eguin dizquitzulaco. Zu sortu baño lenago etziñan izandu ecer ere, ta zure eceretzari beguiraturie begui amoroquin, eguin einducen criatura aiñ ederra; mereci cenduan ceruco aingueruac beren senidetzat ezagultzea, ta munduco criatura guztie jarri cituan zure mendean, onguille maite arrec. Ceruac, eta munda instante batean eguiñ izan cituan Jaungoicoac, ta ceruco ta munduco criatura guztie adoratzten duten Jaun aiñ andiac eguin, ta eman dizquitzu, zuri nere anima, ondasun aiñ estimagarriac.

¡Ay! ceñ obligatua arquitzen ce-
ra onguille beneragarri ari gra-
ciac ematera! Izan zaite humilla,
ta aitortu ezazu mundu guztiaren
aurrean, dezun guztia Jaunac e-
mana dezula: bada anima humi-
llac eta gracia onecoac honratzen
ta aberastutzen dituan becela, a-
lasse despreciatzen, ta botatzen
ditu beragandie arrotzen diranac,
eta beren gañean confiatzen dute-
nac. Toqui altuetan jarri izandu
diran soberbiosoac lotsatuta utzi
izan dituan becela, ala honratu-
ta alchatu izan ditu beren ecereza
ezagutzen ta aitortzen duten anima
humillac. Deseatu itzatzu gogotic
cerneco ondasunac, ta escatu egarri
andiarequin bada emango diz-
quitza ta asetzeroño; batez ere es-
catu humildadea, ta Jauna mai-

latzeco gracia, ala izango cera
eguiaz zorionecoa ta aberatsa. Mun-
duco ondasunetan biotzac jartzen
dituztenac, arquituco dira escu
utsaquin batez ere eriotzaco or-
duan. Nere anima: zure argal-
queriatic ta premiaic ezagutu ta ai-
tortu itzatzu Jaunares aurrean, ta
dudarie gabe urricalduco zatzu:
ala esaten digu escritura sagra-
duan, ta ecin saltatu dezaque.
Beragatic alabatu, ta bedeincatu
ezazu zure Jauna ta Jaungoicoa,
esanaz: Gloria Aitari, Gloria Se-
meari etc.

Bedeincatua ta alabatua izan
dedilla Trinidada Santissimoa, Al-
dareco Sacramentu Santua, ta Ma-
ria Santisimaren concecio garbia,
orain da beti Amen.

VEZPEREN AZQUENA.



ALDARECO
SACRAMENTU SANTUARI
EGUITEN ZAYON VISITA.

¡ Oh nere Jesus chit maitagarria! Ona emen daucazu nere anima auspezluric zure aurrean: nic adoratzen zaitut Jauna biotz guztiaz, ta nai cinduquet adonatu ce-

ruan ta lurrean Aingueruac, eta anima santac adoratzen zaituzten becela. Adoratzen, ta alabatzen zaitut Sacramentu Jaungoicozco orretan: eta ¡ay! nere biotza urtuko balitz zuri izan bear dizudan amodioaren andiz! Beguira zayozu Jauna nere biotzeco deseo iracequi oni, ta visita ezazu nere anima errucarria, ala emango dizquitut gracia ecin contaala zure ontasun muga gabeacgatic. Amen Jesus.

*Biotz barrendic ateratzen diran
naitasunczco itzac.*

¡ Oh nere Jesus eguiaz maitagarria! nic sinisten det fede biciaquin Sacramentu adonagarri orretan zaudela, ceruan zauden becela, Aita ta Espiritu Santu Jau-



narequin. ¡Oh nere Jaun ta Jaungoico lecu guzlietan, ta batez ere Aldare orretan arquitzen cerana! Nic alabatzen, ta adoratzten zaitut lurraren gañian auspez etzinda, dizudan bildur santuaren andiz. Ceruco Aingueru santuac: alabatu ta adolatu ezazute nere partez Aldare onetan neri didan amodio zoragarriac lotuta daucan nere Jauna ta Jaungoico aundi au. Nere anima: arren humilla zaite ceruco Aingueruac arpeguira beguiratzea atrebitzen ez diran Jaungoico adorarri onen aurrean. ¡Oh nere animaren Esposo chit zoragarria! indazu arren arguitasuna, ta indarra, zure anditasuna gueyago ezagutzeco: zure Jaungoicotasuna ta amodio miragarria ongui barrendic sinisten da maitatzen

dedala emendic aurrera bicitzeco ta iltzeco; onela Zuc Sacramentu orretan eguiten dizquidatzun gracia aiñ estimagarriai nola baitean bada ere erantzuteco. ¡Baña nor naiz Jauna ni Zuc Sacramentu beneragarri orretan eguiten dizquidatzun mesedeacgatic mercedituzun alabanzac eta graciae emateco? Ceruco Aingueru, Serafiñen biotz santuac ere ez dira diña zuri mercedituzun graciae emateco. Alaz guzliac ere ona emen Jauna nere anima deseoz betericZu alabatzeco, ta zure amodio santuan sartuta bicitzeco ta iltzeco. Ala izan dedilla.

ORACIOA.

¡Oh Jesus! nere biotzac eguiaz



maite zaituana: Zu cera Aita Eternoari escaintzeco ofrendaric onena, ta Zu ceruco ondasun guztien emallea. Nic adoratzen zaitul nere biotz guztiaz Sacramentu Santu veneragarri orretan, cembaitec eguiten dizquitutzen desprecioen, ta lotsagabequerien toquian. Adoratzen zaitut, misterio chit adoragarri au beñere sinistunai ez dutenac zure biotz amoro-soari ematen dioten naigabea erremediatzeco; ta ematen dizut nere Jaungoico maitea, zori gaiztoco aec eman bear liquezuten alabanza ta gloria guztia. Eta bedeincatzen ta alabatzen zaitut anima pecataria munduan, ta condenatuac infernuan beren gaiztaqueriz zure ontasun urricaltsuari ematen dioten sentimentuagatic. Ona emen Jau-

na nere biotza, nere gogo guztia bat eguinda zure Esposa Eliza Ama Santaren biotzarequin. Nere deseo da ematea zuri Sacramentu miragarri orretan zure Ama Maria Santisimac ematen dizquitzun alabantzac, eta cerorrec Aita Eternoari ematen diozun honra ta gloria. Bedeincatu, alabatu, ta amatu zaitzatelata bada ¡oh Jesus chit maitagarría! Ceruan Aingueruac ta santuac becela, Sacramentu Santu orretan anima guztia. Amen Jesus.

Orain adoratzen dira bost llagac, bost Aitagure Ave-Maria ta Gloriquin.

Alabatua ta adoratua izan dedilla Aldareco Sacramentu Santua.

Bai, ala izan dedilla betico dembora guztietan.

ORACIO LABURRAC

*arreta andiarequin Sacramentuaren
aurrean esaten diranac; anima devo-
ta bacoitzean piscabat consideratzen
guelditzen dala.*

1.° ¡Oh cerutic jechitaco ogui
Jaungoicozcoa! nic adoratzen zai-
tut Sacramentu orretan.

2.° Nere Jesus maitearen, ta
Maria Santisimaren biotz sagra-
duac: sendatu, ondu, ta zuen ala-
batzat artu ezazute arren nere ani-
ma gaissoa.

3.° ¡Oh Jesus, nere onguille zo-
ragarria, ta Salvatzallea! zuri es-
caintzen dizut nere biotz argal au.

4.° ¡Ay Jauna! Cembat de-
seatzen det zure ontasuna, zure
biotz amorosoa ezagutua, adoratua.

alabatua, ta glorificatua izatea or-
du ta instante guztietan guri digu-
zun amodioaren audiz urtutzen
zauden aldare guztietan!

5.° Nere anima; considera eza-
zu ondo noren aurrean zauden: ce-
ruan Aingueruac bere edertasunaren
andiz arpeguira beguiratzea atre-
bitcen ez dira: ¿nor cera zu Jau-
naren aurrean egoteco?

6.° Nere anima: ¡Badaquizu
norc ecarri zaituan Jaun onen aur-
rera, ta certara ecarri zaituan?
Zure esposo cerutic jachitaco onec
deitu dizu beragana eta ecarri zai-
tu amodiozco cateaquin lotuta, ta
ecarri zaitu zure biotzeco pecatua-
ren llagac sendatzera, manchac
garbitzera, virtutez apaintzera, ta
bere esposatzat artzera. ¡Oy, eta
cembat zor diozun!



7.º Nere anima: amodioari
amodioarequin erantzun bear baza-
yo, badaquizu zure Esposo onec
nola issuri izan zuan bere zañetaco
odol guztia, ta eman azqueneco
asnasa zuri izan cizun amodioaga-
tic: zuc orain bera ¿cembat mai-
tatu bear dezu?

8.º ¡Ah Jesus! atera didazu
biotza bere lecutic:: jarri nazu
Jauna zoratua becela:: ¡Ay! nor
izan al ditequean diña bere zañeta-
co odola issurtzeco martirio glorio-
so batean zure amodioaren andiz::
¡Eguin zaitte arren Jauna nere
vorondatearen, ta sentiduen jabe!

SACRAMENTU SANTUAREN LETANIA.

Jauna: atoz guri laguntzera.

Jesus: urrical zaitte guzaz.

Jauna: ez arren aserratu gure con-
tra.

Aita Jaun cerucoa: beguira guri
erruquiz.

Jaungoicoaren Seme munduaren er-
remediatzallea: beguira guri
erruquiz.

Espiritu Santu Jauna, ta Jaungoi-
coa: beguira guri erruquiz.

Trinidad Santisimoa, ta Jaungoico
eguiazcoa: beguira guri erruquiz.

Aldareco Sacramentu santu vene-
ragarria: beguira guri erruquiz.

Jesus maitearen gorputz sagradua



228

ta odol preciosa: beguira guri
erruquiz.

Anima garbien janari cerucoa: be-
guira guri erruquiz.

Gloria irabazteco doai zoragarria:
beguira guri erruquiz.

Cerura joateco lagunzalle zucena:
beguira guri erruquiz.

Atera zaite Jauna beti gure alde:
arren barca zaiguzu.

Animaco ta gorputzeco gaitz guz-
tietatic: libra gaitzatu Jauna.

Comunio gaiztoetic: libra gaitza-
tzu Jauna.

Ona Jauna gu peccariac: aditu
gure oracioac.

Arren barca itzatu gure peccatua:
aditu gure oracioac.

Lagun zaiguzu penitencia eguiac
eguiten: beguira guri erruquiz.

Jangoicoaren Seme munduco peca-

229

tuen desterratzallea: itzuli itza-
tzu gugana begui erruquitsu
oriec.

Jesus gure Jaunaren gorputz Jaun-
goicozcoa: itzuli itzatu guga-
na begui erruquitsu oriec.

Jaungoicoaren Seme guizon egui-
ña: itzuli itzatu gugana begui
erruquitsu oriec.

Jesus Jaungoico eta guizon eguiac-
coa: itzuli itzatu gugana be-
gui erruquitsu oriec.

Jauna: atoz guri laguntzera.

Jesus: urricall zaite guzaz.

Jauna: ez arren aserratu gure con-
tra.

Orañ Aitagurea etc.



MARIA CHIT SANTARI
VISITA.

¡Agur Maria, Virgiña eta
Jaungoicoaren Ama! pecatari er-
rucarri bat banaiz ere, confianza
aundiarequin auspestzen naiz zure
õnetan, sinismen osoan egonic, Zu
cerala guizonai Jaunaren gracia
guztiac cere valimentu indartsuare-
quin iristen dieztezuna. Zu cera
chit aberatsa, eta ni beartsu bat;
Zu cera Ama, eta ni gaiztoa be-
deric, naiz zure humea; ezagüera-
zo zadazu, nere Ama cerala. ¡Cein



amac izango luque viotzie utzitze-
co bere humeari sufritzen, socor-
ritu al balezaque! Eta Zuc, ain
escualdi aundia izanic, ¿ez nazu
socorritzen? Oroitu zaitex, joh Ma-
ria Virgíña chit beraá! laguntza
esque eta amparu billa Zugana
joan diranetatic iñor Zuc utzia izan-
du danic, egundaño aditu izan-
du ezdala: ¿eta nic izan bear del,
guztientzat beti idiqui zan ate au-
ichia arquitu bear dedan aurrene-
coa eta bacarra? bañan, ala balitz
ere, es del etsico, contrara uju
aundiagoa eguingo del, eta ez naiz
ishillduco, alic eta escatzen dizu-
dana ematen didazun arteraño. Bai,
nere Ama eta Señora, adi ezazu ne-
re erregua, irichi zadazu zure ser-
vitzu santuan irauteco gracia, eta
Jaincoari nai ez daquiola, baña

guertátuco balitzaque pecatuan e-
rortzea, eguizu ez dezadala arquitu
descansuric, alic eta confesio on
bat eguin, eta nere pecatuaren bar-
cacioa irichi dezadan arteraño.

Escatzen ere dizut justuen irau-
pena eta pecatarien conversioa.
¿Cér nai dezu eguita nic oecga-
tic? gogo onez prestatzen naitza-
tzu oen conversioraco al ditzaque-
dan bide guztizaz valiatzera. Oro-
bat escatzen dizut purgatorioeco a-
nima bedeincatuacgatic, nere gu-
raso, aide, adisquide, onguille,
eta nere oracioetara gomendatu di-
ran guztiacgatic; Aita Santuagatic
eta gure Obispo Jaunagatic; Car-
denal, Arzobispo, Obispo anima-
zai eta beste gañeraco apaizacga-
tic, guizon eta emacume erligio-
soacgatic, berac santu batzuec izan,

eta ala gañeraco guztiac santutu ditzaten; era berean escatzen dizut zure laguntza, sede santu catolicoa gueyago eta gueyago zabaltzeagatic, heregien, cisma eta vicioendes-eguimentuacgatic; Erregueagatic, eta erreinuco, provinciataco, uri eta errietaco gobernari eta cargudunaegatic, iduqui dezaten Salomonen prudencia, jaquiunde eta aciertu guztia, hura becela sayatu, eta irichi ditzaten erreinuraco ondasunac, paquea eta zoriontasuna; eta, azquenic, erregutzen dizut nere lagun urco guztiacgatic, batez ere eriacgatic; ichian eta deserrituac daudenagatic, eta leor-rean eta urean bide eguiten dutenagatic, eman zaitezlezu guztiai bear dituzten graciae.

Zure violetza are gueyago cucurtu

dezadan graci oec guztiac escatzen dizquitzut Trinidadegutziz Santuari beti izan diozun amorioagatic. Aldareco Sacramentu guztiz adogarriarenganaco zure amorioagatic, San Joaquin eta Santa Ana zure gurasoai, San José zure senarrari, San Juan apostoloari. San Ildefonso, Santo Domingo, San Buenaventura, San Bernardo, San Ignacio eta San Ligorio zure devoto bicañenai izan ciñien eta diezun amorioagatic; eta oec guztiac asco ez baldin badira, ipintzen ditut bitartecotzat bederatzi coro Aingueruac, Patriareac eta Profetac, Apostoloac eta Evangelariac, martiriac, obispoac eta confesoreac, Virgiñac eta alargunac, ceruco Santu Santac eta lurreco justu guztiac. Bai Virgiña chit Santa eta Jaincoaren Semearen



236

Ama, ain valimentu indartsuare-
quin ecin utzico nazu nere erreguac
aditu eta escatzen dizudana irichi
gabe. Amen, Jesus.

Trinidad gutziz doatsuari iru *Aita gurea*,
Ave Maria eta *Gloria*, Maria chit Santari
eman ciozcan graciën esquer onean.

Bedeincatua izan bedi, Maria,
Zure garbitasun ori,
Bada Jainco bera da gozaten
Beguiria edertasun orri.
Zuri, ceruco Princes aundia,
Gaurtic esqueintzen nago ni
Anima, visitza eta violetza,
Ez utzi, arren, zure hume oni.

*Verso onegatic emanac daude 39600 egu-
neco indulgenciac, eta Ave Maria chit gar-
bia esanda irabazten dira 2580 egunecoac,
eta beste aimeste. Pecatu gabe sortua
erantzutean*

237

MARIAREN VIOTZ SAGRADUARI ADORACIOA.

Adoratzen det ¡oh Virgíña eta
Jaungoicoaren Ama! Principaduen
coroarequin batean zure Viotz sa-
grada, eta escatzen dizut irichi
zadazula zure Seme Jesusegandic
violetz manso eta humillecoa beti
izateco gracia. Amen.

Aita gurea eta Ave Maria.

Adoratzen det ¡oh Virgíña eta
Jaungoicoaren Ama! Goi-aingue-
ruen coroarequin batean zure Viotz
sagrada, eta erregutzen dizut iri-
chi zadazula zure Seme Jesusengan-
dic nere gorputzeco, animaco eta
violetzeco garbitasuna. Amen.

Aita gurea eta Ave Maria.



238

Adoratzen det ¡oh Virgíña eta Jaungoicoaren. Ama! Aingueruen coroarequin batean zure Viotz sagradua, eta erregutzen dizut irichi zadazula zure Seme Jesusengandic nere lagun urcoacquin caridadea, celoa eta gañeraco obra misericordiazcoac, eguiten jaquiteco, eta eguin al izateco gracia. Amen.

Aita gurea eta Ave Maria.

BESTE ORACIO BAT

Maria chit Santari.

Oroitu zaitetz, ó Maria Virgíña chit beraá, laguntza esque eta socorru billa Zugana joan diranetatic inór Zuc utzia izandu danic, egundaño etzala aditu izandu. Confianza onequin alaituric Zuganatzen naiz nire, ó Virgíñen Ama Virgíña, eta

239

nere pecatuen pishupean lantuae emanaz, venturatzen naiz jartzen zure begui beneragarrien aurrean. ¡Oh Jaungoicoaren Ama! ez itzatzu, arren, despreciatu nere erreguac, ezpada viotz onez aditu eta ar itzatzu. Ala izan dedilla.

Aita Santu Pio IX garrenac eman cituen 300 eguneco indulgenciac, oracio au devocioz erreztatzen dan aldi bacoitzagatic, eta egunero erreztatzen baldin bada, irabazten da illean indulgencia oso bat, confesatu eta comulgaturic visitatzen bada Eleiza bat, erreztuaz bertan Aita Santuaren intencioraco.

**Maria chit Santari agurrae
eta Esqueñiac.**

1. Chit ondo daquit, Virgíña guztiz santa, gauza bearra dedala zure devoto eguiazcoa izateco pecatu-mota guztietatic alde-eguitea,

zure virtuteac jarraitzea, Sacramentu Santuac maiz artzea, gogoco dituzun obsequioen batzuec zuri esqueintzea, eta errezoac eta zure servituzco gañeraco gauzac ondo, gozoro eta aspertu gabe e-guitea; onetan guzlian arico naiz, bada, zure laguntzarequin, Zuri, nere Ama, atseguin emateagatic.

2. Orduoro errezatuco del Ave María bat. Egunero errosarioaren bartebat. Asteoroco larumbatetan barautuco naiz; edo cerbaitetan mortificatuco del nere gorputza. Illaren lembicico igandeetan artuco ditut Sacramentu Santuac, eta errezatuco del Errosario osoa.

3. Zure amarez eta zure honran sayatuco naiz, dezaquedane-raño, misericordiazco amalau obretan.

ERROSARIO SANTUA.

Era bitara da Errosarioa: batari deritza *Ama Virgñaren coroa*, eñac dituan zazpi amarreco, gañera bi Ave-Maria, eta azquenean Aita Santuaren icenean Aitagure bat eta Ave-Maria bat. Au bera esan da irabazten dute Aita San Franciscoren iru ordenetacoac barcamen osoa, edo indulgencia plenaria.

Besteari deritza *Errosarioa*; eta onec ditu amabost amarreco, eta esan ditezque edo amabostac bata besteen urrena, edo bosnaca edo banaca. Eta dan becela dala, amabostac eralqui ezquero irabazten da barcamen osoa.

Baña au irabazteco esan beat da, ala bata nola bestea, devocio ta jaiera andiarequin aoz eta biotzez; ez erdi-lo, gogo gabe eta adimentua beste lecutan dala, betaz eta itzac ortz artean nastutzen ez dirala: ichodoten dala batac osotoro esan ar-



242

teañ, besteac erantzuteo: eta erregutzen zayola Ama Virginiari, arren, gure bitarteco izan dedilla irichi dezagun Jesus maitea-gandie bear degun gracia, bere honraric andieneraco eta gure animen oneraco.

Onezaz gañera gogora itzatzu amarreco bacoitzean egunari ta amarrecoari dagozcan misterioac, aurrera esaten diran becela.

AMA VIRGINAREN ERROSARIO SANTUA

BEAR DAN DEVOCIOAZ

errezatzeco modua.

Ama Virginiarequin itz eguiten a-sitzeco, soseguz ta ondo ciñatu eta *Nere Jesu-Cristo Jauna etc.* biotzelie esan, eta guero Eleizac latinez diona *Dñe labia mea, etc.* batec asi-co du onela.

243

Y. Idiqaico dituzu, Jauna nere ezpañac.

R. Eta nere acoac esango ditu zure alabantzac.

Y. Beguira zazu Jauna nere so-corrura.

R. Eta atoz laster nerilaguntzera.

Y. Gloria Aitari, Semeari eta Espiritu Santuari.

R. Asieran zan becela, secula gu-cietan, orain eta beti. Amen.

MISTERIO GOZOZCOAC.

Astelen Ostegunetaraco.

Emen Sacerdoteac, edo batec ofre-cimentua esango du: ta guero obeto errezatzeco, ta Indulgenciac irabazte-co batec beti contu eraman, eta Pa-ter noster ta Ave Maria asi, ta bes-teac soseguz beti eranzungo dute.



LENENGO MISTERIOA.

Jangoicoaren Semearen Encarnacioa.

OFRECIMENTUA.

;**O** Virgiña Maria, Jaungoicoaren Ama miragarria eta gure erreguina! Amar Ave-Maria oyec eta Pater noster au izan bitez zure biotzac artu zuen atseguinaren erreverencian, San Gabriel Aingueruac berri onac ecarri, ta Aita Eternoac bere alabatzat, Semeac amatzat ta Espiritu Santuac esposatzat artu cinduenean, Jangoicoa zure sabelean guizon eguindaco misterioric miragarrien onegatic, arren alcantza eiguzu gure biotzetaco humiltasun zurearen antzeco bat; gure peccatuen damuaz penitencia eguiteco arguia, Principe Catolicoen eta

oyen erreinuetaco paquea, ta Jangoicoa servitzeco osasuna eta gracia. Amen.

*Emen eta besteetan Pater noster
eta amar Ave-Maria errezatzen dira.*

BIGARREN MISTERIOA.

Ama Virgiñac Santa Isabeli eguincion visita.

OFRECIMENTUA.

O Virgiña Maria, Jaungoicoaren Ama eta virtute gucien Jabea! Amar Ave-Maria oyec ta Pater noster au izan bitez zure biotzac artu zuen atseguinaren erreverencian Jangoicoa zure sabelean artu, ta caridade biciaic zure lengusu Santa Isabel ieustera joan ciñanean, bera ceruco ondasunez betetzera,



ta San Juan Amaren sabelean santificatzera. Zuen bien, ta zuen Seme bien artean orduan igaro ciran misterio ezcutatuac ezagutzeco, ta gure animac penitenciaz santificatzeco bear dan gucia, arren alcanza zaguzu; eta Principe Catolicoen eta oyen Erreinuetaco paquea, ta gure Jauna servitzeco osasuna eta gracia. Amen.

IRUGARREN MISTERIOA.

Jaungoicoaren Semearen jayotza.

OFRECIMENTUA.

¡O Virgiña Maria, Jaungoicoaren Ama, ta ondasun gucien Iturria! Amar Ave-Maria oyec eta Pater noster au izan bitez Jesus zure sabeleco Semea munduari eman edo jayo, eta trosa pobre garbie

tan bildu, ta abereen estrabian eratzan cenduenean zure biotzac artu zuen atseguinaren erreverencian. Zure Seme ta gure Jaun onen jayotza Santuagatic gure biotzetaco garbitasuna arren alcanza zaguzu, beraren amorioan berriro jayo gaitelan, eta Principe Catolicoen eta oyen Erreinuetaco paquea, ta Jaungoicoa servita eta amatzeco osasuna ta gracia. Amen.

LAUGARREN MISTERIOA.

Ama Virgiñaren purificacio eta presentacioa.

OFRECIMENTUA.

¡O Virgiña Maria, Jaungoicoaren Ama eta garbitasun guztien onci ederra! Amar Ave-Maria oyec eta



Pater noster au izan bitez zure Semea besoetan bere jarlecuric preciosoenean becela, gure erremedioraco Temploan ofrendatu cenduenean zure biotzac artu zuen atseguñaren erreverencian. Misterio onetaco argui ta ejemplo ederragatic arren gure animaco illuntasuna quendu, eta Jesus gure dicha guztia ezagutzeco bear dan arguia alcanza zaguzu; eta Principe Catolicoen eta oyen Erreinetaco paquea, ta Jangoicoa servitzeco ta amatzeco osasuna ta gracia. Amen.

BOSTGARREN MISTERIOA.

Jesus amabi urtecoa galdu, eta Temploan arquitu zanecoa.

OFRECIMENTUA.

O Virgiña Maria, Jaungoicoaren

Ama eta anima galduen ceruco bide segurua! Amar Ave-Maria oyec eta Pater noster au izan bitez Ama maitea becela, zure Semearen billa ibilli, eta Temploan ceruco maisua becela, lurrecoai eracusten arquitu cenduenean, zure biotzac artu zuen atseguñaren erreverencian. Jaun au egunero obeto billatzeco, eta Maisu onen dotriña obeto icasteco, arren beraren argui bero bat alcantza zaguzu; baita ere gure pecatuen Penitencia edo confesio on bat eguiteco bear dan gracia eta Principe Catolicoen eta oyen erreinetaco paquea, eta Jaungoicoa servitu eta eriotza on baten gracia. Amen.

Letania 262 garren orrian.



MISTERIO DOLOREZCOAC.
Astearte Ostiraletaraco.

LENENGO MISTERIOA.

*Getsemanico baratzan Jesus maiteac
equin zuen oracioa.*

OFRECIMENTUA.

¡O Virgiña Maria, Jaungoicoaren
Ama ta martiri guzlien Erreguina!
Amar Ave-Maria oyec eta Pater
noster au izan bitez zure biotzeko
Semea eriotzarañoco angustiaz es-
tuturic, odolezco icerditan dese-
guiten zap orduan, zure biotz mai-
legarriac artu zuen dolorearen er-
reverencian. Zure Seme Jesus ora-
cio artan gure pecatuac-gatic e-
riotzara ofrecierazo zuen amorio
andia-gatic, arren gure culpen e-
guiazco dama bat eta Jaunaren vo-

rondatea beti eguiteco indarra al-
canza zaguzu: eta Principe Catoli-
coen eta oyen Erreinuetaco pa-
quea, eta gure Jauna servitzeco
osasuna ta gracia. Amen.

BIGARREN MISTERIOA.

*Gure Jesus inocentea coluna bati lo-
turic, nola azotatua izan zan.*

OFRECIMENTUA.

¡O Virgiña Maria, Jaungoicoaren
Ama ta paciencien ispillu bicia!
Amar Ave-Maria oyec eta Pater
noster au izan bitez zure Seme
ederra bere soñecoac lotsa andian
quendu, azotez urratu, ta odole-
tan cijuanean zure biotz amorosoac
artu zuen dolore andiaren erreve-
rencian. Zure Semearen arrigarriz-
co paciencia ta amore onegatic, ar-



252

ren gure culpen soñeco zar itsusia
quentzeco, ta oyec mereci duten
castigua ta penac paciencian era-
mateco, biotz humill bat alcanza
zaguzu; eta Principe Catolicoen ta
oyen Erreinuetaco paquea, ta gure
Jauna servitzeco osasuna ta gra-
cia. Amen.

IRUGARREN MISTERIOA.

*Jesus onari arantzazco coroa nola
josi cioten.*

OFRECIMENTUA.

¡O Virgíña Maria, Jaungoicoaren
Ama eta triste gucien consueloa!
Amar Ave-Maria oyec eta Pater
noster au izan bitez zure Seme Je-
sus, gucien eguiazco Erregueari,
bere buru Santua arantzaz josi cio-
tenean zure biotzac artu zuan, ecin

253

esan alaco dolorearen erreveren-
cian. Gure pecatuen eriotzaco aran-
tza oriec berari ta zuri eman cizuten
tormentu sortitza-gatic, arren gure
culpen ondorengo arantzac ta ne-
queac ondo eramateco bear degun
paciencia, alcantza eiguzu; eta
Principe Catolicoen ta oyen Errei-
nuetaco paquea, ta gure Jaungoi-
coa servitu eta amatzeco osasuna
eta gracia. Amen.

LAUGARREN MISTERIOA.

*Gurutzea bere gañean artu, ta Jesus
Calvariora eraman zutenecoa.*

OFRECIMENTUA.

¡O Virgíña Maria, Jaungoicoaren
Ama eta lurrean bideco galduen
Argui ederra! Amar Ave-Maria
oyec eta Pater noster au izan bitez



254

Calvarioco bidean zure Semea gure culpen carga pisua Gurutzean ceramala, ta nequeaz aren azpian erorten icusi cenduenean zure biotz humillae artu zuan paregabeco dolorearen erreverencian. Jesus maitteac ta zue Aita Eternoari idiquiciñioten obediencia miragarria-gatic, arren alcanza zaguzu gure gurulze ta nequeen artean arren vorondateari zuen ondoren jarraitzeco obediencia humill bat; eta Principe Catolicoen eta oyen Erreinuetaco paquea, eta gure Jauna servitzeo osasuna ta gracia Amen.

BOSTGARREN MISTERIOA.

Jaungoicoaren Semea nola gurutzean jositia izan zan.

OFRECIMENTUA.

O Virgîna Maria, Jaungoicoaren

255

Ama eta tormentuen ondo gabeco ichasoa! Amar Ave-Maria oyec eta Pater noster au izan bitez zure sabeleco frutu bedeincatua, gu salvatzea-gatic Gurutzean jositia icusi, ta negarrez ta odola ceriola gugatic erregutzen, ta illic aren biotz lantza gogorrac idiquitzen icusi, eta zure biotzac artu zuen dolorearen erreverencian. Zure Semearen Gurutzeco dolore eta amore gucia-gatic arren alcanza zaguzu gure pasio ta gogo eragabe guciac Gurutzean jositzeo virtutea, eta biotzeo damuaz penitencia edo confesio on bat eguiteco bear dan gucia; Principe Catolicoen eta oyen Erreinuetaco paquea, Jaungoicoa servitzeo eta amatzeo osasuna, eta eriotza on bat eguiteco gracia. Amen. *Letania 262 garren orrian.*



MISTERIO GLORIAZCOAC.
Igande, Asteazquen ta Larumbateraco.

LENENGO MISTERIOA.

Jesu-Cristoren Resurreccio Gloriosoa.

OFRECIMENTUA.

¡O Virgiña Maria Jaungoicoaren
Ama eta Aingueruen Erreguina!
Amar Ave-Maria oyec eta Pater-
noster au izan bitez, zure Semea,
erioa vencitu ta gloriaz beteric,
Aingueru eta Santuen artean er-
resucitaturic, Zu icustera eta iga-
rotaco penac bere gloriaz aztu-
erazotzera etorri-zanean, zure bio-
tzac artu zuen ceruco alegriaren
erreverencian. Gure esperantzaren
gloriazco Misterio onegatic arren
conciencia justu garbi baten espi-

rituco alegria alcanza zaguzu; eta
Principe Catolicoen eta oyen Er-
reinetaco paquea, eta gure Jaun-
goicoa servitu eta amatzeco osa-
suna eta gracia. Amen.

BIGARREN MISTERIOA.

*Jesu-Cristo nola Ceructara igo zan
edo miragarrizco Ascensioa.*

OFRECIMENTUA.

¡O Virgiña Maria Jaungoicoaren
Ama eta ceruco ate ederra! Amar
Ave-Maria oyec eta Pater noster
au izan bitez, zure Seme Jauna,
Magestade guzliac janciric, cerue-
tara igotzen icusi cenduenean zure
biotzac artu zuen alegriaren erre-
verencian. Jesus maiteac, Aita
Eternoaren escuyan jarriric, dau-
can poderio gucia-gatic arren zure



258

bitartez gure biotzac lurreco ne-
queen arteap beregana beti jaso-
lzeo gracia alcantza zaguzu, zure-
quin batean bera icusteco ta ado-
ratzeo; Principe Catolicoen eta
oyen Erreinuetaco paquea, eta
Jaungoicoa servitzeco eta amatzeo
osasuna eta gracia. Amen.

IRUGARREN MISTERIOA.

Espiritu Santuaren Etorrera.

OFRECIMENTUA.

¡O Virgíña Maria, Jaungoicoaren
Ama ta gure argui ederraren A-
ma Santísima! Amar Ave-Maria
oyec eta Pater noster au izan bi-
tez Eleiza Santuaren argui ta con-
sueloraco Espiritu Santua Semeac
Aita-gandic bialdu zuenean, eta
zure Anima beste gucienac ba-

259

ño gueyago bere Doai ederrez
ta gloriaco ondasunez bete zue-
nean, zure biotzac artu zuen ale-
griaren erreverencian. Arren Espi-
ritu consoladore onen su-gar bici-
bat, zure biotzeo onci garbian be-
cela, bera ezagutzeco ta amatzeo
alcantza zaguzu; eta Principe Ca-
tolicoen ta oyen Erreinuetaco pa-
quea, eta Jaungoicoa servitzeco ta
amatzeo osasuna ta gracia. Amen.

LAUGARREN MISTERIOA.

*Virgíña Ama Cerura igo zaneco, edo
aren Asuncioa.*

OFRECIMENTUA.

¡O Virgíña Maria Jaungoicoaren
Ama eta pecataríen amparo segu-
rua! Amar Ave-Maria oyec eta
Pater noster au izan bitez, amorio



gozozco zure eriotza preciosoaren, eta erresucitatu eta gloriáz janciric, Aingueruen erdian ceruetara igo ciñaneco gloria paregabearen erreverencian, cerutar guztiac orduan artu zuten atseguin andiagatic, arren zure mantu-pean bici gueran pecatarioi gure eriotzaco orduan lagundu zaguzu, zure escuetan ta Jaunaren amorean gure anima eman, eta zu icustera betico igo gaitean cerura; eta Principe Catolicoen eta oyen Erreinuetaco paquea, ta Jangoicoa servitzeco ta amatzeco osasuna ta gracia. Amen.

BOSTGARREN MISTERIOA.

Ama Virginiaren Coroacio, edo Ceruan nola Coroatua izandu zan.

OFRECIMENTUA.

O Virginiã Maria, Jaungoicoaren

Ama, Aingueru eta Santu gucien Coroaric ederrenal Amar Ave-Maria oyec eta Pater noster au izan bitez, Trinidad Santisimoac, esan al baño gloria andiagoaz, gucien Erreguina ta Aingueru guciac baño gorago igo, eta eman cizun Dignidade guciz altuaren erreverencian. Zuc or goyen dituzun gloriázco honra eta ondasun gucia-gatic, arren alcanza zaguzu lurreco gauzac oinpean utzi, eta cerucoac zure ondoen eta Zu icusi artean billatzea; eta orretaraco Jaunarequin batean pecatuen eguiazco damuz gucien confesio on bat eguitea; eta Principe Catolicoen ta oyen Erreinuetaco paquea, eta Jaungoicoa beti amatzeco osusuna eta gracia. Amen.



AMA VIRGIÑAREN
LETANIA EUSQUERAZ.

Jauna, erruqui zaite.
 Cristo, erruqui zaite.
 Jauna, erruqui zaite.
 Cristo adigaitzatu.
 Cristo entzun gaitzatu.
 Ceruco Aita Jaungoicoa.
Erruqui zaitte guzaz.
 Munduaren Redentore Seme Jaungoicoa. *Erruqui zaitte guzaz.*
 Espiritu Santu Jaungoicoa.
Erruqui zaitte guzaz.
 Trinidad Santu, Jaungoico bat cerana. *Erruqui zaitte guzaz.*
 Maria Santa.
 Jaungoicoaren Ama Santa.
 Virgiñen Virgiña Santa.
 Cristoren Ama.
 Gracia Jaungoicozcoaren Ama.

R. Ertegu esazu gualte.

MARIA SANTISIMAREN
LETANIA LATIÑEZ.

Kyrie eleison.
Christe eleison.
Kyrie eleison.
Christe audi nos
Christe exaudi nos.
Pater de Cælis Deus.
 Miserere nobis.
Filii Redemptor mundi Deus.
 Miserere nobis.
Spiritu Sancte Deus.
 Miserere nobis.
Sancta Trinitas unus Deus.
 Miserere nobis.
Sancta Maria.
Sancta Dei Genitrix.
Soncta Virgo Virginum.
Mater Christi.
Mater divinæ gratiæ.

R. Ora pronobis



Ama guztiz garbia.
 Ama guztiz castoa.
 Virgiña ceralarie Ama.
 Ama tacharic gabea.
 Ama sortzetic garbia.
 Ama maita-garria.
 Ama miragarria.
 Creatzallearen Ama.
 Salvatzallearen Ama.
 Virgiña guztiz beguiratua.
 Virgiña Veneragarria.
 Virgiña alabagarria.
 Escu andico Virgiña.
 Virgiña biotz beraa.
 Virgiña leyala.
 Virtote guztien izpillua.
 Jaquinduriaren eserlecua.
 Gure poz emallea.
 Ontzi espirituala.
 Ontzi errespetagarria.
 Devocioaren ontzi andia.

Pr. Erregu ezazu gugatic.

Mater Purissima.
Mater Castissima.
Mater Inviolata.
Mater Intemerata.
Mater Immaculata.
Mater Amabilis.
Mater Admirabilis.
Mater Creatoris.
Mater Salvatoris.
Virgo Prudentissima.
Virgo Veneranda.
Virgo Prædicanda
Virgo Potens.
Virgo Clemens.
Virgo Fidelis.
Speculum Justitiæ.
Sedes Sapientiæ.
Causa nostræ lætitiæ.
Vas Spirituale.
Vas Onorabile.
Vas insigne devotionis.

Pr. Ora Pronobis.



Arrosa Misteriosa.
 Daviden Torrea.
 Marfillezco Torrea.
 Urrezco Echea.
 Battasunaren Cucha.
 Ceruco Atea.
 Egon sentico Izarra.
 Erien Osasuna.
 Pecatarien Igues lecuá.
 Estuasunen Consueloa.
 Cristauen Laguntzallea.
 Aingueruen Erreguiña.
 Patriarquén Erreguiña.
 Profeten Erreguiña.
 Apostoluen Erreguiña.
 Martirien Erreguiña.
 Confesoreen Erreguiña.
 Virgínen Erreguiña.
 Santu guztien Erreguiña.
 Jaungoicoaren bildots munduco
 pecatuac quentzen dituzuna.

A. Erregu ezazu gungatic.

Rosa Mistica.
 Turris Davidica.
 Turris eburnea.
 Domus Aurea.
 Fæderis Arca.
 Janua cæli.
 Stella Matulina.
 Salus Infirmorum.
 Refugium peccatorum.
 Consolatrix afflictorum.
 Auxilium Christianorum.
 Regina Angelorum.
 Regina Patriarcharum.
 Regina Prophetarum.
 Regina Apostolorum.
 Regina Martirum.
 Regina Confessorum.
 Regina Virginum.
 Regina Sanctorum omnium.
 Agnus Dei qui tollis peccata
 mundi.

R. Ora pronobis.



Barca eiguzu Jauna.

Jaungoicoaren bildots munduco
pecatuac quentzen dituzuna.

Entzun gaitzatzu Jauna.

Jaungoicoaren bildots munduco
pecatuac quentzen dituzuna.

Erruqui zaitz guzaz.

✠. Erregu ezazu gugatic Jaun-
goicoaren Ama Santa. *℞. Irichi di-
tzagun Cristoren aguinduac.*

ORACIOA.

Erregutzen dizugu Jauna, issuri
dezazula gure animetan zure gra-
cia, Cristo zure Semea guizon eguin
zala Aingeruen aotic jaquindu de-
gun ezquero, aren pasio eta guru-
tzearen bidez erresurrecioco gloria-
ra eramana izan gaitecen. Cristo
gure Jauna beraren merecimentuac-
gatic. *Ala guerta dedilla.*

Parce nobis domine.

Agnus Dei qui tollis peccata mundi.

Exaudinos Domine.

Agnus Dei qui tollis peccata mundi.

Miserere nobis.

✠. *Ora pronobis Sancta Dei Ge-
nitrix. ℞. Ut digni efficiamur pro-
missionibus Christi.*

OREMUS.

*Gratiam tuam, quæsumus Domi-
ne, mentibus nostris infunde, ut qui
Angelo nuntiante Christi Filii tui in-
carnationem cognobimus, per Passio-
nem ejus et Crucem ad Resurrectio-
nis Gloriam perducamur. Per eum-
dem Christum Dominum nostrum.
Amen.*

ESCARIA.

Zure amparora gatoz Jaungoicoaren Ama Santa, ez didazula aditu gabe ulzi gure premietan eguiten dizquitzugun escariae, baicie libratu gaitzatzu beti perill gucietatic, Virgïña gloriaz ta bendicioz betea.

Jaungoicoaren laguntza izan dedilla beti gurequin. *Ala izan dedilla.*



AMOREZCO
ETA DOLOREZCO
JESUCRISTOREN PAUSOAC.

CALVARIOCO ESTACIOAC
DEVOCIOAZ EGUITECO EJERCICIOA.

Devocio onetan Jesucristorequin
itz eguiteco, soseguz cïñatu, *Nere*



Jesu-Cristo Jauna, edo acto con-
triciozcoa biotzetic eguin, eta ba-
tec guzlien icenean, ofrecimentua
ezango du onela.

OFRECIMENTUA.

Aita Eternoa, Jaun guttiz Pode-
rosoa: beguira, ez guri ezpada zure
Seme maite Cristoren arpegui eder-
rari: ta Calvarioco bide santu one-
taco pauso guztiac, beraren biotze-
co amore eta intencioaz batean, zu-
re gloriaric andieneraco izan bitez:
eta ceruco ejercicio onetan diran in-
dulgencia edo barcacio guztiac, Ai-
ta Santuac nai duten becela eguiñaz
irabaci nai ditugu; eta Ama Virgi-
ñaren escuetatic Zuc nayen dituzun
Purgatorioco Animen sufragioan, ta
gure salvacioraco izan bitez. Amen.



LENENGO ESTACIOA.

Eriotzaco Sentencia Jesu-Cristori
eman cioten lecuca.

Sentenciatu dute
Jesus maitea,
Gurutzean iltzera:
¡O cer penea!

Pensa ezazu, cristava, nola Je-
sus gure Redentorea, ostiral san-
tu goicean bost milla eta gueyago
azote, arantzaco coroa ta beste
tormentuaz gañera, gurutzean ta



lapur biren erdian iltzera Pila-
losec condenatu zuan.

ORACIOA.

¡O nere Jesus, Redentore maitea!
Azote, arantza, pena ta lotsaz be-
teric, aiñ issil ta aiñ humill zure
eriotzaco sententia gure culpac-ga-
tic artu cenduana! Zure biotzeco
amore ta humildade onegatic, ar-
ren Jauna, indazu gracia, eguiazco
penitenciarequin nere pecatuen ca-
le-etatic libratzeco, eta zure tri-
bunal justuan nere favoreco sen-
tencia nic aditzeco. Amen.

*Jauna damu det Zu ofenditua,
izan ezazu nizaz misericordia.*

*Pater noster, Ave-Maria ta Glo-
ria Aita Santuaren intenciora, ta au-
pauso gucistan.*



BIGARREN ESTACIOA.

*Jesu-Cristori gurutzea eman cioten
lecu.*

Orain artzen ditu,
Gurutze batean,
Gure pecatuac
Bere gañean.

*Pensa ezazu cristava, nola Jau-
nari, burlaz janciricaco soñeco zar-
ra tiraca coroarequin quendu ciote-
nean bere soñecoac jantzi ta coroa*



berriro tormentu gogorrarequin sar-
tu cioten; eta erioztaco borrhoroac
gure pecatuen carga gutzia edo
gurutzea bere gañean eman cioten.

ORACIOA.

¡O nere Jesus, bildots guttiz
mansoa! Isaac justuac baño obeto
zuresacrificioraco egurra, zure Ai-
taren obediencia eta gure amorioa-
gatic, zure sorbaldan eraman cen-
duana! Zure biotzeco ondasun one-
gatic, arren indazu gracia, nere era-
gabecogogo gaizlo guciac, zure vo-
rondateari biciro sugetatu, eta ne-
re culpai ondoen dagoquien peni-
tencian, gurutzea beti zure ondoren
gogotic eraman, eta lurreco neque
oequin ceruco coroa irabaci deza-
dan. Amen. *Janna damu det etc.*



IRUGARREN ESTACIOA.

*Gurutzearequin Jesus lenengo ero-
ri zan lecua.*

Emen erori zan
Jesus gurea,
Lurra jasotzeco
Bere aurrera.

Pensa ezazu, cristava, nola gure
Jesus maittea chit necatu, ta oñen
gañean eciñ egon, eta gurutzearen

cargarequin lurrera erori zan. Beguira nola inferneco canalla ayec Jaunari jagundu bearrean, osticoca, golpeca la arrastaca erabilli, la nequez jaiqui-erazo zuten.

ORACIOA.

¡O nere Jesus, Jaun guztiz poderosa, ta gure amorez onela argaldu, ta lurra jo arteraño gurutzepëan macurtua! Zure amore ta paciencia siñ gabe onegatic, arren zure escua indazu, nere culpa pisuen azpitic, eguiazco penitenciarequin zugana jaiquitzecco, eta zure gurutzearen ondoren lurreco neque eta doloretan pocic ibilli nadiñ, eta zure arpegui ederra ceruco glorian icusi dezadan. Amen. *Jauna damu del etc.*



LAUGARREN ESTACIOA.

Jesu-Cristoc bere Ama Santissima topatu zuan lecua.

¿Nore esan lezaque
Amaren penea,
Onela icusi ta
Bere Semea?

Pensa ezazu, cristava, nola Calvarioco bide onetan, Jesus onae bere Ama maitea, pena ta negarrezco ichaso bat eguiñic, topatu zuan. Beguira ondo, begui amorosoaz biaic

alcar icusi, eta nola biotz batac bes-
teari amorez itz eguincion, ta biotz
laztan biac dolorez ito edo estutuco
ciran.

ORACIOA.

¡O Amarie maiteena, dolorez eta
ansiaz betea! ¡Ger ezpata zorrotzaco
zure anima josico zuen, zure biotzeco
Semea eta Aingueruen edertasuna
tratu artan icusi cenduenean! ¡Bu-
rua arantzaz josirie: arpegui eder
ura chistuz, odolez ta autsez ichu-
siturie; eta gure pecatuen carga
edo gurutzea gañean zuela, eta gol-
peca ceramatela! ¡O Amarie affi-
gituena! Arren indazu zure semea-
ren eta zure pena oyen lastima e-
guiuzco bat, gure pecatuen barca-
ciosa eta zuen amorioa betico arqui
dezagun. Amen. *Jauna damu det etc.*



BOSTGARREN ESTACIOA.

*Jesus maiteari gurutzea eramaten la-
guntzeco, Simon Cirineo artu
zulen lecua.*

¡Gurutzea eramaten
Nai dezu lagundu?
Bada emen nai dute
Lagun bat artu.

Pensa ezazu, cristava, dolorezco
bide onetan nola gure Jesus aian ar-
gal ta nequez cijoan ece judu odol-
guiroac gurutzearen cargarequin i-

cara ta erortzeco zorian icusi, ta Simon ceritzan Cirineoco guizon bat Jaunari lagantzeco artu zuten; baña ez lastimaz, baicic ceren gurutzeco tormentuan iltzen icusi nai zuten.

ORACIOA.

¡O Salvadore maitea! gure pecatuen carga zure gañean artu, eta gure animen billa aiñ nequez pauso oyetan ibilli cñana, eta Simon dichosoaren ejemploan Calvarioco bidean zuri jarraitzen eta laguntzen eracutsi ciguna! Iguzu arren Jauna, zure pasioco paciencia, gure pecatuen damu ta zure penen biotzeco lastima andi bat; gurutzeta eramaten oraiñ Zuri lagundu, ta orren frutua goza dezagun Zu alabatzen ceruco glorian. Amen. *Jauna etc.*



SEIGARREN ESTACIOA.

*Veronica esaten dan Andre piadosac
Jesus onari bere arpeguia
garbitu cion lecu.*

Arpeguico icerdi
Eta odoletan,
Zapi bat busti du
Iru dobletan.

Pensa ezazu, cristava, nola Jaunaren arpeguia chistuz, odolez eta autsez beteric Veronica santac icusi, eta iru doblezco zapi garbi bat



artu, ta gucien artelic sartu, ta arpegni divina garbitu cion, eta iru tolesturetad Jaunac here arpeguia estampaturic, orren paguan utzi cion.

ORACIOA.

IO nere Jesus, eguiazco edertasunaren ispillua! Combat nere peccatuac gatic ichusiago, ambat guretzat, Veronica Santarentzat becela, maiteago. Baldin gure culpac orrela ichusitu bacinduzten, orien damuac edo eguiazco penitenciac, zure dolorezco icerdi ta loyac quentzeco zapi garbiac izan biar dute. Iguzo, Jauna, gracia, biotzeco negarraquin gure animac garbitu, ta zure imagiña bici bat oriefan jositzeco, ta ceruan zure arpegui eder-ra beti icusteco. Amen. *Jauna etc.*



ZAZPIGARREN ESTACIOA.

Jesu-Cristo bigarren aldian erori zan lecua.

Bigarren aldian
Emen da erori,
Eta zu etzera
Contuan jauci.

Pensa ezazu, cristava, erritic camporaco ate batean, nola gure Jauna gurützearen cargac eritu, ta gucia argaldu, ta bigarren aldian erori,



ta lurra jo zuan. Beguira nola borre-
ro oyec golpeca jaso zuten, ta Jeru-
salen galdua Jesus onac utzi zuen.

ORACIOA.

¡O nere Jesus, misericordiazco
Aita! Munduaren Jabe bacarra Zu
izanic, zorayo eta erriaren deshona-
ra baciña becela Jerusalendic cam-
pora atera edo bota cinduzten: ¡Eta
orregatic ere erri dicha-gabe ari
lastimaz beguiratu ciñion! Arren
Jauna, zure piedade guztiaz gure
animai beguira zayezu, ta gurutzea
eramaten nic pocic lagunduco di-
zut; eta gure culpac-gatic erritic
bota bazaituzte, guc gure biotzean
artuco zaitugu, zurequin beti bi-
citzeco. Amen. *Jauna damu det etc.*



ZORTZIGARREN ESTACIOA.

*Jerusalengo andreaki Jesus onac
itzeguin cien lecuá.*

Pecatua-gatic
Negar eguizu,
Bada nere penac
Orrec eman ditu.

Pensa ezazu, cristava, nola Jesus
piadosoac, bere deshonna eta ne-
queen artean, lapur infame baten
guisa bacijoan ere, andre piadosa,
lastimaz ta negarrez aren ondoren
cijoacenai, esan cien: *Jerusalengo*

alabac; ez nigatic negar eguin, baicican ceren buruac-gatic ta zuen humeac-gatic, ceren orien gañera gaitz andiac etorri bear duten.

ORACIOA.

¡O nere Jesus, artzai ona becela, gure animen billa ibilli ciñana! Calvarioco bide gogor artan eta zure penen artean ere, andre piadosai eta ayetan guri, pecatuac-gatic bear becela negar eguiten eracutsi ciñiguna. Arren, Jauna, argui bici bat iguzu, ardi onen guisan zure dei amerosoa aditu, eta zuri artzai onari becela, zucen beti jarraitzeco, ta gure biotzeco negarraquin orañ Zuri lagundu, ta guero gure salvacio deya zure ao gozotic betico adidezagun. Amen. *Jauna damu det etc.*



BEDERATZIGARREN ESTACIOA.

Iruugarren aldian Jesus erori zan lecu.

¡O pecatuen
Gauza astuna!
Irugarrenean
Jo du emen lurra.

Pensa ezazu, cristava, nola aldaparen igoeran indarra saltatu, ta Jesus maitea irougarren aldian erori, eta bere arpegui ederra autsez bete zuen. Jequi nai, ta eciñ: eta



etsai gogorrae osticoca , tiraca eta
deadarrez esan cioten : ea , laster
jaiqui: gurutzean ill bear du, an
illic icusi nai degu.

ORACIOA.

¡ Onere Jesus, ceruco maisu amo-
rosoa ! ¡ O nola zure gurutzea eta
lurreco nequeac amore onez erama-
tera animatzen gaituzun ! ¡ Ay Jau-
na ! Nere culpac dira Zu bultzaca
ta golpea lurrean irugarren aldian
erabilli zaituztenac ! Arren , igazu
gracia, orien penitencia eguin, eta
gurutzearen penac gure culpen sa-
ria becela artu ditzagun; zure do-
loreac eta amorioa contemplatu,
eta orien sarian ceruco dicha beti-
co arqui dezagun. Amen. *Jayna
damu det etc.*



AMARGARREN ESTACIOA.

*Jesu-Cristori bere soñecoa quendu
cioten lecua.*

Ona nun daucazun,
Jesus billotsic,
Borutic beatzera
Zauriz beteric.

Pensa ezazu, cristava, nola bor-
rero odol-zale ayec lastimarie gabe
Jangoicoaren Semeari bere soñecoa
lotsa andian quendu, eta tratu gaiz.



toaquin aiñ batean jarri-erazo, eta beazunez nastutaco ardoa eman cioten. ¡O nola burlaca eta gaizqui-esaca emen deshonoratu zuten!

ORACIOA.

¡O nere Jesus paciencia miragarriaren ispillua! ¡Cer naigabe eta angustiac zure biotzac artuco ciotuen, munduaren beguietan zure soñecoac quendu, llaga sagraduac berritu, eta lotsa gorrian beazuna edateco eman cizuenean! Arren, Jauna, igozu indarra, pecatu eta pasioen soñeco zarra quendu, eta zure amorezco soñeco berria jantzitzeo, eta emengo atseguin falso beazunez beteac utzi, eta eguiaz zure atseguinae arquitzeo. Amen. *Jauna dumu det etc.*



AMAICAGARREN ESTACIOA.

Jaungoicoaren Semea gurutzean josi zuten lecu.

Oñac eta escuac
Iltzez josiric,
Emen dago Cristo
Penaz beteric.

Pensa ezazu, cristava, nola Jesus bildots mansoa, aiñ issill gure pecatuac-gatic sacrificatu bear zana, gurutzearen gañean ezarri eta tira-

ca zañac urraturic iltze gogorraquin
josi zuten, ta ayec erremachatzeco,
Jaun divinoaren gañean jarri eta
golpe bacoitzean Ama Saptisima-
ren biotz amorosoa Semearen gor-
putzarequin batean urratzea zuten.

ORACIOA.

¡O nere Jesus, pecatuac quantzen
dituzun bildots inocentea! ¡Ay!
¡Eta cer amorezco carobi bicia zure
biotza orduan egongo zan! Bada aiñ
humill ta poeic zure escu eta oiñ
sagraduac gurutzean jositzeco eman
ciñituen. Zure amore eta paciencia
onegatic, iguzu Jauna, gracia, gu-
re escu eta oiñac, pecatuen cateac
urratu, ta zure bildar ta amorezco
iltzeaz josi, eta zure biotzean be-
ti bici gaitean. Amen. *Jauna etc.*



AMABIGARREN ESTACIOA.

*Jesus gure bicitza gurutzean jaso,
eta illtzan lecuca.*

Emen Jesus ill zan
Guizona-gatic,
Acordatu zaitetz
Oraiñ eta beti,

Pensa ezazu, cristava, nola gure
Jesus, Jaungoico eta guizon eguiaz-
coa, gurutzean josi eta jaso zuten,
eta gurutzean asentatzeco bere za-
ñac deseguin eta puscatu, ta men-

di santu artan gure Salvadorea airean aguertu zan. Beguira nola la-
pur birea erdiaa tormentu eta bur-
len artean ill zan.

ORACIOA.

¡O nere Jesus, Ama Virgínaren fru-
tu bedeincatua, ta (gaur ordu ope-
tan) gure pecatuac-galic madarica-
tua becela, gure salvacioco frutu
gozo eguiñ, ta arbola santuan egon
ciñana! Gure indulgenciaco edo
barcacioco eguna auda: ta ori zure
tormentuac, penae eta lagac; ori
zure negar eta biotzeco de adarrac
Aita eternoari escatzen diote. Ala-
biz, Jauna, eta gure culpac eguiac-
co penitenciaz deseguin, eta zure-
quiñ, ill, eta betico bici gaitean.
Amen. *Jauna damu det etc.*



AMAIRUGARREN ESTACIOA.

*Gorputz Santua jechi, eta Ama Vir-
gínari eman cisten lecua.*

Gurutze gañetic,
Bere Ama gana,
Emen jechitzen da
Jesus laztana.

Pensa ezazu, cristava, nola gure
Jaunaren doloreac eriotzarequin a-
cabatu, ta Ama maitearenac dirau-
ten. Gorputz illa lanzadaz idiqui,



eta Ama Virginiaren anima josi zuten; eta Jose eta Nicodemus Santuac gorutzetic jechi eta Amari presentatu cioten. ¡Cer onen penac, cer negarrac!

ORACIOA.

¡O nere Ama Santisima, pena eta angustiazco ichaso ondo-gabea! ¿Nore esan, edo pensa dezaque zure animan cer igaro zan, zure biotzeco Semea illic besoetan artu cenduenean? Aren buru, escu ta oñac, ta biotz idiquia icusi, eta ¡cer tormentu eta doloreac artu cinduen! Arren bada, gure Amarie maiteena, oriecgatic iguzu eguiazco lastima andi bat, pecatuen damoz betico orienzat ill, ta zorequin Ceruan bici gaitean. Amen. *Jauna damu det etc.*



AMALUGARREN ESTACIOA.

Obian edo sepulcro berrian Jesusen gorputza sartu zuten lecuá.

Obi berri bat nai du
Zure biotzean
Jesus illac, betico
Zu bici zaitean.

Pensa ezazu, cristava, nola dolozco Amaren besoetic nequez Gorputz Santua Jose eta Nicodemusec artu, eta izara berri eder



300

batean eguiazco Cristo garbiro untatu eta arrizco obi berrian devocio andiaz sartuzuten. ¡O cer pauso onetaco Ama Virginiaren dolore eta negar samiñac!

ORACIOA.

¡O martiri guztien Erregoiña! Angustien pauso onetan, Jesus zure amorezco ta dolorezco lorepilla edo ramillete bat eguiñ, eta zure biotzaren erdian beti gorde cendena. Zure martirio pare-gabe onegatic, arren iguzu zure escua eta dicharic andiena, ceña dan zure soledade triste onetan zuri lagun eguitea, gure culpen penitenciarequin lurreco gauzac utzi, eta zure Seme Jesus eta Zu beti amatzeco ceruan. Amen. *Jauna damu del etc.*

301

JESU-CRISTOREN

BOST LLAGA SAGRADUEN

ADORACIOA.

Nere Ama doloretacoa; zure Semeac nigatic artu cituan bost llaga preciosoac zure aurrean adonatu nai ditut: ta oriec adonatzan Zue iduqui cenduan Espiritu eta amorioa beti iduqui nai nuque.

Ezquerreco oñeco llagari.

¡O nere Jesusen llaga preciosoa! Biotz guztiaz adonatzan zaitut, eta orregatic escatzen dizut Jauna, nere pauso eta ibillera gaiztoaquin eguin dizquitzudan ofensa gucien



302

barcacioa. *Pater noster ta Gloria Patri.*

Escuico oñeco Ilagari.

¡O nere Jesusen Iлага precioso!
Biotz guztiaz adoratzen zaitut, eta
orregatic escatzen dizut, Jauna,
nere itz ta obra gaizloaquin eguin
dizquitzudan ofensa gucien barca-
cioa. *Pater noster ta Gloria Patri.*

Ezquerreco escuco Ilagari.

¡O nere Jesusen Iлага precioso!
Biotz guztiaz adoratzen zaitut, eta
orregatic escatzen dizut, Jauna,
nere beguiaz eta beste sentiduaz
eguin dizquitzudan ofensa gucien
barcacioa. *Pater noster ta Gloria
Patri.*

303

Escuico escuco Ilagari.

¡O nere Jesusen Iлага precioso!
Biotz guztiaz adoratzen zaitut, ta
orregatic escatzen dizut, Jauna,
nere memoria, entendimentu ta vo-
rondateaz eguin dizquitzudan ofen-
sa gucien barcacioa. *Pater noster ta
Gloria Patri.*

Costadu Sagraduco Ilagari.

¡O nere Jesusen Iлага precioso!
Biotz guztiaz adoratzen zaitut, ta
orregatic escatzen dizut, Jauna,
nola zure biotza lantza gogorrae jo-
si zuen ta zure Ama Santisimare-
na ezpata zorrotze, ala nere ani-
ma zure amorioaz betico josi deza-
zula: bada ill nayago det Zu ofen-



ditu baño. Amen. *Pater noster eta Gloria Patri.*

BOST LLAGAI

SAN FRANCISCO JAVIERREC

egunero eguiten oien

ORACIOA.

Nere biotzeco Jaun eta Jaungoico Jesu-Cristo, bost llaga gurutzean eta beste ecin conta-ala zure pasioan gure amorioac ar-erazo cizquitzunac-gatic, escatzen dizut zure odol preciosoaz redimitu guinduzanoc arren zure ontasunac gorde eta zure gloriara eramán gaitzala. Amen.

**ACTO FEDECO,
ESPERANZACO ETA CARIDADECOAC.**

ACTO FEDECOA.

Sinisten det dala Jangoico eguiazco bat ta iru persona diferentead, ceñac diraden Aita, eta Semea, ta Espiritu Santua. Sinisten det Trinidada Santisimoco bigarren Persona eguin zala guizon, Maria Santisimaren entraña garbietan, Espiritu Santuaren obrax eta virtutez, guelditzen zala Señora soberana au Virgíña, semea eguin baño leen, eguitean eta eguin ezquero. Sinisten det Jaun onec padecitu zuala, ta ill zala gu salbatzea-gatic, piztu zala illen artetic irugarren egunean, igo zala ceruetara, ta etorrico dala biciaac eta illac juzgatzerá: au da



onac premiatzera, ta gaiztoac castigatzera. Sinisten det Aldareco Sacramentu Santuan dagoala Jesu-Cristo gure Jauna, Jaungoico ta guizon eguiazcoa ceruan dagoan becela. Sinisten det Ama Eliza Santa Catolica Erromacoac sinisten duan guztia ta Fede onetan nai det bici eta ill.

ACTO ESPERANZACOA.

Daducat esperanza Jaungoicoagan barcatuco dizquidala nere peccatu guztia, ta emango dirala bere gracia ta gloria, bere misericordia infinituagatic, Jesu-Cristo gure Jaunaren merecimentuac-gatic ta aren Ama Santisimaren erreguac-gatic, eguiten badet nere partetic obligacio dedana, eta eguin dezaquedana, ceña dan penitencia eguiazcoa.

ACTO CARIDADECOA.

Amatzen det Jangoicoa beste gauza guztia, baño gueyago, ta naya-go ditut galdu guztia, aren Divina Magestadea baño. Eta nai nuque amatu, munduco justu guztia, ta ceruco bienaventuraduac ta serafin guztia, amatzen duen becela. Eta posible balitz, nai nuque amatu beraren Ama, eta nere Señora Maria Santisimac amatzen duan becela. Ez amatua, ofenditua, izatea aibeste ofenditzen dutenac, ta guztia ez amatzea aren Divina Magestadea, bera dana izanagatic, damu det nere biotz guztie, ta proponitzen det emendatzea aren gracia mediante dala. Amen Jesus.



JESU-CRISTOREN PASIOA
EUSQUERAZ.

1 Jesu-Cristori quendu ezquero
Becatuquin bicitza,
Baldin ezpadet negar eguiten
Arrizcoa det biotza.
Gucioc lagun
Canta dezagun
Bere penazco eriotza.

2 Mundua baño lenagotican
Señalaturic eguna,
Alderatu zan obratze-cotzat
Guizonaren osasuna,
Arguia bera
Alde batera
Bestetic egun illuna.
3 Ostegun santu afal-ondoan
Bere lagun cituala,
Jesusec iru discipuloai,
Itz eguin cien onela:
Triste nago ta
Lo ori bota,
Eguizute emen gaubela.
4 Getsemanico ortu santuan
Auspez lurrean jarriric,
Escatzen cion libra cezala
Aitari caliz artatic;
Jesus penatzen,
Odolez urtzen;
Eta ez det nic negarric?
5 Icerdi otza arpeguian, ta
Biotza penen artean
Triste anima, gorputza larri
Agoniaco trancean;

- Baña ala ere
Cegoan firmé
Aitaren vorondatean.
- 6 Juddiæ Judas lagun arturic
Etorri ciran itauntzen
¿Nazarenoa deritzan Jesus
Emen ote da arquitzen?
Judas orduan
Baque moduan
Dijoa musu ematen.
- 7 Cembat dirade Judas becela
Cristoren adisquideac,
Campotic laztan b̄rendic saldu,
Ausiric beren legueac,
¿ Ah cristau falso
Anima gaizto
Becatari traidoreac!
- 8 Erantzun zuan Jesus maiteac
¿ Ceñen billa zatoz ona?
Ona emen nago, ezta besteric
Naico dezuten guizona:
Joateco ez det nic
Soca bearrie,
Ez eldu lagunoc gana.
- 9 Escuetatic lotu izan zuten,

- Gucien libertadea,
Cergatic au zan nere onean
Jaunaren borondatea,
Ala urratzeco
Aimbat urteco
Becatuaren catea.
- 10 Discipuluac here Maisua
Zutenean ala icusi,
Bacar bacarric bera utzi ta
Joan citzaizcan iguesi,
Pedro cetorren
Bere ondoren
Bañan au-ere urruti.
- 11 Badaramate Jerusalengo
Sacerdoteen aurrera,
Discipuluen gañean eta
Dotriñan contu artzera;
Caifas gaiztoa
Aurrenecoa,
Asten zayo itauntzera.
- 12 Ez det nic dio Redentoreac,
Predicatu ezcutuan,
Aguirian zan nere dotriña
Sinagogan ta temploan;
Ez neri galde,



Asco dirade

Enzun nautenac munduan.

13 Errespuesta aditu becela

Soldadu batec bertatic,

Gora darama bere besoa

Eta darautso Jaunari,

Icasi dezazun,

Nola erantzun,

Berriz Pontificeari.

14 Esan da eguin, ematen dio

Bere arpegui ederrean

Belarrondoco portiz bat, ceñec

Ezarri zuan lurrean.

¡Eta ceruac

Daude lotuac

Au ecusten dutenean?

15 ¿Noizco dirade, Aita Eternoa,

Chimistac eta arrayoac,

Ez erortzeco an bereala

Escu aiñ sacrilegoac?

Aingueruac, ea,

Atozte egan,

¡Nun dituzute egoac?

16 Baldin gaizqui itz eguin badet,

Arrazoi eman ezazu,

Baldin ezpadet, dio Jesusec,

Ecertan ere erratu

¡Cergatic arren,

Itz eguiñ arren,

Onela tratatzen nazu?

17 Indazu Jesus biotzacoa,

Zyre sufrimentu ori,

Jaquin dezadan, nola penetan

Emango dedan arpegui,

Barcaturican

Biotzetican

Etsairic andienari.

18 Damu det, Jauna, biotz guztitic

Zu ofenditu izana,

Ez, ez gueyago becaturican

Nere Jangoico laztana,

Ez ya culpatic,

Beboz argatic,

Pena oriec ni-gana.

19 Sua cegoan atarian, ta

Pedro su artan berotzen,

Ceren biotzac amorioan

Otz asco eion sentitzen;

Suaren queac

Bere beguac



- Negarrez bete cituen.
 20 Ceren ollarrac etzuen eman
 Bi bider bere soñua,
 Nun iru aldiz ucatu zuan
 San Pedro bere Maisua;
 Ezta besteric
 Ocasiotic
 Ateratzen dan pagua.
 21 Caifasec berriz galdetzen dio
 Eguñic juramentua,
 Esan zadazu Jesus, bacera
 Mesias promet tua;
 Ala ezpada
 ¿ Certaco izanda
 Engañatzea mundua ?
 22 Baciequien Jesusec nora
 Cijoan confesioa,
 Billatzen zuan condenatzeco
 Caifasec ocasioa;
 Eta arequin
 Nai-cion eguin
 Illtzeco acusacioa.
 23 Ala-ere bayetz eranzuten du.
 Aitari beguiraturic;
 Baita Caifasec ere deadar

- Soñecoac urraturic;
 Blasfemo-ena
 Da onen pena
 Ya dago causa eguñic.
 24 Jaiquitzen dira Conciliotic
 Ta artzen dute bidea
 Amargurara, nun Pilatosec
 Ceducan bere echea,
 Zan Erromaco
 Dembora artaco
 Juduen Presidentea.
 25 Juezac dio: emango badet
 Guizon au eriotzara
 Ecarzquizute causa justuac,
 Ezpadirade ¿ certara
 Darabiltzute ?
 Eramazute
 Or Herodesen aurrera.
 26 Aita Eternoaren jaquinduria
 Dauca munduac zorotzat,
 Argatic dio Erregue orrec,
 Jantzi tunica zuri bat;
 Bestela ¿nola
 Ceruco estola
 Erosico zan guretzat?

- 27 Esan cioten Pilatos-orri
Juduen Sacerdoteac,
¿ Uste aldezu ez ditugula
Guc ere gueren legueac?
Blasfematu du,
Mereci ditu
Eriotza ta azoteac.
- 28 Onec esandu, izanic arotz
Pobrecho baten Semea,
Dala Jaincoaren Semea, eta
Judeaco Erreguea:
Illtzen ezpadezu
Etzera ez zu
Cesar-en adisquidea.
- 29 Nai zuquean Juezac Jesus
Eriotzatic libratu,
Cergatic here inocencia
Ondo zuan ezagutu;
Bañan Juduac
Cenden ichuac,
Etzioten permititu.
- 30 Eriotza bat eguinda, dio
Dago Barrabas carcelan
¿ Nor nai dezute, Nazarenoa
Edo au libra dezadan?

- Da costumbrea
Bat libratzea
Zuen Pasco egunean.
- 31 Ozta aotic atera zuen
Asi ciran deadarrez,
Libra ezazu Barrabas, bañan
Jesus Nazarenoa ez;
Orrec bear du,
Ondo penatu
Abe batean dolorez.
- 22 Berriz galdetzen du Pilatosec
Baña ¿ cer causa emandu?
¿ Israelco Erregue dala
¿ Satea da pecatu?
Ayec deadar
Erregue Cesar
Ori gurutzean ipinzu.
- 33 Justiciaco legue guciac
Utziric alde batera,
Salvadorea condenuatzen du
Cruelqui azotatzera;
¿ Ceru altuac
Cer decretoac
Datoz ortican lurrera!
- 34 Jaungoico ura, ceñac daucan

Mundua lorez jancirie,
Descortesquiro bere arropae
Tunicarabo erancirie,
Narru gorrian,
Egun arguian,
Utzi zuten lotsaturic.

35 ¿Nora cerate gaba ta odayac
Illuntasuna ¿nun cera?
¿Nola etzatozte Virginiaren
Seme eder au estaltzera?
Orra eguzquia,
Zure arguia
Biral ezazu atzera.

36 Bost milla azote eta gueyago,
Loturic coluna batean,
Asi ciraden iru horrero
Beren espaldetan ematen;
Ibai bat nola,
Ala odola,
Abiatu zan issurtzen.

37 Arriac eta Salvadoreac
Biac alcar ciruditen,
Cergatic etzan aren aotic
Sentimenturic aditzen,
Marmolac berac

Golpe cruelac
Cituanean sentitzen.

38 Pillare artatic bereala Jauna
Soldaduae ascaturic,
Dijoazquio adoratzera
Burlaz Erregue eguñic,
Bere Coroa
Arantzazcoa
Buruan aguitz josiric.

39 Mantu zatarra soñean, eta
Cañabera bat escuan,
Onela Jesus tratatzen zuten
Becataria munduan,
Mundua bera
Redimitzera
Jauna cijoan orduan.

40 Jesus onela icusi, eta
Pilatos erruquituric
Dio herriz: nie ez det arquitzen
Guizon onetan culparic,
Ill-ezazute
Nai badezute,
Erroman ezta legueric.

41 Ayec deadar: Jauna dalaco
Pilatos bildur bacera,

- Datorquiela gure animai
Orren odola gañera;
Ez guera ardura,
Gure contura
Condena ezazu gurutzera.
- 42 Juez gaiztoac Sacerdoteen
Esana eguitea-gatic,
Pnblicatzen du sententia bat
Ez ñore oquerragoric,
Ala ere nai du,
Libre guelditu
Jangoicoaren odoletic.
- 43 Alfer alferric Presidentea,
Garbitzen dituc escuac,
Juez justutzat iduqui azan
Hipocritori munduac;
Loituric ago,
Bañan gueyago
Hi baño ere Juduac.
- 44 Gurutze batean mundu gucico
Pecatuac cituala
Abiatu zan Calvariora
Jesus lapur bat becela;
Artu gurutzea
Au da bidea,

- Galduco guera bestela.
45 Salvadorea; pauso bat ere
Eciñ emanic aurrera,
Arbola astunac azpiraturic,
Ventzutu zuan lurrera;
¡ O becatua!
Zure pisua,
Carga gueia zu cera.
- 46 Eciñ bacarric eraman zuan,
Zalaco guztiz astuna;
Eta argatic eman cioten
Cirineoa laguna,
Dichazco guizon
Cerade Simon:
¡ Nore leuquean zure eguna!
- 47 Bide onetan cijoanean
Calvarioco mendira
Bere Semea contemplazeco
Ama cegoan beguira;
An dira pestac;
An tormentuac;
Martirioac an dira.
- 48 Ama Virgüña afligitua,
Ichi itzatzu beguic
Estali zaitc, ain bague ere

Asco darama Semeac
Tormenturican,
Batere itzican
Ez dizu utzico negarrae.

49 Biraltzen ditu Amac beguiac
Semearen icustera,
Bañan biotzac sufritu ecin ta
Biurtzen dira atzera :
Datoz argatic
Beguiac-gatic
Biotzac itz eguitera.

50 Semearenac esaten dio
Badaquizu, Ama maitea,
Asco sentitzen badezu ere
Onela ni icustea,
Bestela ecin
Ceruarequin
Egingo dala paquea.

51 Nere Aitaren vorondatea
Cerura beti daucazu
Aren esanac narama : agur,
Bendicioa indazu,
Nere ordeaz
Becatariaz
Contua zue iducazu.

52 Zuaz, nere Seme maitea
Illtzera ordu onean :
Bañan ; nola utzi nai nazu
Bacardade aïn tristian?
; O nola bai nic,
Eta ondo pocic
Jarraituco nizuquean !
53 Salvadoreac onela penaz
Eguinic bide erdia,
Veronicaren caridadeac
Quendu cion icerdia,
Obra onen pagu
Jaunac uzten du
Pinturan bere arpeguia.
54 Ceramazquien bere laguntzan
Jerusalengo alabac,
Penaren andiz beguietatic
Urturic beren biotzac ;
Eta beren gana,
Biurturic Jauna,
Dio : ; Ay emacumeac !
55 Arbol eoe au erretzen badu
Becatuaren sugarrac
; Nola ez ditu abrasatuco
Su orrec egur igarrac?



324

- Ez neri negar,
Ez det nic bear,
Becatuari negarrac.
- 56 Eldu ciraden calvariora,
Nun ceuden prest borreroac
Mundu gucico eguilleari
Josteco oñac ta escuac,
Icusi cezan
Bigarren Adan
Arbola artan munduac.
- 57 ¿Norc ditu escu-oñ orietan
Burniarequin idiqui,
Gorrotoac edo amorioac
Odolezco lau iturri?
Bularretican
Ate eguñican
Amorioa da aguri.
- 58 Beltzez jantziric ezcutatzen du
Ceruac bere arpeguia;
Lotsagatican guelditzen dala
Gorrituric illarguia,
Gau illunean,
Cegoñean
Altuen a eguzquia.
- 59 Austen dirade arriac, ¿nola

325

- Daude biotzac osoric
Abe batean dolozet iltzen
Gure bicitza icusiric?
Becatariac,
Gora beguiac
Negar iturri eguñic.
- 60 Gogotic negar eguingo dizut
Jarriric ceure oñetan,
Nere Jaun ona zaitudalaco
Ipiñi gurutzean;
Daucat damua
Zu ofendi tua
Gauza gucien gañean.
- 61 Izanagatic, Jesus maitea,
Nere becatua andia,
Preciosoa da zure Odola
Au daquidala balia,
Piedadea,
Nere Jabea,
Jauna Misericordia.

ANIMA PENITENTE BATEN
NEGARRAC.

- 1 Entzun itzatzu becataria
Anima baten negarrac,
Jaquin dezazun salvatutzeco
Dirala guciz bearrac.
- 2 Dolorez triste zauden anima
Cer dezun arren esazu,
Negar oriez nere biotza
Erdiratutzen dirazu.
- 3 Jangoicoaren ofensac dira
Zuc dituzunac ain damu,
Biotz guciaz billa bacera
Ez da oraindic berandu.
- 4 Barren orretan senti dituzun
Jaunaren desengaihoac,
Utzi eragun dizute orain
Leengo pauso galduac.
- 5 Becaturaco diversioac
Largaric alde batera,
Erretiroan cere burda

- Bazoaz ezeutatzerá.
- 6 Ezeutu artan billatzen dezu
Bacardadean lecuá,
Nolabait ere irabazteco
Leengo dembora galdua.
 - 7 Begui oriec bustiric bada
Jesu-Cristoren onetan,
Auspez etziñic icusten zaitu
Negarrez modu onetan.
 - 8 Nere Jangoico laztana, arren,
Nizaz misericordia,
¿Zugan baicic nora biurtu
Diteque becataria?
 - 9 Arpeguitican lotsa darit
Zugana aguertutzean,
Gogoratuñic cer eguin dedan
Zu ala ofenditzean.
 - 10 Badaquit, Jauna, dedana ondo
Merecitu infernuá,
Egon naiz bada nere bicitzan
Zuzaz ni beti aztua.
 - 11 Gurutze onetan Zu ipintzeco
¿Cer izan zan motivoa?
¿Cer izango zan baicic dirazun
Betico amorioa?

- 12 Beraz orrela seguru nator
Gurutze onen oñera,
Barcacioaz, dudarie gabe,
Zure gracian sartzera.
- 13 Jesus nereea, ez alda izan
Munduan becatariric,
Nic becin gaizqui amorio orri
Erantzun izan cionic
- 14 Orain becela dembora batean
Ezagutu izan bac ndut
Añ erraz ¡ay! nere Jabea
Ofenditueo ez cinduzt.
- 15 Cergatic oraiñ dizut aimbeste
Zure ofensac sentitzen,
Nun da biotza bere artean
Dago dolorez partitzen.
- 16 ¡Ay nere Jesus! ¡nere Jabea!
¡Ay nere Aita gozoa!
Urratu dezu infernucoac
Ezari ciran lazoa.
- 17 ¡Cerequiñ oraiñ pagatueo da
Zure erruqui aundia,
Ichodotean aimbat dembora
Ni beciñ becataria?
- 18 Zuc bear dezu aurreraoan

- Nere biotzaren jabe,
Beste guciac galduta ere
Ez naiz izango zu gabe.
- 19 Adio mundu, adio lagun
Nai ezpanazu jarraitu,
Larga zadazu nere moduan
Daquidan Jauna servitu.
- 20 Negar oriez garbi itzatzu
Anima, zuc cere loyac
Chiqui eta andi izan dituzun
Cere becatu guciac.
- 21 Badaquit oraiñ lagun gaiztoac
Esan dutela zugatic,
Salvatu uste guc-ere degu,
¿Cergatic zoaz gugandic?
- 22 Baldin biurtzen ezpacerade
Lengo adisquide-etara
Bicitza triste orrequin zatoz
Cere burua galtzera.
- 23 ¿Cembait obe zan oraiñ aldian
Aprovechatu munduaz?
Urteric asco guelditzen zatzu,
Bicitzeco penatuaz.
- 24 ¡Ah lagun gaizto! ¡ah lagun falso!
¡Ah lagun beti ichua!

- Ic emango dec egun batean
Anima ascoren contua.
- 25 ¿Cembat bider baliatzen da
Etsaya ire mingañaz,
Jesu-Cristori quendutzeco
Animac ire guezurrae?
- 26 Badaquit ondo cer pisu duan
Jesu-Cristoren odolac
Onen costuan erori ciran
Galdu ditudan lagunac.
- 27 Ichoc pisca bat etorrico dec
Iretzat egun larria,
Orduan ondo pisatuco dec
Ire pecatu andia.
- 28 Baña zuc orain, anima santa
Ichi cere belarriac,
Ez entzuteco lagun gaiztoen
Conseju aiñ galgarriac.
- 29 Desprecioaz mundu zoroa,
Etsaya oracioaz.
Aragui ori sugetatzen da
Ocasiotic bazoaz.
- 30 Izan dituzun tentacioaz,
Ez dezu certan bildurtu,
Santu guztiac zure favore

- Cere aldetic dituzu.
- 31 Oyec bai, oyec, dira conseju
Animari egoquiac
Ondo sarturic cere gogoan
Iduqui itzatzu guciac.
- 32 Mundu onetan eguingo dezu
Santuen bici gozoa,
Anima garbi biotza alegre
Gucia Jangoicozcoa.
- 33 Becatariac dauque biotza
Gucia arantzaz josiric,
Barrengo quezea farra falsoaz.
Disimulatu eciniac
- 34 ¿Cer dauca orain certan icusi
Bicitza batac besteaz,
Munduan ere igarotzeco
Contentuz eta paqueaz?
- 35 Artu dituzun asmo santuac
Utzitzen ez badituzu,
Illtzeracoan cembat contentuz
Estimatuco dituzu.
- 36 Orduan diot iduqui itzatzu
Azquen itz oec gogoan,
Lo gozo batec artuco zaitu
Jesu-Cristoren besoan.



332

- 37 Entzun dituzun becataria
Anima onen negarrac,
Guciac dira Jangoico onac
Eman dizquituzun deadarrac.
- 38 Conyerti zaita albait lasterren
Cere Jangoicoa-gana,
Bere besoac zabalic dago
Artzeco zu beregana.
- 39 Milla amorez artuco zaitu,
Bere besoen artean,
Cergatic eztan Aita besteric
Ceruan eta lurrean.

333

ARQUI-BIDEA.

Obispo Jaunaren baimena.....	2
Iracurleari avisoa.....	3
Cristavaren devocioric santuenen icasquizunac.....	7
Meza ta comunio sagraduaren dotri- ña edo icasquizunac.....	15
Goiceco Oracioac.....	22
Au berau beste modu batera.....	23
Ama Virginiari escaria.....	25
Aingueru guardacoari.....	25
Aita San Jose Gloriosoari.....	26
Arratseco Oracioa.....	26
Astearen zazpi egunetaco medita- cioen dotriña.....	28
Asteleneraco meditacioa.....	37
Astearteracoa.....	43
Asteazquenecoa.....	46
Ostegunecoa.....	50
Ostiralecoa.....	55



Larumbatecoa.....	59
Igandecoa.....	63
Ave-Marietaco Oracioa.....	67
Maico Oracioac.....	68
Ondo confesatzeco ejercicioac.....	71
Esamiña Concienciacoa.....	74
Esamiña ondorengo Oracioa.....	97
Jaunari barcacioa escatzecoa.....	98
Confesio aurreraco acto contricioz-coac.....	101
Beste iru consideracio guztiz egoqui- ac.....	104
Confesio ondoraco oracioa.....	111
Comunio espirituala nola dan.....	112
Bera eguiteco modu errazac.....	114
Ondo comulgatzeco ejercicioa.....	118
Comunio Santua artzeco modua.....	122
Comunio ondorengo oracioac.....	123
Meza Santua cer dan.....	131
Mezaco misterioen dotriña.....	136
Meza aurreco oracioa.....	141
Meza entzuteco modua eta oracioac.....	142
Bost aldaretaco oracioac.....	192
Vezperac cantatzen diran artean per- sona devotac letu ditzaqueten	

consideracio egoquiac.....	194
Aldareco Sacramentu Santuari egui- ten zayon visita.....	218
Maria chit santari visita.....	231
Mariaren viotz sagraduari adoracioa.....	237
Beste oracio bat Maria chit santari.....	238
Maria chit santari agurrac eta es- queñiac.....	239
Errosario Santua.....	241
Ama Virgñaren letania eusqueraz eta latñez.....	262
Calvarioa.....	271
Jesusen bost llaga sagraduen ado- raciona.....	301
Acto fedeco, esperanzaco ta carida- decoac.....	305
Jesu-Cristoren Pasioa.....	308
Anima penitentearen negarrac.....	326